

ITZULPEN ETA TERMINOLOGIAZKO ALDIZKARIA

senez

1

zenbakia

Turtea

1984 abendua

SENEZ

Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkaria

1

**I. urtea
1. zenbakia**

**Itzultzaile Eskola
UZEI
Elhuyar**

Portada: LAURA ESTEVE

ISBN 84-7086-115-8

Depósito Legal: 686-84

Imprime: Itxaropena, S.A. - Errikobarra kalea, 2 - Zarautz

SENEZ

Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkaria

Erredakzio Batzordea:

Zuzendari: Jesus M. Zabaleta

Hizkuntz arduradun: Aintzane Ibarzabal

Batzordekideak: Tere Barrenetxea

Gotzon Nazabal

Andoni Sagarna

Helbidea:

Itzultzaile Eskola

Lanbide Eskola

Barkaiztegirako bidea z/g

MARTUTENE - DONOSTIA

Tfnoa. 46 19 90

Itzultzaile Eskola

UZEI

Elhuyar

Aurkibidea

Aldizkari hau	9
Gaiak	
I. Itzultzaile Eskola: Histoaurrea eta Iragana. <i>Xabier Mendiguren</i>	19
II. Itzultzaile Eskola: Orainaldia.	
<i>Koro Navarro</i>	27
Elhuyar eta UZEI: Euskara laneko hizkuntza bihurtu nahian. <i>Andoni Sagarna</i>	35
Euskal itzulpena komunikabideetan.	
<i>Iñaki Zubizarreta</i>	63
Administrazioko itzulpengintza.	
<i>Jose Ignazio Berasategi</i>	69
Argitaletxeak eta itzulpena	
<i>Imanol Tapia</i>	81
Hizkuntz irakaskuntza eta itzulpen zerbitzua. <i>J. Naberan</i>	87
Itzulpen poetikoa Errusian.	
<i>Sergej F. Goncarenko</i>	91
Heriotza iragarritako baten kronika edo euskal itzultzailearen beldurrak.	
<i>Begoña del Teso</i>	101
Iruzkinak	
Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea	109
Landareen eta animalien izenak.	
<i>Martxel Aizpurua</i>	119
Euskara gizarte bizitzan	
<i>Jesus M. Zabaleta</i>	127
Euskara eta Administrazioari buruzko	
I. Ihardunaldiak. <i>Gotzon Egia</i>	129
Berri eta Albiste	
Termia 84. <i>K. Harluxet</i>	135
Euskaltzaindiaren X. Biltzarra.	
<i>Aintzane Ibarzabal</i>	139
FITen X. Mundu-Biltzarra	143
SIETen bilera Vienan	145
APETI	147
Euskara-Euskalkiak Topaketak.	
<i>Jesus M. Zabaleta</i>	149

Aldizkari hau

Sarrera

Aldizkari hau nork, nola eta zertarako egiten duen adierazi baino lehen, urte luzeak opa dizkiogun ekinbide honetarako sarrera besterik ez den aldizkariaren lehenengo zenbaki honetarako sarrera honetan, zilegi izango al dugu itzulpengintzaz, eta are euskal itzulpengintzaz, hitz paretxo bat bederik esatea.

Izan ere, itzulpengintza eta terminologiazko aldizkari hau zertarako galdegiten dugunean, itzulpena bera eta terminologia zertarako galdegin behar dugu. Zertarako euskal itzulpena, zertarako terminologigintza? Horri erantzun ondoren dute tokia gainerako galdera guztiek: nork? nola? noiz?

Itzulpena, hitzuntza bi elkarren gertuan suertatzen diren une beretik gertatzen den giza iharduera modu bat da. Terminologigintza ere gizonari munduan dagoenez gero esateko gauza berriak gertatu izan zaizkionetik bada, zinez. Esango litzateke, gainera, arrazoiak ez bait dira falta, zenbat eta herria txikiagoa, zenbat eta jende gutxiagoz osatua izan hizkuntza batez mintzatzen den herria, orduan eta sarriago gertatzen dela beste hizkuntzetatik itzulpenak egin beharra. Gauza jakina da elebidun eta are eleaniztun pertsona gehien dituzten herriak herri txikiak direla, eta zenbat eta herria txikiago,

orduan eta eleaniztunago. (Amazonetako tribu indioetan, esaten dute, gauza arrunta omen da edozeinek lau bost hizkuntza jakin eta nola hala hitzegiteko edo elkar ulertzeko behintzat gai izatea, europar jende desarroilatu eta guztiz aurreratuarentzat esajerazioa dirudiena).

Euskal Herrian ere aspaldikoa da itzulpengintza. Pentsa liteke, behintzat, Euskal Herriak beste herrietako jendeekin, atzerritarrekin betidanik izan dituela harremanak, eta nola edo hala elkarri ulertu behar ziotela esaten zutena. Pentsatu besterik ez dago zenbaterainoko itzulpen premiak sortuko zituena bere garaian Santiagorako erromesen bideak, Aymerich Picaudek bere hiztegia egiteko premia sentitu zuenerako. Terminologigintza ere hasiera-hasieratik datorren iharduera da, mailegua terminologigintzaren modu bat baldin bada behintzat.

Liburu inprimatuetan ere, ezagutzen direnetan behintzat, bigarrena itzulia du euskarak, burutu aurretik eta egiten ari zen bitartean, itzulpengintzarako teorizatze saio formala eta terminologigintzarako ere iritzi finkoak hartu ondoren itzulia hala ere.

Harrez gero saio ugari egin izan dira euskarazko itzulpengintzan, itzulpenaren teorizazioan eta terminologian. Itzulpenari dagokionez, mende honetara bitarteko liburugintzan, argitaratu izan diren liburu guztien erditsuak itzulpenak izan dira. Itzulpenaren teoriako saio laburrak ere sarri egin izan dira, Leizarragarengandik berarengandik, eta Larramendi, Cardaberaz eta abar eta abarretatik hasita gaur bertarainokoak. Kontutan harturik, gainera, berez jatorrizko testu bezala agertu izan diren asko eta asko itzulpentzat salatu izan direla, itzulpen txartzat hain zuzen.

Larramendi eta Cardaberaztarrak aspaldi joanak direlarik, Euskal Herrian itzulpengintzak ez du behera egin, ez kopuru absolutuetan ezta erlatiboetan ere. Aitzitik, esan liteke bai guztira, bai proportzioan inoiz baino gehiago itzultzen dela gaur egun beste hizkuntzetatik euskarara, eta ez da misterio. Bi arrazoirengatik batez ere.

Lehendabiziko, gaurko gizartean askoz ere informazio gehiago erabiltzen da lehenagoko denboretakoetan baino. Era guztietako informazioa hala ere. Gizonaren bizimodua aurreratu ahala -laburtzeko esaten da horrela-, erosotasuna gehitu ahala, geroz eta denbora gehiago hartzen du gizonak.

komunikaziorako. Ez da esaten nolako komunikazioa. Horrek beste azterketa bat mereziko luke.

Euskal Herrian erabiltzen den informazioa, ordea, bi iturburutatik datorrela esan liteke; informazio horren bi iturburu modu berezi litezke: Euskal Herriaz kanpotik datorren informazioa, informazio hori honako beharrezkotzat jotzen den neurrian, horren eskabidea badagoen neurrian, bi modutara esku-
ra daiteke:

- a) Informazio hori datorrern hizkuntza ikasiz.
- b) Itzulpenaren bidez.

Informazio batzuk berri ematera, gertakarien berri ematera mugatzen dira bakarrik. Beste mota batzutako informazioetan bizimodua alda lezaketen gertakarien berri dator; zientziatzko informazioetan batez ere. Zientzia eta teknika alorretan ordea, etengabeko berrikuntza eta aurreramendua gertatzen da egunetik egunera, gaur egun hartu duten abiadarekin. Eta horren ondorioz, nonbait, alde guztietan gertatu ohi da lanbide horietan ari diren zientzia gizon edo teknikariek zientzia eta teknika horien aurreramena egiten den hizkuntzak ikasi ohi dituztela, batez ere, informazioa jendetza ugarietara zabaltzeko ez denean. Horrelako kasuetan informazio mota horietarako hizkuntza bat edo batzuk esan gabe izendatuta egon ohi dira alor horietan erabiltzeko, eta hizkuntza horietan jakin ohi dute elkarren berri alor bakoitzeko zientzia gizon eta teknikariek.

Gauzak gaur gertatzen diren bezala, esan liteke hizkuntza horiek ingelesa eta alemana direla batez ere, eta geroz eta gehiago errusiera ere. Jokaera hori ez da gainera hizkuntza txikien ondare berezia, hiztun ugari dituzten hizkuntzetan ere jarri berbera nabari bait da.

Eskuratu nahi den informazioa orokorragoa baldin bada, herritar gehiagori dagokiona (beren lanerako dagokiola esan nahi da batez ere), alegia, informazio horrek interesatu gehiago, kontsumitzaile gehiago duenean, joera normalagoa, usuagoa izaten da itzulpena. Itzulpena, izan ere, orain artekoarekin, interes bati erantzuteko, informazio premia bat betetzeko egiten den iharduera berezi bat da.

Nork erabakitzen du, ordea, zein den interes orokorreko informazioa, eta zein ez? Zeren momentu batean oso gutxiengo labur baten esku egon den informazioa, une horretan jakituria deitzen zena, gizon jakintsu banaka batzuen ondarea, hu-

rrengo batean informazio orokor bihurtu bait da; historia bete-beterik dago horren adibide eta frogaz. Eskoletako Entziklopediak beterik daude inoiz oso jende gutxi zekien gauzez. Hori dela eta, hizkuntza zabal eta labur guztietan, hiztun asko eta gutxiago dituzten hizkuntza guztietan, edo beren buruz arduratzeko kemena geratzen zaien gizarteetako hizkuntzak direnetan behintzat –gurea halakoxetzat hartzen dugu– ari dira jartzen ahalik eta informazio gehien itzulpen bidez eskuratzeko tresneriak. Ikusi besterik ez dago, harritzekoa bada ere, lehen esandakoaren alderantziaz, nola hiztun gehien duten hizkuntzetan mintzatzen diren gizarteak diren normalean elebidun eta eleaniztun proportzio txikienak dituztenak.

Kontutan harturik, gainera, nazio artean komunikatzen den informazio asko eta asko zientzi alorrei dagokiena dela, edo alor horien zabalkundezkoa, terminologigintzak lan handiak ematen ditu, informazio iturria anitza izaten bait da. Eta ez da lan gutxiagokoa zientzi hizkuntzak eskatzen duen zehaztasunak terminologia bankuetan hitzen esanahien kontrole-rako eragiten dituenak.

Guzti honekin ez da esan nahi interesdunen ugaltasunak bakarrik zilegiztatzeko duela itzulpena. Informazioa ahalik eta zehatzen, ahalik eta edukiak kontrolik zehatzenarekin ezagutzeko interesak ere eragiten du sarritan itzulpena. Izan ere ezin bait daiteke beti eskatu komunikazio egoeran aurkitzen diren mezu emaileak eta mezu hartzaileak, biek hizkuntza bera modu egoki batez ezagutzea; baina hala ere gerta liteke horrelako batean biek informazioa zehatz eta puntu eta ñabardura guztietan ezagutu eta kontrolatu nahi izatea; horrelakoetan eta izaten da itzulpenerako eskaria. Pentsa bedi, adibidez, kontratuetan, zinpeko itzultzaileen lanean, hain zuzen ere, kasu horietan, zehaztasun premiak berak eta kontrolaren beharrak hala eskaturik, itzultzaileen lanak estatutu publiko eta are instituzionala ere hartzen bait du, testu jakin batek legezko balioa ukan dezan.

Hizkuntza egoera normal batean bi itzulpen modu horiek dira gehienbat gertatzen direnak. Eta era horretara ematen den informazioaren ugaritasunak, transmisioaren azkartasuna eta fidagarritasunaren froga eskatzen du; transmisioa azkar egin beharrak, berriz, hizkuntzen arteko trukagarritasun erraz eta erosoak.

Horretarako, ordea, edo hizkuntzak berdintzen dira elkarren dialekto izateraino, hitzez hitzeko itzulpen ia bapateko eta automatiko bat posible bihurtuko litzatekeen moduan, baina horren teoria sinplean gizonaren eta hizkuntz praktikaren abstrakzioa egiten da, eta horrenbestez absurdoa da, edo itzulpenaren teorian eta berorren erabil alorrek diren hizkuntzen ezaguera eta deskribapen zehatzetan sakondu beharra dago. Bide horretatik planteatu ere ahal izango dugu, hain zuzen, makina bidezko itzulpen automatikoa, adibidez, baliagarri izateko den alorretan.

Gertatzen da, ordea, itzulpen bidezko komunikazio honek, besterik gabe, hizkuntzak dauden-daudenean, elkarren eragirik gabe utziko balitu bezala planteatzen direla sarritan gauzak, alegia komunikazio modu eta elkarren arteko interferentziatarako filtro itxia balitz bezala itzulpena. Itzulpen perfektuak hala behar luke, ustez. Hizkuntzalaritza kontrastiboak itzulpenean frentez-frente jartzen diren bi hizkuntzei buruz ematen duen ezagutzatik bihurketa mekanismo optimo batek etorri beharko bait luke. Baina gauza segurua dena da gertatu, ez dela hala gertatzen. Ale honetan bertan ere gauza jakingarria da Sergej Gontxarenkok nola planteatzen duen itzulpenak Errusiako literaturan izan zuen eragina.

Gure kasuan are nabarmenagoa da itzulpengintzaren bitartez hizkuntza batek bestearengan ukan dezakeen eragina eta sartu ditzakeen interferentzien kopurua. Eta hori herri honetako hizkuntz egoeragatik batez ere. Hain zuzen ere, herri honetan herritar gehienak gauza bait dira erdaraz kompetentzia nomal batez mintzatzeko (gaztelaniaz nahiz frantsesez); horietatik batzu, euskaraz mintzatzeko ere gauza dira (euskarazko elebakarduna denik ia inor ez bait da gelditzen).

Gauzak horrela direlarik, euskarara itzultzen den informazioaren zati handi bat herri honetan bertan sortua da. Eta horren ondorioz itzulpena barne-komunikaziorako ihardunbide modu bat ere bada. Baina helburua Euskal Herria euskalduntzea baldin bada, komunikazio modu hau gertatzen zen zentruetan, egitekoa ezingo da izan itzultzea bakarrik, itzuli beharra desbehartzea ere lehen mailako helburu dela kontutan harturik baizik, ingurua euskalduntzea alegia. Zentzu horretan itzulpena euskalduntzarekin guztiz loturik dago, bezaz, zirikusi estua du herri honen hizkuntz normalizazioarekin.

Baina ez aurrean aipatu dugun zentzuan bakarrik. Eus-kara, bera, izan ere, jasan duen zapalkuntzagatik eta bazte-rreratzeagatik, zokoan utzita egon da urte luzeetan, eta in-formazioa gehien ugaldtu den mendean nazio-arteko informazio kanaleetatik albo eginda hain zuzen. Era horretara ezin izan du aldiari aldiari eguneratu, eta atzeraturik geratu da, gaur zinez esan genezakeelarik hizkuntza bera ere aski atzeraturik dagoela gaurko premietarako.

Baina ez dira horretan amaitzen gure zorigaiztoak: aitzitik, nola erdaraz ere hiztunak diren euskaraz hiztun diren gehie-nak, eta batez ere hizkuntz ospe gehien dutenak, eta gainera maiztasun handiz erabiltzen bait dute erdara komunikazio-rako, pentsa liteke, zenbat eta erdararen erabiltzeaz maiz-tasuna handiagoa izan, orduan eta probabilitate gehiago da-goela horren euskararen erdarazko interferentziak ugari izate-ko, eta are euskarazko hizkuntz eredua, hizkuntzak duen logi-ka modua, erdararen araberkoa izateko, erdara izateko, hitz batean, euskararen neurria. Eta horien euskara bera ere, bere egituretan, oso murriztua ageri da. Guzti honek baduke zer ikusirik, agian, mugaz bi aldeetan hitzegiten den euskarak geroz eta elkarren antz gutxiago edukitzearekin.

Aurreko parrafoan planteatzen den hizkuntz jokabidea eus-kal hiztunen proportzio handi batean konstatatzen bada, kons-tatatu bait daiteke adin eta gizarte inguru jakin batzuetan jokabide hori oso arrunta dela, ondoriozta liteke euskararen ezagutza urria dela euskaraz badakitela diotenen artean ere. Beraz, erdararen interferentzia handia dago euzkaraz mintza-tzen diren askoren hizkeran eta, gehienetan, gainera, dara-bilten informazioa herri honetan bertan sortua izanagatik, erdaraz sortua darabiltelako.

Itzultzaile, beraz, modu batean edo bestean, teoria batekin ala gabe, ia euskaldun guztiak gara, gure hizkuntzaren erabil-penak, eta hizkuntzaren egoerak hartaraxe behartuta.

Itzulpen teoriak, beraz, zer esan asko du euskararen heda-penerako, Euskal Herriaren euskalduntzerako behar den hiz-kuntzaren gaurkotze eta prestatzeko orduan. Horretarako el-karreko lanean aritu beharko dute itzultzaileek eta teori-zatzaileek, elkartasun estuan, euskalduntze prozesu horretan eraginik duten instituzio eta pertsonekin.

Nolanahi ere, jeneralean itzulpen teoria eta terminologia, eta are hizkuntzalaritza kontrastiboa ere euskararen erabile-

ran-erdi itzulpenezko erabilera horretan- ari diren guztiei badagokie ere, batzu hurbilagoetik ukitzen ditu. Instituzio eta pertsona batzuek interes zuzenekoagoa dute itzulpenari edo terminologiari dagokion guztian.

Horiek aipatuko ditugu ondoren; alegia, non egiten da itzulpena gehienbat Euskal Herrian?, non dago terminologia berrien premia gehiago?

Administraritzan (Udaletxe, Diputazio, Gobernu, Parlamentu) testugintzan (Federazio, Irakasle Elkarte) erdi eta goi mailako irakaskuntzan (UEU, UNED), testugileak (Elhuyar, UZEI), komunikabideak (irradi, egunkari, aldizkari, ETB) argitaletxeak, hizkuntz irakaskuntzan. Lan horietan dabilzanei dagokie beraz, itzulpengintzaren eta terminologigintzaren inguruan aldizkari honen bitartez egin nahi dugun gogoeta eta erreflexioa.

Horretarakoxe baita, izan ere, aldizkari hau, horixe nahi du lortu. Bagaude Euskal Herrian jende multzo bat, lehen begiratuan dirudien baino dezentez ere handiagoa, itzulpena eta terminologia egitea edo erabiltzea suertatu eta hala ere arazo ugari dauzkaguna. Hala ere, ordea, elkarren berririk gabe gaude. Geure lana dugunari buruz elkarrekin pentsatu eta erizpideak sakondu ahal izateko medio baten faltaz. Aldizkari honek beraz, gaitzat hartu dugun alorrean interesa dugun guztion elkargarri izatea du lehendabiziko helburua.

Esan nahi bait da aldizkaria guztiok egiten dugula, guztiz irekia dela zer esana, zer galdetua, edo zer zalantzan jarria daukan ororentzat. Ez da, beraz, batzuek besteentzat egiten dutena, denok elkarrekin elkarrentzat egiten duguna baizik.

Bigarren helburua, eta munduan bakarrak ez garenez, kanpoko teorizazioetatik hartu eta baliagarri izan genezakeen guztiaren berri ematea da, alegia Euskal Herriko eta hemendik kanporako itzultzaile eta terminologigileen arteko komunikabide izan. Batzutan aipamenak izango dira, edo laburpenak, inoiz itzulpenak ere bai.

Laburbilduz, eta lehen ikusira, honako hauek izango lirateke aldizkari honetan tokia errazenez aurkituko luketen gaiak.

a) Teoriazkoak:

1. Itzulpen teoriazko gaiak
2. Hizkuntzalaritzazko gaiak
3. Itzulpenaren historia

4. Literatura eta itzulpena
5. Itzulpen pragmatikoa
6. Terminologigintza

b) Berri ematea:

1. Erreseina
2. Gertaerak
3. Kritika

c) Baldintza profesionalak:

1. Lanaren antolamendua
2. Baldintza laboralak

Oraingoz lau hilabetez behingo argitalpena nahikoa izango dela eritzi diogu. Baina inoiz ikusiko balitz edo ale bereziak edo bilera monografikoak edo bestelako moduko ekinbideren baten beharra sentitzen dela, alor jakin hauetan, eragozpenik ez litzateke izango horretarako ere.

Guzti hau aurrera eramateko, itzulpen eta terminologigintzan zuzenean sarturik gauden hiru elkarte bildu gara oraingoz, itzulpen eta terminologi arazoak gehienenbat teorizatzen ari garen elkarteak hain zuzen: Itzultzaile Eskola, UZEI, El-huyar. Hiruon artean osatu dugu erredakzio batzorde bat, egoitza Itzultzaile Eskolan duena, eta horren kargu dago bai aldizkariaren prestaketa, bai beronen inguruan sor litezkeen harreman guztiekiko ardura.

Hitz laburretan aldizkari honek antolamendu modu bat eta komunikabide bat dakartza, interesa duten guztien baliagarri. Uste dugu behar zirela euskararen aurreramenduan zer ikusi eta zer egin ugari duen itzulpen eta terminologiako alorretako, eta baita hizkuntzalaritza kontrastiboko ardurek non adierazia eta non bildua izan zezaten.

Besterik gabe ongietorria guztioi eta urte luzetako bizitza opa diogu guztion biltoki dugun honi.

Erredakzioak

GAI AK

1. Itzultzaile Eskola

Xabier Mendiguren

Historiaurrea eta Iragana

Oraindik euskal-itzulpenaren historia egiteko dagoelarik, agian ausartegia gerta liteke egitera noan baieztapena, baina nire ustez, Europa eta mundu-mailan oro har, azken-gerrate orokorraz geroztik itzulpen-zientziaren alorrean eman den kontzientzi hartzea eta garapena, Euskal Herrian joan den hamarkadaren azken aldean eta oraingoaren hasieran gertatu dela aitortuko nuke, eta are gehiago, euskararen bateratzearekin eta ikastoletako irakaskuntzarekin lotura estuan gainera.

Aurretik ez dira falta zenbait itzultzaile jakin eta nabarmen buruzko aipamenak eta azterketak. Orixeri itzultzaileaz hamaika laudorio eta gorespen entzun izan genuen gerrate zibilaz aurreko eta ondoko urteetan¹ baino inoiz ez da egin euskal itzulpenerako eta itzultzaileenganako hurbiltze sistematikorik traduktologia modernoaren ikuspuntutik. Txarrespen edo onespenezko kritika sutsuak erruz banatu izan dira gure historian baina ia beti talai subjektibo batetik eta gehienetan iruzkin inpresionista, lotura handirik gabeak, egiteko.

Baina hau ez da harritzekoa, zeren eta goraxeago esan dudanez itzulpen-zientziarako lehen urrats baldarrak aski berriak izan badira mundu mailan ere, gogora dezagun Eugen Nidak 1974an egin zuela abiaburu linguistikoen ikuspuntutik itzulpena tratatzeko ahalegina², Casagrande-Voegelin hizkuntzalari bikoteak 1954ean proposatu zituzten itzulpen-korrespondentziak askozaz sistematikoago aztertzeke metodo garrantzizkoak eta azkenik, jadanik klasikoak diren Vinay-Darbelnet³ eta Fedoroven⁴ lanek 1958an ikusi zuten argia.

Itzultzaileen Prestakuntzarako Ikastaldiak (Arrasate-Ustaritz-Arantzazu-Iruñea)

1976an hasi eta 1980ko urrira bitarteko epean, hau da, Itzultzaile Eskolak bere ateak zabaldu arte, bost ikastaldi antolatuta ziren euskal Herriaren gune desberdinetan itzulpen-gintzaren inguruan kontzientzia sortzeko eta lehen ezagupen teorikoak eskaintzeko.

Lehendabiziko bi ikastaldiak programaz eta irakasle goz berdintsuak izan zirelarik, batera aipatzeari deritzogu egokien. Lehena 1976.eko uztailean antolatu zen Arrasateko Lanbide Eskolan, CIM-AHIZKE hizkuntz irakaskuntzarako zentruaren babespean eta hamar egunez 30 ikasleko kopurua bilteza lortu zuen.

Ikastaldi teoriko-praktiko hartako irakasleak hiru izan zirelarik, hiru sailetan banatu zen gaia:

- a) Sarrera, literatur testuen itzulpena, kazetaritzako testuen itzulpena eta Orixeren itzultze-modua (X. Mendi-guren).
- b) Testu didaktikoen itzulpena, "Bilboko Eskola" eta hizkuntzaren finkapena, morfologia (aurrizki-atzizkiak) eta lexikologia (X. Kintana).
- c) Testu teknikoen itzulpena eta analisi sintaktikoa (J.R. Etxebarria).

Ikastaldi hau berau errepikatu zen Ustaritzen Udako Euskal Unibertsitatean urte bereko udan. 1978-79 ikasturtean zehar, J.R. Etxebarriak beste ikastaldi bat eman zuen berrogei orduz Santuxun itzulpenari buruz, eta neurri handi batean au-

rraz Arrasaten erabilitako programaz baliatu zen edukin teoriko eta praktikoa antolatzerakoan.

Kronologiari dagokionez Santutxukoa baino lehen ospatu bazen ere aurreko hiruekin programaz homogenotasunik ez duelako orain aipatuko dugun ikastaldia 1977ko irailean egin zen Arantzazun. Eliza Ebanjelikoak Euskara Batura Biblia osoa itzultzeko asmoa⁵ adierazi zuelarik katoliko eta ebanjelikoz osoturiko taldean-talde bat eratu eta itzulpen-lana garrantiaz burutzeko ikastaldi bat antolatu zuen.

Ikastaldi teoriko-praktiko hartan, alde batetik sistematikoki eman zen *Itzulpenaren Teoria*, Biblia itzultzerakoan aurkitzen diren zailtasunak bereziki argituz, Nida-Taberen⁶ joera soziolinguistikoa ikuspuntutik; irakaslea Prof. Doktor Hans Peter R ger, Tubingako Unibertsitatekoa izan zen gai honetan, eta bestetik, Mendoza jauna, Bibliaren espainolezko itzulpenen arduradunak, *Bibliaren Itzulpen herritarrak* gaia azaldu zuen.

1980ko udan eta Iruñean, berriro UEU-aren marko barruan, beste ikastaldi bat antolatu zen itzulpenaren alderdi teoriko praktikoa eta profesionalak jarraitzeko. UZEI eta sortzeaz zegoen Itzultzaile Eskola izan ziren programaren prestatzaile, hiru sail nagusitan:

- a) Itzulpen-munduari buruzko informazio orokorra (historia, bibliografia, itzulpen-mota eta joerak...).
- b) Euskal Itzultzaileen antolaketa profesionala (erakundea, aldizkaria, ikastaldia).
- c) Jardunaldi praktikoa (testu itzulien konparaketa eta kritika).

Itzultzaile Eskolaren Aurretostena

Euskaltzaindiak, Joan San Martin, bere jagon-sailburuaren bitartez, 1979 urtearen azken aldera, Xabier Mendigureni eskatu zion Itzultzaile-Eskola bat sortzeko aurretosten bat presta zezala. 1980ko martxoaren 28an jarri zuen eskaturiko dossier-aurreproiektua Euskaltzaindiaren eskuetan. "**Itzulpenaren Mundua eta Euskal Itzultzaileen Oinarrizko Prestakuntzarako Eskola**"⁷ zuen izenburua eta hiru atal nagu-

sitan banaturik zegoen: a) *Itzulpena Munduan*, b) *Itzulpena gurean* c) *Itzultzaile Eskolaren zuinak*.

Lehendabiziko atalean, sarreraz gainera honako gaiak erabiltzen ziren: Itzulpena eta Linguistika, Leialtasun eta Balio-kidetzak Kontzeptuak, Literatur Testuen Itzulpena, Bibliografia eta Itzultzaile-Interpretari-Eskolak CIUTI-ren arabera.

Bigarren sailaren edukina hau zen: Euskara xede nahiz sorburu-hizkuntza dela egindako itzulpenen zerrenda, euskal itzulpenari buruzko zenbait gogoeta, euskal itzultzaileen prestakuntzarako ikastaldiak, euskal itzultzaileentzako inkesta, euskal itzultzaileen Lan-Jardunaldia.

Azken sailean, Eskolaren zer-nolakoari heltzen zitzaion bete-betean eta beronen premia aipatu ondoren, antolaketa-faseak, itzultzailearen prestakuntza, helburu nagusi eta bereziak, ikasgaiak, irakasle goa-ikasle goa eta funtzionamentuari buruzko zertzeladak aztertzen ziren.

Europa eta Ameriketako Itzultzaile-Eskolei buruz jasotako informazioa eta beraien programak aztertu ondoren, garbi ikusten zen Itzultzaile-Eskolaren eginkizuna batipat interpretari edo adierazle lanetarako jendea prestatzea dela; izan ere, *biltzarreko adierazleen* eta *adierazle zinpeko* eskaria harri-garriro ugaldtu bait da azken urteotako munduan.

Euskararen gaurko egoeran, aldiz, interpretarien prestakuntzari heldu baino lehen, urrena zientzi sail eta alor desberdinetako hizkuntza aurretiaz finkatzearen premia larri dago, hizkuntza teknikoak berea duen zehaztasun eta monosemia lortzeko. Beraz, argi dago lehentasuna duela idatzizko itzulpen-trebakuntzaren fasea alde aurretik erretzeak.

Bestalde, garai beretsuan argitaratu zen UZEI-ren "Euskara Administrazio Publikoan" (Projektua eta Aurrekontua) lanaren 63. orrialdean agertzen denaren arabera ere zera espero da, Euskaltzaindiak sortu behar duen Itzultzaile-Eskolak *itzulpen arrunterako ikastaroak* ematea, eta horien ondoren -eta ez lehenago- egin beharko lirakeke, UZEIn nahiz egokia den tokitan, Administrazio-itzulpenetarako ikastaro berezituak.

Beraz, hasiera hartan Itzultzaile-Eskolaren jardun-eremua itzulpen arruntak egiten irakastera, hau da, itzulpen espezializatuak auresuposatuko lukeen kultura orokor mailako itzultzaile prestakuntza eskaintzera mugatu zen, eta honela geratu zen finkaturik EIOPE (Euskal Itzultzaileen Oinarrizko

Prestakuntzarako Eskola) deituaren helburu nagusia: "Euskara eta gaztelaniazko hizkuntz ezagupenak eta literatur historiak, autoreen obrak aztertu eta sakonduz testu pragmatiko eta literario orokorrak bi zentzutan idatziz itzultzeko gaitasuna ikasleei eskuratzea".

Dossier-Aurreproiektua aurkeztu eta berehala eman zuen ontzat Euskaltzaindiak Eskola sortzea eta urte berean, 1980an ireki zituen bere ateak, Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak behin-behingo Arbideko Dorreetan utzi zizkion geletan. Hona hemen 30 pertsonetako lehen ikasle go hark lau irakasleren eskutik ikasi zituen ikasgaien zerrenda:

- Euskara eta Euskal Literatura.
- Gaztelania eta Erdal Literatura.
- Linguistika Orokorra eta Estilistika.
- Itzulpen Teoria eta Praktika.
- Euskal-Itzulpenaren historia eta testu-konparaketarako metodologia.

Lehenengo Promozioa (1980-82)

Lehen promozio honen prestakuntzarako bi ikasturte programatu ziren eta lehen urtearen ondoren ikasle goaren banaketa bat egin zen bakoitzak erakusten zuen gaitasun-mailaren arabera; eta bigarren urtean itzulpen-praktika soila egitera mugatu ziren bi taldeok lehendabiziko urtean aztertutiko teoriako ezagupenen ildotik. Bi urtetako lan honen ebaluazioa eginik, gutxienezko gaitasun-mailara iritsi zirenei agiri bat eskuratu zien Eskolak; bere garaian Eusko Jaurlaritzak sortuko duen Diplomaz baliokidetuko den agiria.

Lehen promozio honetako ikasle goa aski heterogenoa geratu zen bai adinez, jatorriz eta aurre-prestakuntza mailaz nahiz eta sarrerako baldintza gisa denei Euskaltzaindiaren D titulua (oraingo EGA) eta C.O.U. ikasketak-maila eskatu. Bestalde, irakasle goarentzat ere urte esperimentalak gertatu zen, zeren gurean ez bait zegoen era honetako irakaskuntzak beharrezkoak dituen baldintzak eta teknikak bil zitzakeen beste esperientziarik, hasieran aipatu ditugun ikastaldi laburren jarraibideaz aparte.

Ikasgai desberdinen programei zegokienez, lehen urteko behinbehinekotasuna gaindituz, edukinak hobeki egitarautu eta dosifikatu ziren maila guztietan. Ahalegin honen fruitu dira 83-84 ikasturterako argitaratuko diren hiru liburua:

- Itzulpen-teeoriazko ezagupenak.
- Itzulgaiak: testu pragmatiko eta literarioak.
- Euskal Itzulpenaren Antologia 1.

Oro har, azken bi ikasturteek izaera akademiko trinkoagoa izan dute, bai klaseetako jardunean, urtean zehar burutu diren lan eta azterketetan honetarako garrantzizkoa izan da piskak ugalduz doan Eskolako Liburutegiaren laguntza, eta irakasle goaren gero eta dedikazio osoagoa gaurkoz duen aitzinkontu mugatuak eskaintzen dituen ahalbideen barruan.

Birprestakuntza-ikastaldiak

Azken bi urte hauen barruan Itzultzaile Eskolak burutu dituen ekintzen artean aipamen berezia merezi dute Birprestakuntza-Ikastaldiek.

Eguneroko ikasketa formalak burutzeko aukerarik ez zuten itzultzaile profesional eta irakasle askok eskatzen zituzten beren lanarekin uztargarriak izan zitezkeen ikasketa batzu eta Eskolak, garrantzi handikoa zerizkion eskari honi erantzun nahirik, 82eko lehen hiruhilekoan, batekoz beste 50 bat ordutako iraupena zuten jardunaldi teoriko-praktikoak antolatatu ditu, UZEI-rekin lankidetzan. Ikastaldi hauek itzulpen tekniko eta literarioari buruzkoak izan dira eta dagoeneko 150 partaide izan dituzte. Oraindainokoa izan zuten arrakasta ikusirik, etorkizun garrantzitsua izan dezaketela uste dugu eta hiru mailatan programatuko dira beraietako ikasketak Eusko Jaurlaritzak aurki sortuko duen Itzultzaile-Gaitasun Agiria eskuratzeko baliagarriak izateko eran.

Bestalde, Itzultzaile Eskolak parez-pare antolatu du ingelesetik euskararako itzulpen-mintegi bat ere eta bi urtetan parte hartu du Hezkuntza Sailak IRALeren bitartez bere eskumenean dauden irakasleentzako antolatzen dituen Birprestakuntzarako Ikastaldietan.

Lehen promozio honen prestakuntzak derrigor izan zituen mugatasun eta hutsuneak ikasle-irakasleen arteko harreman

estu eta lankidekorrari esker gairitu ziren neurri handi batean, denek kontzientzia argia bait zuten beren pausoen aitzindari-balioaz.

Balantzea positiboa izanik, bigarren promozio bati begira zenbait aldakuntza eginbeharra nabarmendu zen eta batez ere hirugarren urte batera ikasketak hedatzea, bi urte gutxiagotzat jo bait ziren beharrezko azpiegitura linguistikoz ikaslea hornitzeko.

Bigarren Promozioa (1981-84)

Aurreko urtean bildutako esperientziaren gainean eta nabarmendu ziren hutsuneak bete nahirik, ikasturte berrirako Eskolaren statusa sendotzea eta bere ekintza hedatzea eta sakontzea erabaki zen.

Eskolak nahitaezkoa zuen egoitza iraunkorra eta Euskal Jaurlaritzaren aurrean egindako gestioei esker, Martuteneko Lanbide Hezkuntzako Ikastetxean lortu zuen kokalekua.

Aldi berean, oraingoz Eskolaren irakaskuntza unibertsitate mailan jartzeak zituen zailtasunak kontuan harturik, FP2-ren marko barruan legezko nortasuna bilatzeari ekin zitzaion eta 82-83, joan den ikasturte honetan, lortu da tramitazio guztia burutzea eta "arautu gabeko irakas-zentru" gisa Eskola onartua izatea.

Edukin akademikoari dagokionez, gero eta ikaslego tipikoagoa etorriko zela aurrikusiz -eta halaxe gertatu da- azpiegitura linguistikoaren ahultasuna errebortxatu beharrak eraginik bi urtekoa izan ordez hirukoa izatea erabaki zen preskakuntza epea. Honela, bada, hobeki dosifikatu ahal izan dira hiru urtetan zehar hasieran bi urtetan bakarrik ikasten ziren ezagupen teoriko-praktikoak.

Gaztelania eta euskaraz gainera, hirugarren hizkuntza baten irakaskuntza ezartzea ere beharrezkotzat jo zen eta horrela sartu zen ingelesa hiru ikasturterako. Ingelesaren ezagupen maila egokia zutenentzat zuzenean ingelesetik euskarara itzulpenak burutzeko mintegi bat antolatu zen.

Oharrak

1. Ibinagabeitia, A. "Orixe Euskeratzalle" (87-177 or.) *Orixe Omenaldi*. Donostia, 1965.

2. Nida, Eugen. *Bible Translating*, New York, 1947.
3. Vinay, J.E. – Darbelnet, J. *Stylistique comparée du français et de l'anglais*. Paris, 1958.
4. Fedorov, A.V. *Vvdenie v teoriju perevoda*. Moskva, 1958.
5. Aurten agertu da asmo haren atal bat: *Itun Berria (Elizen arteko Biblia)*. Lazkao, 1983.
6. Nida-Taber. *The Theory and Practice of Translation*. Leyden, 1969.
7. "Itzulpenaren Mundua eta Euskal Itzultzaileen Oinarrizko Prestakuntzarako Eskola", (Dossier-Aurreproiektua), *Euskera*, XXVI (2. aldia). Bilbo, 1981.

2. Itzultzaile Eskola

Koro Navarro

Orainaldia

1. Antolamendu orokorra

Jadanik bost urtetako esperientzia lortu dugularik, nahiko garbi ikusten ditugu Eskolak bete behar dituen helburu eta xedeak; eta ditugun mugak eta ahalbideak ere orain argiago dauzkagularik, asmo horiek nola bideratu ere bai. Bestalde gure lana bereziki baldintzatzen duten faktore soziolinguistikoak azpimarratu behar direla uste dugu:

- Itzulpen-teoriak eta praktikaren ezagupen sistematizatu eta didaktizatu batek zeresan eta garrantzi handia du gaurreguneko euskara eta euskal kulturaren egoeran eta berauen garapenean, komunikabideei eta irakaskuntzari dagokienean batipat.

- Hala eta guztiz ere, lanpostu gutxi daude itzultzaile profesionalentzat eta dagoeneko jende gazte samarrez beteak gehientsuenak.

Beraz, ez dugu uste Itzultzaile Eskolak urtero profesional kopuru jakin bat (hogeiren bat pertsona urteko) merkaturatuko duen irakastegi soil eta komentzionala izan behar duenik. Aitzitik, langune desberdinetan barreiatu beharko lituzke

bere indarrak, eta itzulpenarekin zerikusia duen guztiaren zentru dinamizatzailerik izan beharko luke. Honek suposatzen du: a) Eskola ez duela mugatu behar goizetako kurtsoak egi-tera; b) bestelako lan motak ere bere gain hartu behar dituela.

Guzti hau dela eta, erabaki garrantzitsu bat hartu zen iaz, alegia, matrikulatze-epa bi urtez behin irekitzea. Antolamendu horri esker, bi helburu batera bete ditzakegu: alde batetik, Eskolatik irtengo den profesional-kopurua, epe luzera, ez da hain zabala; beste aldetik, bestelako lanetarako astirik eta posibilitaterik badu irakasleak. Lan horiek behar-beharrezkotzat jotzen ditugularik, uste dugu bide egokia hautatu dugula. Zereginak hauek dira, besteak beste: a) dagoeneko lanean ari diren profesional-mota desberdinei birprestakuntza eskaini arratseko eta asteburutako ikastaldien bitartez; b) itzulpen teoria eta praktikaren ikerketa eta zabalkundea burutu eta bultzatu; c) bigarren horri begira argitalpen sail bat eta aldizkaria sortu.

Projektu horiek gorpuzturik daude jadanik. Aurrerago ikusiko dugu nolakoak diren. Bestalde, oraindik eginkizun diren epe laburrerako proiektuak hauek lirateke:

- a) Alfabetatze Tekniko, Lanbide Hezkuntza, Irakaslego-Eskola eta abarretako programa eta ikasplanetan parte hartu zuzenean edota irakasleen prestakuntza eta gidaritzaren bitartez traduktologiazko ezagupenak hedarazten, hizkuntz konparaketazko ezagupenak eskainiz eta hizkuntz irakaskuntza hobetzeko tresnak eskuratuz.
- b) Erakunde publiko eta pribatuei bere honetan aholkaritza teknikoa eskaini, komunikabide eta irakaskuntzaren mailan batipat.
- c) Itzulpenarekin zerikusia duten azterketa publiko guztietan mahaiko izan eta azterketak prestatu eta zuzendu itzulpenari dagokion atalean.

Hauek oraingoz proiektuak dira. Jadanik gorpuztuak diren jardunen berri ematen ahaleginduko gara orain..

Hirugarren Promozioa

Hirugarren promozioaren antolamendu akademikoa oro har, bigarrenaren antzekoa da: hiru kurtsoan banatzen dira ikasketak, eta kurtso bakoitzeko helburuak eta antolamendua

berdintsuak dira: lehenengoan, eta bereziki euskarari dagokionean, hizkuntzaren lantze eta hobetzeak hartzen du pisu nagusia; baita ere oinarrizko prestakuntza, hizkuntzalaritza, hizkuntz konparaketa eta abarri dagokienean. Bigarrenean, aurreko kurtsoan hasitako itzulpen teoria, praktika eta konparaketa, dira nagusi; estilistika eta literatura ere lantzen dira. Azkeneko kurtsoa guztiz praktikoa da: mintegitan eratzen da eta ikasleen nahien arabera, bi sail nagusitan banaturik -itzulpen literarioa eta pragmatikoa- praktika lantzen da ia nagusiki, nahiz eta teoria ez erabat alboratu; oraingo honetan ordea teoria ere ikasleen esku geratzen da. Ikasturte horretan gainera eskolak ez dira goizero banatzen, astean bi edo hiru egunetan baizik, ikasleek lanerako astirik izan dezaten. Bide batez, eta hiru kurtsoan zehar, ingelesa ere lantzen da, bi sail nagusitan: lehendik ingelesa ongi ezagutzen zuten ikasleek itzulpean jardun dute, mintegi berezietan; ingelesa ezagutzen ez dutenei irakatsi egiten zaie, hirugarren kurtsoan.

Azterketa eta gaitasun frogei dagokienean, ohizko eran antolatzen dira: bi lauhilerokotan banatzen da ikasturtea, eta bakoitzaren bukaeran egiten dira frogak, bai ohizko azterketen bitartez, bai lan praktikoen bitartez. Hirugarren kurtsoan, berriz, eta mintegiek osatzen dutela kontutan izanik, ikasleek, taldean, edo bakarka egindako lanak dira frogabide bakarrak.

Hirugarren promozio honetan izan den aldaketa kualitatiboa irakaslegoari dagokiona da. Izan ere, gure asmoetako bat lankide talde homogenoa sortzea zen, ongi koordinaturiko ekipoa osatuko lukeena. Laster lau irakasle izango gara Eskolakoa lanbide nagusitzat izango duguna. Elkartze honen ondorioak guztiz positiboak izan dira, eta Eskolaren bilakabidean erabakiorra gertatu da.

Birprestakuntza ikastaldiak

Gorago esan dugunez, lanean ari den hainbat profesionalen beharrei erantzuteko asmotan sortu zituen Eskolak aste burutako ikastaldi bereziak. Ikastaldi hauek trinkoak eta laburrak (berrogei ordu inguru) zirelarik, azkar konturatu ginen hauek motzegi geratzen zirela. Ikasleei egindako hainbat galdekizunetan bestalde arazo bera azaltzen zen behin eta berriz. Guzti hau kontutan izanik, iaz, hau da, 1983-84 ikasturtean, anto-

lamendu berri bati eman genion hasiera. Antolamendu hone-tan hiru ikastaldi mailakatu burutzen dira: lehenengo maila udazkenean, bigarrena neguan –asteburutan beti– eta udan hirugarrena, uztailéan hamabostaldi bat osoki honetara eskai-niz. Dena den, esan behar da nahi duenak egin lezakeela ikas-taldi bakarra (eta ez hirurak); bakar horrek hala ere lehengoa izan behar du, beste biek aurrekoak suposatzen bait dituzte. Horrela azken aldirako, irakasle eta ikasle arteko harremanak eta lan giroa, oro har, nahiko ona da, eta lana fruitukorra ger-tatzen da.

Ikastaldiek izandako erantzun ona ikusirik, aurten eta he-mendik aurrera berdin jarraitzeko asmotan gara. Hala ere, bai ikasketa-gaiak, eta baita ere programak eta antolamendua ho-betzen eta, beharrezko bada, aldatzen saiatzen gara etengabe, teoria eta praktikaren arteko sintesi orekatu baten bila.

Argitalpen saila eta aldizkaria

Beste alor batetan, Itzultzaile Eskolaren asmoak dira atze-rrian itzulpen teoria eta praktikaren inguruan mamitzen den guztia Euskal Herriratzea, gure premietara egokitu eta bero-nen zabalkunde egin; halaber euskal itzulpenaren historia eta egungo egoera ikertu.

Hau dela eta, eta bereziki eskolako ikasleei laguntzeko as-motan argitalpen sail bat sortu du Itzultzaile Eskolak, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren diru laguntzaz. Hiru libu-ru argitaratuak dira jadanik, eta beste bi ari gara prestatzen une honetan. Hauetariko batzu bereziki Eskolako ikasleentzat zuzenduak daude, hala nola *Itzulgaiak* (Textu literario eta pragmatikoak. K. Navarro eta X. Mendiguren). Besteak berriz gai hauetan interesaturik legokeen irakurlego zabalago baten-tzat gerta litezke baliagarri: *Euskal Itzulpenaren Antologia I* (Jesus Zabaleta; bigarren alea laster argitaratuko da), eta *Itzulpen teoriatzko ezagupenak* (X. Mendiguren). Boskarren liburu bat ere datorren urte hasieran azalduko da, hizkuntza-laritzaz, *Linguistika Orokorrezko Ezagupenak* (K. Navarro).

Bestalde, lehen aipatzen genituen ikerketa eta kanpoko teo-rien egokitze lan horiek zabaltzeko asmotan sortzen da aldiz-kari hau. Bide batez, itzultzaile eta profesional interesatuen kezka eta arazoak –hala itzulpenari berari dagozkionak, nola

arazo laboral eta antzekoak-, guzti horiek jaso, aztertu eta bideratzeko helburua ere badu aldizkari honek. Azken finean, euskal itzulpenaren eta itzultzaileen elkargune bihurtzea du helburu nagusizat aldizkariak.

Interpretaritza

Eskola oraino testu idatzien itzulpenaz arduratu da; interpretaritza edo aldibereko itzulpena ez da landu. Izan ere, euskal interpretarien eskaera hutsa edo oso urria izan da orain arte. Baina azken urteotan euskal interpretarien edo adierazleen eskaera handitu egin da (erlatiboki bada ere), eta horretarako prestaturiko jenderik ez dago. Hau dela eta, eta eskakizunak sarritan zuzenean Eskolara iristen zaizkigularik, adierazleen prestakuntzaz nolabait arduratzea erabaki dugu. Honela, 1985. urte hasieran hitzaldi sail bat antolatuko da Eskolako ikasle izandako multzo txiki eta hautatu batentzat; hitzaldi hauek AICE (*Asociación Española de Intérpretes de Conferencias*) delakoaren partaide eta Bilboko Hizkuntz Eskolako idazkari-ohia den J. Arrimadas Saavedraren eskutatik izango dira; hitzaldien ondoren oinarritzko praktika gidatua landuko da.

2. Itzultzaile gaitasun agiria (IGA)

Aipaturiko guztiaz gain, gerora Itzultzaile Gaitasun Agiria izenpean ezagutuko den Diplomarako programa eta azterketa edukinen aurreproiektua ari da prestatzen une honetan Itzultzaile Eskola Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuarekin batera.

Agiri eta azterketa hauen helburu nagusia itzulpenaren kalitatea hobetu eta homologatzean datza. Horretarako beharrezkoak diren ikasbide eta profesionalizatzeko bideak sistematizatu eskaintzearen garantia izango litzake agiria.

Agiri honen hartzaileak honako hauek lirateke (azpimarra dezagun azken erabakiak ez direla oraindik hartu; orain azalduko dugun eran izango dela uste dugu ordea):

- Itzulpen prestakuntzazko prozesu formal baten bidetik datozen eta gaitasun baten jabe direla erakusten dutenak.

(Alegia, Itzultzaile Eskolako hiru ikasturteak burutu eta gainditu dituztenak).

-Itzultzaile-gaitasun hori egiaztatzeko "ad hoc" prestaturiko azterketak gainditzen dituztenak. Azterketa honek bi edukin mota hauek izango lituzke:

- a) Ezagupen Saila (Itzulpenaren Teoria eta Historia).
- b) Trebetasun saila (Itzulgaien azterketa eta itzulpena, testu itzulien kritika).

-Baldintza eta epe mugatu baten barruan, "curriculum" bat aurkez lezaketen itzultzaileak.

Bestalde, uste dugu balio desberdinekoak izan behar dutela hiru urtez Eskolako ikasle izandakoek jaso lezaketen agiria eta azterketa soil bat ganditu dutenek hartzen dutena. Baita ere, agiri honen garrantzi soziala ziurtatu egin behar da; hone-tarako, zenbait lanpostutan berorren jabetza puntuztatu egin-go litzateke eta udal-itzultzaile eta itzultzaile zinegina izateko derrigor eskatu.

Dena den, eta azken erabakiak hartu orduko, Eusko Jaur-laritzaren Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara-tuko da agiri edo diploma honen nolakotasuna; berau eskura-tzeko gainditu beharko den azterketa-programa edota bete be-har diren baldintzak.

Etorkizunaz

Eskolaren etorkizun hurbila oraingo bidetik joango da. Izan ere, esan daiteke oraintsu finkatu dela Eskola, eginkizun na-gusitan behintzat. Gure helburu nagusietakoa, hasiera-ha-sieratik, Eskola formal eta ohizkora ez mugatzera izan da; al-diz, egitura zabal, malgu eta dinamikoa eman nahi genion Es-kolari eta horretan gaude. Oraingoz beraz, eta hori bai, geure lana etengabe kritikatzin eta hobetzen saiatuz, hasitako egin-kizunen jarraipenean datzate eskolaren asmoak: ikastaldiak, argitalpenak, aldizkaria eta abarrekin aurrera egingez.

Epe luzera ordea Eskolak goitik behera aldatu behar duela uste dugu. Geure iritziz, Eskolaren lekua Unibertsitatean dago, eta ez Eskola edo Fakultate bereizi gisa, disziplinar-teko erakunde eran baizik. Honetarako arrazoiak hauek lirateke: lehenengoa eta nagusia, testu literarioak eta batez ere pragmatikoak —era askotakoak ordea— itzuli behar direlarik, al-dian-aldiko gaien ezagupen sakona behar-beharrezkoa da itzultzailearentzat. Beste alde batetik, argi dago itzulpen teoriak eskaintzen duen tresneriaz jabeturik egon behar duela itzultzaileak, praktika errazago eta arrazionalagoa izan dadin. Azkenik, euskararen egoera berezia kontutan izanik, eta itzulpenak hizkuntz normalizazioan duen eraginagatik, itzultzaileak irizpide linguistikoak sakonagoak eta eginagoak behar ditu izan.

Etorkizuneko erakunde horiek, bestalde, bi sail nagusi izan beharko lituzke, gure ustez, irakaskuntzazkoa bat eta ikerketazkoa bestea. Bestalde, harreman estuak izango lituzke beste fakultateekin, eta beroiekin batera egin beharko luke lana sarritan.

Dena den, guzti hau ez dago gure eskutan, eta oraingoz helburu horretarantz urratsak emanez bidea prestatzea besterik ezin dugu egin.

Elhuyar eta UZEI: euskara laneko hizkuntza bihurtu nahian

Andoni Sagarna
(UZEI eta Elhuyar-eko lankidea)

0. ABIAPUNTU HONETATIK, AGUR!

Euskararen taupada bakoitza entzunez gabiltzanok gehiagotan izaten ditugu uzkur ibiltzeko arrazoiak poztekoak baino.

Oraingoan, ordez, besterik da asmo handiko eta, zergatik ez?, ausarteko aldizkari hau jaiotzen ikustean eta erditzen laguntzean.

Mendian gora doanari igotako malkarrei begiratzeak adorea ematen dion bezala, abiapuntu berri honetatik atzera begiratzeak hatsarte bat eman diezaiguke apika. Orain hamabi urte Elhuyar-koak biltzen hasi ginenean edo duela zazpi urte UZEIren asmoa apetaz hartu genuenean ez genuen asko uste izango urte gutxi barru itzulpenari, terminologiari eta hizkuntzalaritza kontrastiboari buruzko aldizkari bat argitara eman-go zenik. Gauza batzutan behintzat aurrera goazen seinaleztat hartuko nuke hori gaur jazotzea.

Bidezkoa dirudi, hortaz, eskutan dugun aldaska berri hau ahalbidetu duten iragan hurbileko lanen azterketari ekinez hasteak.

Nork berearen berri ematea izango da errazena eta horregatik nik Elhuyar eta UZEIren lanak aurkeztuko ditut.

1. ELHUYAR KULTUR ELKARTEAREN HISTORIA ETA LANESPARRUA

1.1. Elhuyar taldearen sorkuntza

1966 urtearen inguruan. Donostiako Industri Injineruen Goimailako Eskola Teknikoan, Euskal Herriko beste ikastetxe batzutan bezalaxe, Euskal Kultur Taldea (E.K.T.) izeneko mugimendu bat sortu zen. Euskal Kulturak mementu hartan pairatzen zuen itolarrian Talde hark ikasle-giroa euskalduntzea zuen helburutzat. Horretarako, zenbait lehiaketa etab. egin ziren.

Iharduera hauek hasieran bultzatu zituztenetako batzu beren ikasketak bukatu eta lanean ari zirela, 1972a inguruan, EKT-k irauten zuen, atzetik etorri zen beste belaunaldi bat asmo hari segida ematen saiatu zelako.

Hasierako haietako batzu eta oraindik ikasle ziren beste hauetakoen talde bat Donostiako "Círculo de San Ignacio" biltokian elkartzen hasi ziren. Beren asmoa, egin zituzten ikasketetako gaitan euskara lantzea zen. Hasiera hartan eta ondotoz beranduago ere taldeak ez zuen legezko egiturarik eta langile finkorik izan.

Larunbat arratsaldeetan egiten ziren (eta oraindik ere egiten diren) bilera irekietan izaten zituzten taldeko partaideek beraien arteko harremanak.

Hasierako taldekideak injineru eta injineru-ikasleak bakarrik baziren ere laster hasi ziren beste lanbide batzutakoak ere biltzen: fisikari, kimikari, etab.

Dena den, Elhuyar izenak berak iradokitzen duen bezala, lanesparrua zientzia eta teknikarena izan da beti.

1.2. Elhuyar aldizkaria

Zientzi eta teknika-gaiez interesatzen diren euskaldunekin harremanak izateko modu bat bezala Elhuyar aldizkaria jaio zen 1974ean. Lau ale atera ohi dira urtean eta inoiz, ospakizun bat delako edo, ale bereziren bat ere atertzen da.

Azken zortzi urte hauetan harpidedunen kopurua 600 inguruan mantendu da gorabehera handirik gabe. Aldizkariaren harpidetza utzi dutenak eta harpidedun berriak pare-

tsukoak izan dira kopuruz, baina utzi dutenak gehienetan euskarazko ekintza bati laguntzeko asmo hutsez egun batean abonatuak izan diren bezala, harpidedun berriak zientzi ikasketak egindako unibertsitari gazteak izan dira. Horrek espezializazioa eta funtzionalitatea ekarri dizkio aldizkariari.

Hamar urte hauetan 131 autore desberdinek argitaratu ahal izan dituzte beren artikuluak aldizkari honetan.

Gaiei dagokienez, Matematika, Fisika, Kimika, Biologia, Medikuntza, Informatika, Teknologia elektrikoa, Teknologia mekanikoa eta Zientzi gai orokorrak izan dira erabilienak.

1.3. Udako Euskal Unibertsitateko partaidetza

U.E.U.k, 1973an jaio zenez geroztik, izan du Elhuyar-en partaidetza, bai antolamendu aldetik eta bai irakaskuntza-eraketik.

Antolamendu kontutan, besteak beste, Elhuyar-ek U.E.U.-ren Gipuzkoako ordezkartza darama ia hasieratik.

1.4. Testugintza

1976. urtean Elhuyar Taldea O.H.O.rako ikasliburuak euskaratzen hasi zen Gipuzkoako Ikastolen Elkartearen enkarguz. Urte hartan bi matematika-liburu eta Natur Zientzietako liburu bat itzuli ziren.

Hurrengo urtean bertan taldekidetako batzu matematika-arloko lan originalak prestatzen hasi ziren.

Bestalde, garai horretan Lanbide-Heziketarako Teknologia mekanikoari buruzko lehen lanak itzuli ziren eta B.B.B.rako testugintzari ekin zitzaion.

1984. urtearen bukaeran Elhuyar-ek egindako testuliburu-katalogoak 43 titulu izango ditu, horietatik 13 B.B.B. eta U.B.I. mailakoak, 19 Lanbide-Heziketakoak eta 1 Unibertsitate-mailakoak. Liburu hauetaz kanpora badira, beste argitaletxe batzuk argitara emandako ikastestuak izan arren, Elhuyar-ek landu dituenak, dela sortuz dela itzuliz.

Gaien aldetik honela banatzen da produkzio hori:

Fisika eta Kimika: 16 liburu

Matematika: 14

Enpresen administrazioa: 6

Teknologia mekanikoa eta marrazketa teknikoak: 2

Informatika: 1

Teknologia elektrikoa eta elektronika: 4

GUZTIRA: 43

1.5. Terminologia zientifikoari buruzko ikerkuntza

Elhuyar-en lan guztia euskara gai teknikoetara egokitzeko ahalegin bat dela azpimarratzen ari gara behin eta berriro. Asmo horrek eraginda, 1972tik 1978ra Elhuyar taldeak euskara idatzia erabilizko terminologia zientifikoaren azterketa bati ekin zion.

Lan horren berri emanez 1976ko urtarrilaren 2an Euskaltzaindiari txosten bat bidali zitzaion. Txosten hori **Euskera** aldizkarian (Euskera XII, 1977, 100-109 orr.) argitaratu zen.

Azterketa-lana amaitu ondoren, Mikel Zalbide taldeko lan-kideak izenpeturik, beste txosten bat bidali zitzaion Euskaltzaindiari eta hau ere **Euskera** aldizkarian argitara eman zen (Euskera XXIV, 1979 -1, 291-305). Ikerketaren ondorio bezala, 53.000 sarrerako hitz-bilduma bat osatu zen 150 iturri inguru arakatu ondoren.

Garai hartan egin zen lanari esker eta ikerketari eman zitzaion tratamendu informatizatuaz baliatuz oraindik beste etekinik atera dakioko bilduma horri, hala nola atzizki-aurrizkien azterketa, hitzen luzeren neurketak, maiztasunak eta hauen eboluzioa etab.

1.6. Hiztegi gintza

Gai zientifikotan euskaraz lan egin ahal izateko hiztegi aldetik hutsune handiak bete behar izan dira. Elhuyar-ek ahalegin handiak egin ditu arlo honetan ere.

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialarekin eta Euskaltzaindiarekin elkarlanean 1976an Elhuyar-eko lankide batzuek Arkitektur Hiztegia lantzen hasi ziren. Handik hiru urtetara **Euskera** aldizkarian (Euskera XXIV, 1979-1, 307-327 orr.) lehen hitz-zerrenda bat argitaratu zen.

UZEI jaio zenetik aurrera harreman estuak mantendu ditu Elhuyar-ek erakunde horrekin. Konkretuki partaidetza handia izan zuen jadanik argitaratuak dauden Fisika eta Kimika Hiztegietan eta berehala argitaratzekoa den Teknologia mekanikoaren Hiztegian.

Bestalde, testugintzak etengabeko hiztegi gintza eskatzen du, batez ere urratu gabe dauden arlotan.

1.7. Alfabetatze teknikoak ikastaroak

1979tik aurrera garrantzi berezia hartu dute Alfabetatze Teknikozko ikastaroak (A.T.I.). Saio hauen helburua zientzi teknika gaietako irakasleak, beren eskolak euskaraz eman ditzaten, trebatzea izan da.

Oraindainokoa 500 ikasle inguru pasa dira ikastaro hauetatik.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin lankidetzan egin izan dira azkeneko urte hauetan ikastaro hauek. 1984. urtean zehar Hezkuntza Sailarekin, HABErekin eta ikastaro hauetaz arduratzeko interesa duten beste erakunde batzuekin bilerak egiten ari gara ikastaroen edukinak, ikasmaterialak, ebaluazio-sistemak, finantzabideak, etab. sistematizatzeke.

1.8. Zientzien berbaldia euskaraz

Hiztegiak planteatzen dizkigun arazoak UZEIren lanak aurkezten ditudanerako utzita, zientzien berbaldia euskaraz lantzeak sortzen digun zenbait buruhauste aurkeztuko dut, adibide gisa.

Hauetako bat -eta ez txikia gainera- adierazpen matematikoen irakurbidea izan da. Pentsa dezakezue ez arlo honek berebiziko pisua du irakaskuntza sistema osoan, esate baterako.

Bistan da gaur egun mundu osoan erabiltzen den notazio matematikoa erabili behar dugula guk ere, baina hori bezain argia da notazio hori ez zela egin euskal sintaxiaren legetan pentsatuta.

Egia esan behar bada notazio matematikoa ez da sortu inongo hizkuntza naturaletako arauak bete behar dituela pentsatuta. Alderantziz, hizkuntza naturalek ez dutelako bere hartan matematikarako balio asmatu da notazioa. Hizkuntza naturaletan egitura sintaktikoa esplikatzeko zentzua kontutan hartu behar izaten da eta erizpide formal hutsek ez dute balio. Matematikak, aldiz, erizpide formal hutsak behar ditu hain zuzen..

Badirudi ba notazioa onartzea ezinbestekoa dela. Hau horrela izanik, notazioaren aurrean euskaldunoi planteatzen zaigun arazoa, Martxel Ensunza-k bere "Alfabetatze Zientifikoa"¹ liburu gutziz gomendagarrian esaten digun bezala, hauxe da:

$$\lim_{x \rightarrow a} y = b$$

"x a-rantz doaneko y-ren limitea b-ren berdina da" irakurri? Adierazpen laburra denean hor nonbait, baina luzeagoa denean, esate baterako (aipatu liburuaren 138. orrialdeko adibidea):

$$f(x) = \lim_{\Delta x \rightarrow 0} \frac{\log_a(x + \Delta x) - \log_a x}{\Delta x} \quad \text{nola irakurri?}$$

Sistema bat asmatu behar izan da, jakina, ohizko hizkuntzaren sintaxia hankaz gora jartzen duena, baina Matematikan ere euskaraz iharduteko aukera eman diguna. Adostasun bat lortu da eta lasai eztabaida dezake Leioako Zientzi Fakultateko batek Altzako Kimika-Fakultateko beste euskaldun batek edozein problema matematiko. Biak ados egongo dira nirekin lehen aipatutako adierazpen matematikoa euskaraz irakurtzeko era honako hau dela:

"f lehen x, berdin, limite delta x zerorantz doanean, logaritmo, a oinarrian, x gehi delta x, ken logaritmo, a oinarrian x, zati delta x".

Edota topologiako adibide bat hartuz (Ensunza 1983, 162. or.)

$$\forall \epsilon > 0 \exists \delta > 0 / |x - x'| < \delta \Rightarrow |f(x) - f(x')| < \epsilon$$

honela irakurri behar dela:

"Edozein epsilon handiago zerotarako, badago delta handiago zero, non, x ken x lehen balio absolutuan, txikiago delta

bada, halaberrez, efe x ken efe x lehen balio absolutuan, txikiago epsilon den”.

Norbaitek espantuz eta harriduraz ikusiko du hau behar bada, baina bi gauza esan ditzaket:

- a) Ez dela buruhausterik gabe lortu irakurketa hau proposatzea eta adostasuna lortzea.
- b) Orain arte bide hau ezean euskal zientzilari eta teknikariek erabili izan duten beste bide bakarra erdarazko irakurketa dela.

Matematikak planteatzen dizkigun arazoak notazioarekin hasi besterik ez dira egiten. Hau gure arazoak zertan dautzan ez dakien irakurleari argibide txiki bat emateko besterik ez dut azaldu.

Formulazio kimikoak, Biologiako taxonomiak, Informatikak etab. bakoitzak bere berbaldi propio dute. Honelako eremutan ahalegindu da Elhuyar euskara lantzen lehen aipaturako ekintza-moten bidez.

2. UZEI. HIZTEGI-ARAZOAK

2.1. UZEIren definizioa eta oinarritzko printzipioak

UZEI, lehen hurbilketa batez, euskararen normalizazio-zerbitzurako lantalde izateko sortutako erakunde bat dela esan dezakegu.

Lantalde honek kanpoko beste hainbat lankideren ahaleginak sustatzen eta bateratzen ditu.

Hizkuntzaren prozesuak duen hainbat arazo eta egitekoren artean, UZEI eremu mugatu batekoei bakarrik erantzuten saiatu da ezinbestean.

Hizkuntza baten normalizazioan lexikoarena nahitaezko eta funtsezko oinarria da. UZEIk lexikoaren normalizazio honetan sail bat hautatu du: jakintza eta lanbide desberdinei dagokien terminologia berezituena, alegia. Lexikoaren normalizazioa da, bestalde, teorikoki bederen, gatazka zientifikorik txikienetarikoa eskaintzen duena.

Izan ere, azken urteotako teoria linguistikoetatik abiatuz, hitzak, hizkuntzak osatzen duen sistema horren barnean, sistematizazio txikiena duten elementuak dira. Hauek ere egitu-

ratu nahi izan dira, baina zerrenda zedarrigabeak osatzen dituztelarik, oztopo handiak aurkitu dituzte hizkuntzalariek eta badira sistematizazio batera iristeko modurik ikusten ez dutenak ere.

Azterketa lexikologikoak zentzurik ba ote duen planteatu du zenbait estrukturalistak, esate baterako. Hiztegia irregulartasunen zerrenda baldin bada hizkuntzalariak ez luke ikuspegi honetatik lexikologiaz zertan arduratu, hizkuntzaren alderdi sistematikoa arakutzen ari denean. Badirudi, hauxe izan dela, hain zuzen ere, hizkuntzalaritzaren beste adar batzuren aldean, lexikologia gutxi landutako arloa luzaro izatearen arrazoa.

Bloomfield-ek eta estrukturalismo amerikanoak ere zentzua haintzakotzat hartu ez zuten ez zezaketen lexikologia gogoko izan.

Nolanahi dela ere, bi baieztapen egin daitezkeela uste izan dugu beti.

- a) Hiztegia dela hizkuntzaren alderdirik aldagarriena edo, bestela esateko, maila honetan egiten diren aldaketak eta berrikuntzak direla hizkuntzaren sistemari gutxien eraso diezaioketenak.
- b) Hizkuntzaren normalizazioak sorkuntza literariorako mintzaira ezezik adierazpide zientifiko, filosofiko, juridiko eta oro har intelektualetarako tresna behar duela. Horretarako hizkuntzaren baliabideak aberastu behar direla terminologia aldetik.

Honek ez du esan nahi arazoa hor amaitzen denik, gramatika eta estilistika-mailako problemak ere berehala topatzen bait dira bidean, geroxeago adieraziko dudana legez.

Azken puntu honi gagozkiolarik, esan beharra dago UZEIko hiztegi gintza ez dela inoiz zerrenda-mailan soilik landu, batzutan argitalpen-eskakizun batez ere ekonomikoek zerrenda hutsak kaleratzera behartu bagaituzte ere.

Aipatu ditugun helburuei erantzun nahian eta hizkuntzaren egoerak eskatzen duen hainbat eta hainbat eremu lexikal bete beharrak eraginda, UZEIk zenbait talde jarri ditulanean hiztegi bereziak eta aurrerago aipatuko ditudan beste lanak egiteko.

2.2. Egindako lanak

Aipatutako erizpideak eta behin baino gehiagotan gure ahalmenak gainditzen dituen eske sozialak bultzatuta, era desberdinetako eta are desberdinegietakoa lanak egin ditugu. Ondoko lerroetan lanon enumerazio bat egiten saiatuko naiz:

a) *Hiztegi gintza.*

Jakintza desberdinetako espezialisten lankidetzak guztiz garrantzitsuari esker, hiztegi teknikoak landu eta argitaratu ditugu: Fisika, Politika, Kimika, Psikologia, Ekonomia, Matematika, Hizkuntzalaritza, Arteak, Filosofia, Administrazioa, Trafikoa, Enpresa, Kirolegia izeneko kirol-hiztegi txikia, Estatistika, Animalien eta Landareen izendegia, Liseriketa, Teknologia mekanikoa, Zuzenbidea, Futbola eta Finantzak.

Laster argitaratzeko moduan dago Erljio-hiztegia ere eta hainbat lan egin da Historia-hiztegia, Medikuntza-arloko zenbait hiztegi, Eraikuntza- eta Hirigintza-hiztegiak eta Literatur-hiztegia aitzinatzen. Berrikitan Soziologia-hiztegiari ere ekin diogu.

b) *Oinarrizko lan teorikak.*

Hiztegi huen lantzeko, UZEI berehala hasi zen zenbait oinarri teoriko finkatzen bere barne-lanerako. Azken finean, oinarri teoriko horien eta talde-lanaren emaitza dira hiztegiok.

Lan teoriko guztien abiapuntua ordu askotan zehar presaturiko txosten batzuek izan ziren. Ondoren, txosten horiek eztabaidatzeko, 1978ko abenduan, gure lantegian bilduta egon ziren barne-lankideak Euskal Herriko hainbat hizkuntzalari eta hiztegi gile ezagunekin.

Hiztegi teknikoetarako hitz-eraketazko lexikologi erizpideen finkapena izan zen saio haien helburua, behin eta berriz erabaki lexikal puntualak hartzen ibiltzeak lituzkeen arrisku ikaragarriari ihes egin eta erizpide amankomun batzutan funtsatu ahal izateko.

Zeregina, bilera batzutan burutzeko, handiegia zela ikusirik esku artean genuen arazo-multzo ugaria atalkatzea

keen arrisku ikaragarriei ihes egin eta erizpide amankomun batzutan funtsatu ahal izateko.

Zeregina, bilera batzutan burutzeko, handiegia zela ikusirik esku artean genuen arazo-multzo ugaria atalkatzea erabaki zen eta hasikin gisa bost gairi buruzko txostenak prestatu ziren:

- Lexiko-sorkuntzarako bideak.
- Maileguzko hitzak: ebakera eta idazkera.
- Eratorpena.
- Hitz-elkarketa.
- Gainerako baliabide sintagmatiko lexikalak.

1978ko Gabonetako bilera haietan egindako kritika sistematikoari esker, argitaratutako hiztegietan nabari daitekeen aski bateratasun-maila handia lortu da, inoiz, geroztiko eskarmentuak erakutsitakoagatik egin diren aldaketek edo hutsegite handixeagoek nahiz txixixeagoek, orduan hartutako zenbait erabaki saihestera eraman bageituzte ere.

Geroztik hasierako zirriborro haiek umotzeko eta osabetezko borondatea eta zenbait lankide finen inurri-lan eskerga (bi zentzuetan) ez da falta izan.

"Maileguzko hitzak: ebakera eta idazkera" izan zen liburua bihurturik 1981ean plazaratu zen lehen fruitua, lau urte luzetan zehar asko aberastu eta gero.

Zorionez, UZEIk ez bezalako itzala eta erantzukizuna duen Euskaltzaindia ari zaio azken boladan aspalditik arlo honetan zegoen erabaki-premiari erantzuten, denon mesedetarako. Orain arte Euskaltzaindiak hartutako erabakiek erakusten digutenez, guk etxe-barrurako proposatu genituen behin-behineko erizpideak ez zihoozen desbideratuegiak eta haietan oinarritutako lanak beste balio bat hartzen duelakotan gaude.

Oraintxe bertan hitz-elkarketari buruzko azterketa aurrera doa, hain gai korapilotsua arakatzeko euskal literaturaren luzé-zabal osoan murgilketa sakonak egitera behartu ondoren. Oraindik ere ondorioak ikusteko betazalak ederki erresumintzerainoko ordu txikiak arteko saio luze ugari beharko den arren, ez genuke luzaz berantetsi nahi lan honen zain dagoen hainbat lankide.

c) *Informatizazioa.*

Berehala ikusi genuen, teknologia modernoak eskaintzen duen tresneria baliotsu hau erabili ezean, hiztegiak setatsuenari ere gainez eragin diezaiokeela.

Hasiara batean informatika-etxe baten zerbitzuak jarri zigun irispidean ordenadorearen laguntza. Azken urte pare honetan etxean dugu ordenadorea eta bertan ari gara hiztegiak behar dituen programa bereziak egiten. Izan ere gure lan berezirako ez bait daitezke software-produktu komertzial egokiak salgai aurkitu. Sail honetan etengabeko sorkuntza daukagu eta apurka terminologi banku baten oinarriak ipintzen ari gara.

d) *Erabileraren ikerketa.*

Bi eratako ikerketak aipatu nahi nituzke arlo honetan:

1) *Hiztegiak egiteko burutzen diren hustuketak.*

Zenbait sailletako hiztegiak egiteko oso garrantzizkoa da euskal literatura osoan erabili den eta are gaur eguneko ahozko hizkuntzan erabiltzen den hiztegia aztertzea. Adibiderik azpimarragarrienetako bat animalien eta landareren izendegia izan daiteke. Batetik hiztegi standardizatuaren beharra dute zoologoek edo botanikoek eta bestetik arlo honetako hiztegiak euskarak berak bezain historia luzea du. Bilketa-lan sakona egin da eremu honetan. Jasotako bilduma aberatsegia da alderdi batek animalia edo landare askok herritik herrira eta autoretik autorera izen desberdinak hartzen dituelako eta beste alderdi batetik berriz hutsune asko bete behar izan dira hiztegia osatzeko, taxonomia zientifikoak eskatzen duen zehaztasunari hiztegi tradizionalak inolaz ere erantzuten ez diolako.

Beste zenbait hiztegi egiteko, Informatikakoa esate baterako, horrelako azterketa batek ez dezake askorik eman, jakintza hau guztiz berria eta euskaraz oso gutxi landua delako.

Euskal literaturako testuen hustuketari buruz ohar bat egin nahi nuke. Lexiko-sorkuntza modernorako egiten den testuen hustuketa eta hiztegi historikoa osatzeko egiten dena ez dira erabat berdinak. Horrek ez du esan nahi bata bestearekin zerikusirik ez duenik. Alderan-

tziz, irrika bizia daukagu horretarako gai direnek, espero dugunez luzagabe kaleratuko duten hiztegi historikoa eskutan edukitzeko eta erabiltzeko.

Haatik, orain arteko esperientziak erakusten digunez, hiztegi berezituak egiteko iraganeko iturrietara jotzen denean testu bakoitzak espezialitate desberdinetatik egindako irakurketa desberdinak eskatzen ditu eta testu bat ez daiteke inoiz hustutzat eman, zeren eta bai bait dakigu beste ikuspegi batetik irakurtzen denean testu horrek idarokizun berriak eskainiko dituela.

Ez dakit ipiniko dudana adibidea oso egokia izango den baina esango dudana hein batean bederen argigarria gerta litekeela uste dut.

Adibidez, klasiko bat irakurtzen ari dena injineru mekanikoa baldin bada "*Ezpata landatzen diò bihotzaren gainean*" dioen pasartera iristen denean berehala etor dakioke burura laza bati buruz ingelesez "*to tail*", frantsesez "*encastrer*", alemanez "*eispannen*" edo espainieraz "*empotrar*" esaten dena. Egia da hustutzen ari den testuinguruak ez duela ez lazekin eta ez eraikuntzarekin zerikusirik, baina testuinguru horretako konnotazio guztiak alde batera utziz, landatu aditzak hor adierazten duena aipatutako kontzeptu teknikoari dago-kio oso osorik: gorputz batean hau bain askoz lerdengoa den beste gorputz baten muturra sartu (bigarren hau ekintza horregatik beste irozkairik gabe sostengaturik geratzeraino).

Nekez hel liteke medikua, filologoa, ekonomilaria edo apaiza konstatazio hori egitera.

Irakurle bakoitzak bere formazio (eta are deformazio) profesionalak ezartzen dizkion betaurrekoak jarrita irakurtzen du testua. Honek ez du autore klasikoaren azterketa linguistiko edo literarioaren ikuspegitik inolako interesik noski, baina hizkuntzaren modernizaziorako lexiko-sorkuntzarako oso gogoan izatekoa da eta izaten dugu.

2) Azken urteotako erabileraren azterketa.

Ikerketa-mota honen helburua beste bat da, euskararen modernizazio-prozesuan lexikoaren sorkuntza eta erabilerak praktikoa nolakoak diren aztertzea, hain zuzen.

Batez ere irakasmunduko eta komunikabideetako terminologiak ari gara arakatzen. Ereku hauetan erabili edota erabiltzen den terminologiaren ezaugarriak azertu nahi ditugu: jakintzagaiz jakintzagai, autorez autore, irakasmailaz irakasmaila etab. hiztegiaren bateratasunmaila, sinonimi eta polisemi mailak, lexiko-sorkuntzarako bide desberdinen eta eraikuntza sintagmatikoak eratzeko hedabideen erabilerak ikertzen ditugu.

Azken urteotako lexikoaren egitura nolakoa den eta ohizko ondare lexikalarekiko gertatzen ari diren berrikuntzak ezagutu nahi ditugu. Kontutan eduki behar bait da hizkuntzaren normalizazioak hizkuntz ohituren aldaketa suposatzen duela. Prozesuan zehar zer mantentzen den eta zer aldatzen, azaltzen diren problema berriak zein diren etab. ezagutzea oso beharrezkoa da.

e) *Kontsultategia.*

Gure lana ez daiteke akademiko edo zientifiko hutsa izan; gizarteari zerbitzu praktikoa eskaintzera iristen ez bagara ez dezakegu esan gure helburua atzeman dugunik. Argitaratzen diren lanek neurri batean soilik balio dute zerbitzu hori emateko. Etengabe datoz guregana oso era desberdinetako galderak.

Batek galdetuko dizu Natur Zientzietako klasean duten arranontziko ur gezatako Unio jeneroko halako muskuluri (ala txirlari?) nola deitu behar dioten euskaraz, hurrengoan plastikako irakaslea etorriko zaizu ea nola arraio esan ditzakeen euskaraz "azul celeste", "azul ultramar", "azul marino", "azul cobalto", "azul turquesa", "azul azafata"... Horrelako kontsulta puntual baten ondoan etor dakiguke eta etortzen zaizkigu maiz herri bateko Udaleko euskara-zerbitzuak egin duen denda eta lantegietako ageriko idazkien bilduma ("helado de avellana", "fonda", "hospedería", "hotel", "hostal", "motel", "pensión", "casa de huéspedes", "veteranos", "senior", "junior", "juvenil", "infantil", "mini-infantil", "benjamín", "alevín", "cadete") edo administrazioaren halako sailletako bulegoak behar duen termino-zerrenda edo hirigintza-arloan herri batean Arau subsidiarioen jendaurreko erakusketa euskaraz egin nahi dela eta hango terminologia osoa

("aguas residuales", "aguas fecales", "aguas negras", "aguas pluviales", ... "vial", "camino", "acceso", ... "cornisa", "marquesina", "voladizo"...). Kontsultategi honen mesederik handiena ez da erantzuterakoan premia jakin hari ebazpena eman izana baizik eta beharrezan ezauzgarrien berri guk izatea erantzun sistematizatuagoak eman ahal izateko.

f) *Irakasmaterialgintza.*

Denbora luzean eginkizun honetan ez dugu sartu nahi izan, dena esan behar bada, baina zenbait arlotan dagoen premia larriari erantzun beharra dagoela ikusirik heldu egin diogu lan honi ere.

Bestalde aitortu beharra dago hiztegiaren baliozkotasuna testuinguruan probatzeko eta hiztegia berbaldian txertatzerakoan aurkitzen diren arazoak nabarmentzeko bide paregabea dela testugintza. Ildo honetatik abiatuz egin ditugu Historia BBB-1, Artearen Historia UBI, Natur Zientziak BBB-3, Filosofia BBB-3, Filosofia UBI, Psikologia, Ekonomia, Marrazketa BBB-1 liburuak.

g) *Alfabetatze teknikoak Ikastaroak.*

UZEIk ikastaro hauetarako batez ere b) puntuak aurkeztu ditudan lan teorikoetan oinarritutako materiala azaldu izan du.

2.3. UZEIko metodologiaren oinarriak

a) *Hustuketa.*

Lehen ere aipatu dut gure lanean berebiziko garrantzia duela lehengo euskal iturrietara jotzeak. UZEIko lanen oinarrian gure lehendikako literaturaren hustuketa, datu-bilketa, dago. Lehendik euskarak dituen hiztegi orokorrek, jakina, laguntzarik estimagarriena ematen digute.

b) *Lexiko-beharrizanen azterketa.*

Alderdi honetatik zientzia bakoitzak bere baitan dituen premiak ezagutzen ahalegintzen gara. Lan honetan espezialistek dute hitza gehienbat.

c) *Inguruko hizkuntzetako hiztegiaren azterketa.*

Euskal harrobian duguna ezagutu ondoren eta lan bakoitzaren helmuga lexikal berezitua non dagoen ezagutuondotik, inguruko hizkuntzetan zer dagoen aztertzen ahalegintzen gara arlo jakin bakoitzean. Hizkuntza horietako hiztegi berezituak (eta orokorrak) bilatzen ditugu, ahal dela espainiera, frantsesa, ingelesa eta alemana gogoan izanik: hiztegi eleaniztun berezituak balio berezia dute guretzat.

Hitz-zerrenda eleaniztunak arakatzeak eta lantzeak badiu, gure ustez, alde on zenbait, hala nola espainierarekiko menpekotasunetik alde egitea, euskararen zenbait baliabideri etekin hobea ateratzeko idarokizun aberatsagoak jasotzea, alemanaren konposizio-sistema gogoan izanda adibidez, hizkera teknikoaren nazioartekotasuna haintzakotzat hartzea etab.

d) *Disziplinarteko elkar hizketa.*

Normalizaziorako lantzen ari garen arloetan erantzun koherente, homogeno eta orohartzailea lortu nahi genuke.

Zientzi-sail desberdinen arteko interferentzia lexikalak oso ugariak dira, ordea, kulturen eta horregatik disziplinarteko elkar hizketa guztiz beharrezkoa da.

e) *Testu jarraituen lanketa.*

Hitz-zerrendak beti ere testu jarraituaren probalekua beharrezkoa du. Horregatik, ahal den guztietan, hiztegiak idazlanetan erabilia agertzen saiatzen gara.

f) *Erabiltzaileak hiztegi-gintza-prozesuan integratzea.*

Hizkuntzaren normalizazio-arauak gizarteak zilegiztatzeko azken finean. Sortzen den hiztegia erabiliko den segurantzia izateko onena eremu bakoitzean hizkuntz eragile izango den profesional-taldea hiztegi-gintza-lanetan txertatzea da.

g) *Kontzeptu-sareen azterketa.*

Hiztegi-gintza berezitan, jakintza sistematizatuen eskakizunei era egokian erantzutekotan, arreta handiz ikertu

behar dira zenbait sema erkide dituzten hitz-abanikoak. Kasu honetan aztertu nahi izan da alde batetik hitz-abaniko horiek zer-nolako zatiketa daukaten beste hizkuntzetan (ea kontsultatutako hizkuntza guztietan zatiketa berdina egiten duten) eta honen arabera ikusi nola-koa egin beharko genukeen euskaraz, eta bestetik, euskaraz erabaki lexikalak ematean maila honetako polisemia arbuia.

Honek bete-betea hizkuntzalariak eta zientzia bakoitze-ko espezialistak elkarlanean jartzera garamatza. Hizkuntzalariak zenbait erizpide eskainiko dio espezialistari etahonek, aldiz, jakingo du zientzia horren lexikoaren nondik norakoa, zer berezi behar den, zer ez, zenbait erabaki lexikalen praktikotasunik eza, mugak, etab.

h) *Proposamenduak eta kritika.*

Hauxe izan liteke gure hiztegitzaren ezaugarririk propioenak: proposamen eta kritikaren joan-etorriko dialektika prozesuan zehar behin eta berriro erabiltzea.

Kontzeptu-eremua zedarrizatzeko proposamenari espezialisten kritika dagokio, euskal ordainen proposamenari, berriz, UZEIko lankide guztiek edo gehienek, hiztegia egiten parte hartzen dutenek, euskal hiztegitzaren ari direnek, beste zenbait erakundek, egiten diote kritika.

Materialak beren kritika eta guzti itzultzen zaizkigunean erantzun guztiak batu egiten dira zerrenda bakar batean eta horren gain hartzen dira gure erabakiak, nahiz eta beti geratu zalantzazko zenbait hitz azken argitalpen-una arte.

2.4. Lexikologiazko zenbait erizpide

Hasiera-hasieratik izan da UZEIren kezka lexiko-sorkuntzarako iturriak arakatzea, alde batetik euskararen barne-funtzionamendua aztertuz eta bestetik nahitaezko diren hitz mailegatuak etxeratzeko moduak ikusiz.

Lexikoaren azterketan eratorpena, hitz-elkarketa, zabal-kuntza semantikoa, berrezarpen lexikala, berrikuntza fonologikoa eta eraikuntza sintagmatikoak dira UZEIn bereziki es-tudiatzen diren gaiak.

Eratorpenari dagokionez, azpimarragarriena sailkapen-erizpide berri batzutan barrena abiatzea izan daiteke; egungo joera linguistikoak kontutan hartuz eta Azkuek, edo Villasantek beranduago, egindako lana jasoz, urrats berri batzu eman nahi izan dira.

Antzerako zerbait esango genuke hitz-elkarketari buruz, eta, esandakoaz gain, beste zerbait azpimarratu beharko litzateke: egungo hitzun gazteak galtzen ari diren kompetentzia berreskuratu nahia, albo-hizkuntzen eraginez galtzen ari garen kompetentzia geureganatzeko asmoz.

Zabalkuntza semantikoa, berrezarpen lexikala eta berrikuntza fonologikoa gai labainkor samarrak dira. Jaso dugun tradizio batetik abiatuz, hainbat eta hainbat aldiz ikusten da hitz batek ez diola erantzuten osoki adierazi nahi dugun kontzeptu bati, baina, historia barrena hitzen eremu semantikoak aldatu egiten dira eta, bide hau baztertuz gero, hitz mailegatuek sarrera handiagoa lukete.

Lexiko-sorkuntzan zabalkuntza semantikoa eta berrezarpen lexikala kontutan hartu dira; izan ere, orain arte euskaraz esan ez bada, ezin izango da sarritan kontzeptu bati ehuneko ehunean erantzuten dion hitza aurkitu, baina, bai hurbiltzen zaionen bat. Gainera bide hauek baztertzeak, kontzeptu haiek sortu dituen hizkuntzako hitza hartzera eramaten gaitu, hark bakarrik jasoko bait ditu kontzeptuak izan ditzakeen konnotazio guztiak.

Zabalkuntza semantikoak sortzen dituen arazoez ohartuta gaude. Izan ere, zabalkuntza semantikoaren bide sortutako zenbait hitz artifizialeki gerta dakioke euskal hiztunari eta bestalde, oinarri bezala hartu den hitzaren eremu semantikoa aldatzeak, bere mugakide diren hitzekiko harremanak ere aldatzea esan nahi bait du.

Berrezarpen lexikalak ez du zabalkuntza semantikoak adinako arazorik sortzen, hitza hilik dagoelarik, berpiztean ez da euskal hizkuntzarentzat artifizial-kutsurik izango behintzat.

Zabalkuntza semantikoaren eta berrezarpen lexikalaren mugak ezartzea, hots, zein neurritan aplikatu daitezkeen erabakitzea, erraza ez den bezala, berrikuntza fonologikoarenak ere ez. Historikoki horrela sortutako hitzak oihartzuna izan badute onartu dira, baina, ez da bide hau iturri emankorrenen artean sartu orain arteko gure praktikan.

Puntu hau apur bat argitzeko zenbait ohar egingo ditut. Hizkuntz zeinua arbitrarioa dela eta, behin baino gehiagotan galdetu izan da, eta oso leku desberdinetan galdetu ere, ea zergatik ez den hiztegia aberasten are huts-hutsetik sortutako hitzekin ere, baldin eta hauek hizkuntzaren fonologi sistema-rekin ados badaude. Adibidez, proposa nezake oraintxe bertan tresna asmatuberri bat izendatzeko "karratela*" hitza. Nik dakidala bederen "karratela*" euskal hitza ez da orain arte izanbaina badirudi gure ohizko soinuaren konbinazio zilegi bat dela. Bide hau onartuko balitz, teoria hutsean behintzat, sekulako iturria izango genuke prozedura honetan hitz berriak sortzeko.

Eragozpena ez dator fonologiaren aldetik komunikazio-zailtasunen aldetik baizik. Deus ere iradokitzen ez diguten milaka zeinu ikasi beharra ezinezkoa litzaiguke gizarte-mailan.

Hainbestearino heldu gabe ere egin izan dira gure hizkuntzan antzeko gauzak.

Batez ere SabinoAranaren garaitik 1936ko gerrara bitarteko urteetan "lutelestia" (geografia) edo "notin" (pertsone) bezalako hitzak sortu zituzten maileguzko hitzei ihes egiteko asmoaz. Tankera honetako sorkuntzek izan dute zenbait kasutan arrakasta: "argazki", "ikurrina", etab. baina oro har lexiko sorkuntzarako bide hori etenda dago gaur gaurkoz.

2.5. UZEIko hiztegien izakera eta egitura

Lexikografi lanen tipologia bera egitea arrunt lan gaitza denez, ezin izan erraza UZEIko hiztegiak zer motatakoak diren esatea kanpoko hiztegiekiko konparazioa oinarritzat hartuz.

Besteak beste, kontuan izan behar bait da egoera anormal batean sortuak eta helburu anormal baterako eginak direla.

UZEIko hiztegiak nolakoak diren esatea baino nolakoak ez diren esatea agian errazagoa izango da.

Ez dira behintzat autore baten, obra baten edo autore-nahiz obra-sail baten hiztegien bildumak euskarari dagokionez.

Hala ere esan beharra dago hiztegi eleaniztunak direnez, euskararekin parekatzen diren beste hizkuntzetako hitzak hizkuntza horietako erabileran eta erabilera hau deskribatzen

duten hiztegieta aurkitzen direnak direla. Gure hiztegieta ageri diren euskal hitzak erdal hitzen ordain gisa proposatzen dira. hizkuntza horietako erabileran eta erabilera hau deskribatzen duten hiztegieta aurkitzen direnak direla. Gure hiztegieta ageri diren euskal hitzak erdal hitzen ordain gisa proposatzen dira.

Horrek ez du esan nahi proposamen guztiak erabat berriak direnik ezta gutxiago ere, gure iturririk nagusia beti ere ohizko ondare lexikala izan dadin saiatzen bait gara eta horretarako euskal hiztegi orokorrak (Azkue, Lhande, Kintana, P. Mugika, L.M. Mugika, S. Pouvreau, Tournier-Lafitte, Retana, Larramendi, Aizkibel, etab.) eta gaurko ahozko hizkuntza ditugu gidari.

Gure Arte-hiztegia esate baterako baliokidetza hauek aurki daitezke:

- actitud = *jarrera*
- acumular = *metatu*
- aguja = *orratz*
- ajuar = *atu*
- alacena = *arasa*
- arruga = *zimur*
- baile = *dantza*
- blanco = *zuri*
- brillo = *distira*
- cabaña = *txabola*
- campanario = *kanpandorre*
- cementerio = *kanposantu; hilerri*
- chaflán = *alaka*
- éxito = *arrakasta*
- formón = *trintxa*
- fragua = *sutegi*
- imagen = *irudi; imajina*
- mueble = *haltzari*
- plomo = *berun*
- salida = *irteera*
- suceso = *gertaera; jazoera*

Beste zenbait kasutan, askotan, euskaraz inoiz erabili ez den kontzeptu batentzako ordaina proposatzen da.

Ohizko ondare lexikalak ez du honelakotan zuzenean ebazpiderik eskaintzen, baina hizkuntzan ohizkoak diren lexiko-

-sorkuntzarako bidetatik abiatuz eta maileguzko hitz berriak onartzera jo gabe ere egiten dugu hainbat proposamen.

Askotan erabiltzen dugu eratorpena ohizko ondare lexikaleko hitzetatik kontzeptu berriei legozkiekeen ordainak sortzeko. Oraingoan gure Hizkuntzalaritza-hiztegiko adibideak dakartzat. Esate baterako:

accesibilidad = *eskuragarritasun*
acomodable = *egokigarri*
anteriorización = *aurreratze*
apelación = *deikuntza*
arbitrariedad = *hautazkotasun*
bilabial = *ezpainbikari*
co-aparición = *agerkidetza*
conmutativo = *trukakor*
decadente = *gainbeherakor*
enmudecimiento = *mutuketa*
interiorización = *barnerakuntza*
labialización = *ezpainkaritze*
predictor = *aurresale*
reagrupación = *birtaldekatze*
traslativo = *lekualdatzaile*

Maiz hitz zaharrak berregokitzen ditugu aski mekanismo konplexuz baliatuz: berrezarpen lexikala eta/edo zabalkuntza semantikoa eta/edo kalko semantikoa eta/edo berrikuntza fonologikoa (azken hau aipatutako mugapen handiekin bada ere) etab.

Adibide bila Matematika-Hiztegiara joko dut oraingoan:

adherencia = *atxekidura*
aleatorio = *zorizko*
anillo = *eraztun*
campo = *eremu*
casquete = *txapel*
cóncavo = *ahur*
desarrollo = *garapen*
intersección = *ebaketa*
intervalo = *tarte*
involuta = *bilkari*
operador = *eragile*
óctuplo = *zortzikoitz*
orientado = *norabidatu*

potencia = *berredura*
 progresión = *aitzinapen*
 radicando = *errokizun*
 rectificación = *zuzendapen*

Espezialitatetako hiztegiak lantzen ditugunez, ulertzekoa da batetik kultura grekoan oinarritzen den zibilizazio honetan agertzen zaigun hainbat nazioarteko terminori ateak zabal-tzearen zergatia eta bestetik komunikazio zientifikoak dituen eskakizunak bete nahi dutugularik, batez ere polisemia izugarri puztu gabe beti harrobi propiora jotzerik ez dugularik, mailleguzko hitzez ere baliatzeko dugun beharra ere garbi dago.

Inor gutxik defendituko du gaur egun mailleguzko hitzak zeharo gaitzetsi behar ditugunik. Oraindik ez da asmatu garbi-zalekeriaren eta mordoilokeriaren arteko mugak hiztegi-kontutan non dauden erabakitzeke metroa. Guk arazoa bestela planteatu dugu. Maileguak hartzekotan hauek nola idatzi eta nola ahoskatu behar diren da edo izan da gure buruhaustea. Saiatu gara problemak sailkatzen eta irtenbideak proposatzen eta gogoeta horren fruitua **Maileguzko Hitzak** liburua izan da.

Era askotako zalantzak sortzen dira: garai batean maileguak egokitzeke indarrean zeuden lege fonologikoak, zenbateraino daude gaur egun bizirik?, egokitzapena egiteke garaian zeri begiratu behar zaio? hitzaren etimologiari ala gure fonetikari?, zein bidetatik iristen zaizkigu maileguak? begietatik ala belarrietatik?, hots, zer da hobe, jatorrizko grafiari kasu egitea ala gure ahoskatzeko moduari? Erraztasunari begira hobe litzateke arau orokorrak ematea, baina, nolana ere, salbuespenak egin beharra dago erabil-ohituren, maileguak duen zahartasunaren etab.en arabera.

Ez da berbera "*gaztaina*" bezalako mailegu zahar bati buruzko erizpidea eta oraintsu arte behar izan ez dugun "*kato-do*"-ri buruzkoa. Beste hizkuntzetan bezala hizkuntzaren erregistro desberdinei dagozkien hitzak tratamendu desberdina izan behar dute. Gaztelaniazko "*obra*" eta "*ópera*" edo "*actor*", "*factor*" eta "*hacedor*" hitz desberdintzat hartzen diren bezala, euskaraz ere "*erretore*" eta "*errektore*" edo "*istoria*" eta "*historia*" egon beharko dute.

Horregatik aurkituko dituzue gure hiztegietan "*spin*"-en ondoan "*ispilu*" eta "*izpiritu*", "*errota*" eta "*erreserba*"-rekin batera "*arratoi*" eta "*radon*" etab.

Desberdintasun horiek denak, ordea, aldez aurretik ezarritako erizpide batzuren ondorioak dira.

Gure hiztegiek izan ditzaketen aje guztien artean, eta se-guru asko akatsok ez dira gutxi izango, nabarmenena ez dut uste homogenotasunik eza izango denik.

Orain arte esandakoak elementu lexikal bakunei buruzkoak izan dira. Dena den, problema asko eta aski esanahi-unitate luzeagotatik datozkigu eta hemen morfosintaxiaren arazoekin topo egiten dugu.

Kultura modernoan oso ugariak dira elementu lexikal soil edo bakun batez adierazi ordez "*hitz-katea*" luzeagoen bitartez aditzera ematen diren kontzeptuak.

Hitza zer den eta hiztegieta azaldu behar duten sarrerak zein diren eta zein baztertu beharrezkoak bukaerarik gabeko eztabaidagaiak dira.

Esate baterako, "*artaburu*" adierazleari "*artoaren burua*" semema dagokio. Adierazle horretan murgiltzen bagara bi adierazle-zati aurki ditzakegu: "*arto*" eta "*buru*" eta hauetako bakoitzari semema bat dagokio. Hauek ordea ez daitezke gehiago zatika; esanahi-unitate minimoak direla esan dezakegu. Unitate hauek "*monemak*" direla esaten dugu eta zenbait monemaz osatutako adierazleak berriz "*dira*".

Gure kasuan beste arazo bat planteatzen zaigu, gure hiztegiak euskararen itzulgarritasuna bilatzen dute hedadura handiko hizkuntzekiko, beraz gure hizkuntzak ez dituen hedabide sintagmatiko batzuren bidez sortutako esanahi-unitate konplexuen ordainak ematen ahalegindu behar dugu. Horrek bi ondorio ditu berekin: euskal hedabide sintagmatikoak eza-gutu beharra eta erdal eraikuntza sintagmatikoak euskaratzeko bideak bilatu beharra. Arazo hau hiztegi soilean azaltzen ez bada zalantzarik ez izan testu jarraian agertuko dela.

Inguruko hizkuntzekiko deberdintasun nabarmenak ditugu alderdi honetatik. Bi oso nabariak aipatzeko preposizio-bidezko hedabidearen falta eta oraintsu arte izan dugun adjektibo erreferentzialik eza aurkeztuko nituzke.

Euskaraz beste bide batzu ditugu izenaren multzotik abiatuz izen-sintagma luzeagotara jotzeko:

1. Ezker-hedabideak:

- a) Izenlagunaren bidea. Izenaren multzoaren ezkerreko aldetik -ren atzikiaren bitartez edota erlazio-atziz-

- kien eta -ko atzizkiaren bitartez: "*Newton-en legeak*", "*ilargirako bidaia*".
- b) Konposizioaren bidea. Izen batekin ezkerreko aldetik muga dezakegu gehiago haren esanahia: "*lasterketa*" baino zehatzagoa da esate baterako "*zaldi-lasterketa*".
- c) Aposizioa. Izendapen berezia izen arruntaren ezkerretik ezarriz. Esate baterako: "*EGA titulua*", "*Bessemer prozedura*".
- d) -dun eta -tar atzizkien bitartezko ezker-hedabideak: "*arantzadun alanbrea*", "*Boolear algebra*".

2. Eskuin hedabideak:

- a) Adjektibo bidezkoa. Izenaren tasunak zehazteko bide dugu. Izen + adjektibo multzoak maiz topatzen dira berbaldian. Hauetako askok ez dute inolako lexikalizaziorik "*hautsontzi garbi*", "*landare eder*",...; baina beste batzu bai: "*izen arrunt*", "*zenbaki oso*",-...
- Horrelako zenbait multzo lexikalizatuta ezezik ihar-tuta edo fosilduta ere aurkitzen da, hots, izenak eta adjektiboak elkarturik emango luketen esanahiaren orde z horrelako multzo batek erabiliaren erabiliz beste esanahi bat hartu du. "*Katagorria*" ez dira katuak eta batzu ez dira gorriak ere.
- b) Eskuineko izenlagunaren bidea. Nahiz eta ezkerreko izenlagunak adina ez erabili, bide hau ere badugu. Batez ere forma fosildutan azaltzen zaigu gaur egun: "*Ama Doloretakoa*", "*aingeru goardakoa*", "*zezensuzkoa*", baina inoiz ondo etortzen zaigu beharrian berrietarako ere: "*baldintza beharrezkoa eta nahikoa*", Matematikan, esate baterako.
- c) Eskuineko aposizioak. Aposizioak ere gehienetan ezker-hedapenak diren arren, erabilera jakinetan eskuin hedapenak ditugu: "*aita Donostia*", "*osaba Tom*",-....
- d) Postposizioak. Hizkuntz erromanikoetan behinik behin preposizioen edo funtzio preposizionalen bidez egiten diren hedapenak euskaraz postposizioez baliatuz egiten dira batzutan: "*irradi bidez*", "*adibide gisa*",...
- e) Eskuin hedapen sintaktikoa. Izenlagunaren bide ezker-hedapen edo eskuin-hedapen bezala erabili orde z

hauta dezakegun beste bide bat da: "urez asetako lurra" esan ordez esan dezakegu "lur urez aseá", esate baterako.

Gure inguruko hizkuntza erromanikoetan eraikuntza sintagmatiko konplexuak oinarritzko bi egituraren konbinazioz eratzen dira:

- 1) izena + adjektiboa
- 2) izena + preposizioa + izena

Adibidez; mekanika-arloko kontzeptuak erabiliz:

metal duro: izena + adjektiboa

plaquita de metal duro: izena + preposizioa + izena + adjektiboa

plaquita de metal duro de sujeción mecánica: izena + preposizioa + izena + adjektiboa + preposizioa + izena + adjektiboa

herramienta de corte con plaquita de metal duro de sujeción mecánica: izena + preposizioa + izena + preposizioa + izena + preposizioa + izena + adjektiboa + preposizioa + izena + adjektiboa

Euskaraz, aurrean aipatutako hedabideak, adjektibo erreferentzialak barne, ditugu eraikuntza sintagmatiko hauen ordainak sotzeko:

metal gogor: izena + adjektiboa

metal gogorrezko plakatxo: (izena + adjektiboa) izenlaguna + izena

orapen mekanikoko metal gogorrezko plakatxo: (izena + adjektiboa) izenlaguna + (izena + adjektiboa) izenlaguna + izena

orapen mekanikoko metal gogorrezko plakatxodun ebaketa-erraminta: [(izena + adjektiboa) izenlaguna + (izena + adjektiboa) izenlaguna + izena] dun + (izena + izena)

konposizioa

Mekanika-arloa ezagutzen ez duenarentzat adibide hau bitxia eta bihurria izango da, agian, baina edozein tornulariarentzat guztiz kontzeptu erabili eta ezaguna da.

Dena den, adibide hau, azalpen honetara ekarri badut erdal eta euskal hedabide sintagmatikoen konparazio praktikoko txiki bat egiteko izan da eta ez bestetarako.

Itzultzailearen ikuspegitik interesgarria litzateke erdal he-
dabide bakoitzarentzat euskal baliokide bat sakelean izatea.
Zoritxarrez ala zorionez hori ez da horren automatikoa.



Berehala ikus daiteke zergatik. Eman dezagun gaztela-
niatzko izen + adjektibo erreferentzial multzoak euskarazko
izen-konposizioz itzultze erabakitzen dugula. Askotan ez dugu
oztoporik aurkituko.

deporte invernal = *negu-kirol*
sociedad agrícola = *nekazal gizarte*
empresa publicitaria = *publizitate-enpresa*
superficie esférica = *esfera-azal*

Itzulpen mekanismo hau aski erraza da: erreferentziazko
izena konposizioan elementu determinatzaile bezala erabil-
tzean datza. Berehala aurkitzen ditugu ordea mekanismo hau
erabiltzeko oztopoak:

"control nùmerico" ezin itzuliko dugu "zenbaki-kontrol",
agian "zenbakizko kontrol" edo "zenbaki bidezko kontrol" egin
beharko dugu, izenlaguna + izena edo postposizioa + izen-
laguna + izena erabiliz. Euskaraz adjektibo erreferentzialik
ez erabiltzea lortu dugulako pozik bageunde, berriz, laster
aurkituko dugu haien beharra ere.: "central nuclear" ez da ez
"nukleo zentral", ez "nukleozko zentral" eta ez antzekorik. Sai-
tu soluzioa bilatzen eta "nuklear" adjektibo erreferentzialaren
premia nabarituko duzu berehala.

Hasieran ontzat eman ditugun konposizio bidezko itzulpe-
nak ere ez harritu testuan barrena erabili ezinezkoak agertzen
bazaizkizu. Pentsa ezazu "fragmento esférico del cubo" eta
"fragmento cúbico de la esfera" esan behar dituzula:



Kasu honetan "fragmento esférico" ez da "esfera-zatia", "ku-
bo-zatia" baizik eta "fragmento cúbico" ez da "kubo-zatia", "es-
fera-zatia" baizik. "Esfera-zati kubikoa" eta "kubo-zati esferi-
koa" dira.

Eraikuntza sintagmatikoei buruzko arazoen agerpen hau le-xikoaren eta berbaldiaren arteko harremanen arazoa ikusa-bartzeko bide bat besterik ez da izan.

Azken finean gure hiztegiak artikuluen atala eta hiztegia-ren atala zergatik dituzten apur bat ulertzeko bestetarako ez.

Gure hiztegiak behin-behinekoak ezezik hizkera-molde be-riak lantzeko abiapuntu eta lehen hurbilketa direla esan be-har.

Bestalde, hiztegi eleaniztunak izan beharra daukate gure hiztegiak erreferentzia bakarraren menpekotasunetik irten nahi badugu, baina horrek oztopo berriak dakartza. Arrazoi berriak aurkitzen dira ikuspuntu honetatik begiratuta hizte-giok hurbilketa, eta sarritan hurbilketa baldarra, direla ikus-teko.

Demagun ingelesezko "belt" hitzetik abiatzen garela. Me-kanikaren arloan zenbait transmisiotan erabiltzen den zinta antzekoa adierazten digu. Euskarazko "uhal" eta "petral", es-painierazko "correa" eta frantsesezko "courroie" izan daitezke "belt" horren baliokideak.

Espainierazko "correa" hitzak, ordea, teilatuan latak sos-tengatzen dituzten gapiarioen azpian eta astazaldien gainean luzetara egoten diren lazak ere izen horixe dute.


Euskaraz horren baliokidea "petral" bera dela uste dut, bai-na frantsesezko "courroie"-k ez du balio eta ingelesezko "belt"-ek ere ez. Frantsesez "panne" da hori eta ingelesez "pur-lin".

Baina frantsezko "panne"-k baditu beste hiru esanahi: es-painierazko "avería" eta ingelesezko "breakdown"-i dagokiena, euskaraz "matxura" izango litzatekeena, bata, itsasontzietan izaten den haga baten muturra, ingelesez "peak" deritzana, es-painieraz "pena" edo "penol" esaten dena eta euskaraz eza-gutzen ez dudana bestea eta ingelesez "peen", espainieraz "ca-beza de martillo", "boca de martillo" edo "cotillo" esan daite-keena, eta euskaraz agian "gorro" eta "mailu-buru" ere esango litzatekeena hirugarrena.

Itsasontzietakoari frantsesez "penne" ere esaten zaio.

Ingelesezko "peak"-ek itsasontzien mundutik irten gabe espainierazko "uña de ancla" eta frantsesezko "bec d'ancre" ere esan nahi du. Euskaraz ez dakit nola esaten zaion.

Ingelesezko "breakdown" berak kimikan espainierazko "descomposición" eta frantsesezko "décomposition", euskaraz Kintanak "desosera" proposatu duena esan nahi du.



Hau dena teknologi mundutik atera gabe eta sinonimoak edo erdisinonimoak gehiegi kontutan hartu gabe ateratzen zaigu.

Konturatuko zarete "belt"-etik esanahiz hurbil dauden beste hitz batzu honekin batera aztertu nahi baditugu abaniko bat osatzeko etab. hau dena eromena izan daitekeela. Hurbilketarekin konformatu behar hortaz.

Artikulu honetan ELHUYAR eta UZEI elkarteek euskararen modernizazioa erdietsi nahian egiten dituzten lanak zein diren eta aurkitzen dituzten oztopoak nolakoak diren gaingiroki azaldu nahi izan dut. Irakurle askorentzat gure mundu berezi honetarako lehen hurbilketa izango da. Ezin zen pentsatu ere horrelako artikulu batean dena esatea dagoenik.

Aldizkari hau horrexegatik jaio da, problemak ugariak direlako terminologiaren eta hizkuntza berezituen arloan eta zer esanik ez itzulpenaren (itzulpen-mota desberdin ugarien) munduan.

Saiatuko gara aurrerantzean gaur nahas-mahas eta batere osotasun-asmorik gabe azaldutakoa piskanaka xehetzen eta urte luzeak opa dizkiogun aldizkari honetan zuei ekartzen.

(1) Ensunza, Martxel. *Alfabetatze Zientifikoa* (Iruñea: UEU 1983).

Euskal itzulpena komunikabideetan

Iñaki Zubizarreta

Lantxo honetan euskal itzulpenak gure herriko komunikabideetan duen lekua aztertu nahi nuke, eta era berean dituen zailtasun edo lanak aipatu. Batez ere azken urteotako esperientzia hartzen dut kontuan, horretarako zenbait lagunekin mintzatu naizelarik, oso labur bada ere. *Julian Beloki* (Euskadi Irratia), *Jokin Aldazabal* (Donostiako Herri Irratia), *Mikel Atxaga* (Deia), *Xalbador Garmendia* (Egin), *Pello Zubiria* (Argia), *Jose Antonio Sarasola* (Galdakao Bikoizketa Etxea), eta ni ere mundu honetan nabilena (lehen Herri Irratian, orain Eresoinka Bikoizketa Etxean).

Euskal Herriko komunikabide guztiak ez badaude ere, uste dut nahiko azalpen zabala jasotzen dela horiekin, lantxo honetan eskaini nahi den lehen ikuspegi orokor baterako.

Prentsa

Eta besterik gabe, prentsatik has gintezke. Esan dezagun hasieratik, une honetan, euskarari hainbat leku eskaintzen dioten egunkarrietan ez dela zuzeneko itzulpenik argitaratzen. Esan nahi duguna da, kanpoko iturriak erabili behar badituzte

ere kazetariak, landutako artikuluak izaten direla, euskaraz landutako artikuluak alegia.

Garai batean izan zen bestelako joerarik, batez ere hasieratako **Egin** egunkarian. Langile taldetxo batek ordu ugari sartu zuten **Efetik** eta beste zenbait iturritatik iritsitako lanak euskaratzen, baita kazetari lankideek gaztelaniaz landutako artikuluak euskaraz ematen ere.

Baina gaur egun oso gutxi itzultzen da euskaraz zuzenean prentsan. Zenbait aldiz behar izaten da hala ere, berriemaileek edo elkarrizketatuek euskaraz ez dakitenean eta.

Dena den, itzulpen zuzenak egiten ez badira ere, euskal itzulpenari dagozkion zenbait zailtasun eta lan agertzen zaizkio oraindik prentsan euskaraz lan egiten duenari.

Denok dakigunez, era guztietako gaiak sartzen dira prentsan, arinxego edo sakonxego erabiliak izango badira ere. eta orain artean euskaraz ezer gutxi erabiltzen ziren gai eta estilo asko: politika, ekonomia, legeak, erreportaia, kazetaritzako estiloa bera orohar, eta abar. Presaka eta korrika ibili behar izan du euskal kazetariak euskara iristen ez zen zenbait hizkera-alorretan mugitzeko. Oraindik ere erosotasun osora iritsiak ez izan arren, azken urteotako ahaleginaren ondorioz, errazago dabil euskara lehen arrotz xamar zitzaizkion alor horietan.

Irratia

Irratira pasatuz, prentsaren antzeko zerbait aurkitzen dugu. Hemen ere kanpoko iturriak erabili behar izaten dituzte ugari, baina ez dira zuzenean itzultzen, landutako saioetan sartu baizik. Izan zuen garai bat **Herri Irratiak**, *Sei Orduetako* informazio-saio laburrak ematen zirenean orduoro, bi edo hiru lagun zuzenean itzultzen ibiltzen zirena, baina orain beste joera da nagusi irratietan ere: kanpoko iturriak saio landuetarako baliapide gertatzen dira.

Irratian ere egunean zehar gai guztiak azaltzen dira, baina prentsari buruz hitzegitean aipatu ditugunez gainera, badira hemen prentsan baino gehiago azaltzen direnak agian: kanpoko kantarien historia eta abestien letrak, ipuinak, poemak, etab. Itzulpen aldetik ere beharbada interesgarriago gerta daitezke hauek, kreaizio-lan gehiago eskatzen bait dute, nahiz eta

itzulpen izan. Dena den, salbuespen batzuk kanpo, ez dut uste irratietan ere lan gehiegi egiten denik alor horietan.

Euskal Telebista

Eta orain Euskal Telebista aipatu behar dugu. Hemen ere zuzeneko itzulpen gutxi egiten da. Besteetan bezala kanpoko iturrietan baliatu behar dute, baina landutako saioen barruan izaten da. Noski, Euskal Telebistaren jatorrizko programaketari buruz diogu hau, izan ere bestelakorik gertatzen da programaketa kanpotiarrari dagokionez, Euskal Telebistak sortu bait du euskal itzulpenaren gehikunde edo hazkunderik izugarriena azken bi urteotan, bikoizketa dela eta.

Gaur egun Galdakao eta Eresoinkan itzultzen da gehiena euskaraz, oker ez banago. Bataz beste, eguneko ehun foliotatik gora bikoizten da bi etxeotan, folio hauek normalean baino tar-te gehixeagorekin idazten badira ere, lana erosoago egitearren. Eta bikoizteak aurretik itzuli egin direla esan nahi du noski.

Batez ere ingelesetik itzultzen da, frantsesetik ere bai zerbait, eta gutxiago oraindik alemanera,italiera eta gaztelania-tik. Berrogei eta hamar itzultzailetatik gora ari dira lanean, adin guztietakoak, asko oso gazte hasi direlarik, eta gero eta hobeto ari direla esan behar.

Interesgarria da hemen nolako bilakaera duen itzulpenak zehazki azaltzea, oso desberdina bait da bikoizketa etxe batean ibiltzen den bidea, gainerako komunikabideekin alderaturik.

Lehenik testua itzultzerakoan pelikula ere ikusi egiten du itzultzaileak, testua eta esaten dena bat datozen jakiteko. Aldaketa guztiak kontuan hartuz, pelikulan datorrena itzultzen da noski, hori bikoiztu behar bait da. Nahiz eta gero itzulitako testua egokitzailarengana pasatzen den, itzultzaileak ere kontuan hartzen du, bere lana egitean, jatorrizkoaren pare samar ibiltzea neurri aldetik, testuaren luzeran edo zabaleran alegia.

Ondoren itzulitako testu hori egokitzaileri ematen zaio eta honek pelikulako pertsonaien aho-mugimendua eta kontuan hartuz egokitzen du testua: neurrian bat etorri behar dute pelikulan esaten denak eta testuak,bait da ezpainen mugimenduan ere, gero bikoizterakoan bat etor daitezen jatorrizkoa eta

euskal bertsoia. Artesau-lana dela esan daiteke egokitzailena, eta itzulpenaren ikusmiratik zenbait xehetasun eta ñabar-dura eransten dizkio honen lanak testuari.

Egokitzailak ez dio kasu gehigirik egiten jatorrizkotik euskarara egin den itzulpenari, berak euskal testuari begiratzen dio batez ere, eta egokitzen eta goxatzen ahalegintzen da. Nahiko libre jokutzen du, beraz, testu horrekin, behar diren aldaketa guztiak eginez, pertsonaien mugimendu eta hitzegiteko eraren arabera.

Argi ikus daitekeenez, egokitzailaren eskutatik pasa ondoren, euskal itzulpenak ez du hemen antz haundiegirik beste medioetan, argitaletxeetan eta, egiten den euskal itzulpenarekin. Bikoizketa-etxe hauetan, lehen itzulpen zehatz baten ondoren, bertso libre bat ateratzen dela esan daiteke zenbait aspektotan egokitzailaren eskuetatik.

Eta ondoren egokitzailagandik sortu den bertsoak ere izan ditzake beste zenbait ukitu aretoan bikoizterakoan. Hala ere aldaketarik nabarmenenak egokitzailari zor zaizkio, zalan-tzarik gabe.

Egokitzailak euskararen ezagupen sakon eta aberatsa behar du, izan ere itzulpenaren mamia gordez hitzen analogia eta sintaxiaren aldaketa asko jakin behar bait ditu lana ondo egiteko. Trebea eta bizkorra behar du izan egokitzailak hizkuntzaren ezagupenean eta erabileran.

Eta azkenik testu bikoiztua, alderantzizko bilakaeran, azpidatzi egiten da gaztelaniaz. Euskarazko bertsoia aurrean dutelarik egiten dute lan azpidazleek. Ez dute hitzez-hitzezko itzulpena egiten. Ahal den hitz gutxienetan saiatzun dira aditzera ematen mamia. Hauetxe ere gaztelania ongi menderatzea eskatzen zaie, ez bait da lan erraza izaten pelikula bateko isuri bizkorra hitz gutxitan biltzea.

Ikusten denez, nahiko bilakaera berezia izaten du ingelesezko edo beste edozein hizkuntzatarako testu jatorrizkoak bikoizketa-etxe batean.

Hemen ere, bestalde, era guztietako gaiak eta estiloak azaltzen dira: dramak, marrazki bizidunak, dokumentalak (zientifikoa, ohiturazkoak etab.), umorezko pelikulak, ipuinak, etab. Zailtasun eta lanak ere ugariak dira hemen. Arestian aipatutakoa gogora daiteke hemen ere. Euskara gehiegi sartu ez den alorretan egin behar lana eta sortzen edo erdi sortzen ahalgindu beharra dago. Espresio berri ugari ateratzen da hain

era desberdinetako pelikuletan eta euskaraz ere asmatu egin behar.

Ez dut uste alde honetatik xehetasun gehiegitan sartu beharrik dagoenik. Denok dakigunez, euskararentzat nahiko berririak dira bikoizketaren bidez zabaltzen zaizkigun zenbait giro, alor eta bide. Eta alde horretatik lan neketsua bezain zirikatzailea da hau.

Itzultzaileak eta egokitzaileak bere ahaleginak eta ardura osoa jartzen ditu euskara hitzeginari eta biziari hurbiltzeko, gaurko zine eta telebista-mundu horren erritmoan euskara ere sartzeko.

Laburtuz

Gure lantxo honetan, agian lotura gehiegi gabe, aipatu ditugunak nolabait ikuspegi zabalago batean biltzearen, azken gogoetatxo egin nahi nuke aipaturiko hiru komunikabideoi buruz, itzulpenaren aldetik.

Hiru komunikabideok badute bere berezitasuna, eta hizkeraren aldetik ere itzultzaileek kontuan hartu beharrekoa da berezitasun hori, bakoitza bere medioari egokitzea oso inportantea bait da, zalantzarik gabe.

Prentsak bere idazkera izaten du eta bere estiloa. Itzultzaileak ere kontuan izan beharko ditu prentsa idatziaren legeak eta kazetari-estiloaren ñabardurak. Irratian, berriz, hitzegina da inportantea, eta testu itzuliak oso kontuan izan beharko du hori. Hitzegiteko eran itzuli beharko da, idatziak ez duen bizitasun eta berotasunean alegia. Telebistarako itzulpenak, berriz, kontuan izan behar du irudiaren aurreko testua dela, hitz gutxiago behar duena alegia.

Guztionek, hain ximple badirudi ere, garrantzi handia du gure artean, izan ere ez bait dut uste oso ongi gordetzen ditugunik berezitasun horiek. Nik uste era eta tonu bereko testuak direla askotan hiru komunikabideotan ikusten edo entzuten ditugunak. Honekin ez dut esan nahi ez denik asko aurreratu azken urteotan, baina bada oraindik aurrerratu beharrik.

Hiru komunikabideotako berezitasunak zaintzeak on handia egingo dio bakoitzari, izugarri irabaziko bait du bizitasunean eta jendearen interesa sortzen.

Administrazioko itzulpengintza

Jose Ignazio Berasategi


Euskal Herriko Administrazioetan euskara txertatzeko egin diren ahaleginen artean itzultzaileak hartzea da beharbada oihartzunik zabalena izan duen ekintza. Itzultzaile horiengan ikusi du zenbaitek Administrazioa euskalduntzeko bide eta ernemuina eta Administrazioak euskaraz jaulkitzen dituen idazki gehienak berorien lanaren emaitzak dira.

Itzulpenari buruzko aldizkari berri honetarako Administrazioko itzulpenari buruz orri batzuk eskatu dizkirate eta hemen itzultzaile-itzulpen bikoteari lotuko natzaio bereziki, baina arazo orokorragoa den Administrazioa euskalduntzearen nahiz euskararen erabilpena bultzatzeko agiri paperetan elebitasuna zer eratan erabil eta agertu behar litzatekeenaren gaiari heldu gabe, lantxo honek muga eta helburu apalagoak bait ditu, eta itzultzailearen lana argitzeko beharrezko diren neurriari besterik ez ditut ikusiko.

Itzultzaileen sorrera, egoera, lana eta lanerako dituzten arazo nagusiak laburki aipatzera mugatuko naiz beraz eta aurreantzean arazo horiek sakonean jorratzeko aukera aski izango dugula aldizkari honetan uste dut.

Gai hauek ukitu aurrez ordea Administrazioaren euskalduntze-prozesuan itzultzailearen eginkizuna non kokatzen

dennire ustez agertu nahi nuke, gaur gaurkoz duena probisionala bait da nire ustez. Hasera batetan euskara Administrazioan sartzeko balio izan badu ere, aurrera begira bere lana murrizten joan behar luke Administrazioa euskalduntzen doan heinean. Ondoko irudian ikusi daiteke hori garbiago:



Administrazioiko itzultzaileen sorrera

Dakigun bezala, Administrazioak erdaraz ihardun du ia beti idatziz batipat. Euskaraz mintzatu arren zenbait bilera, elkarrizketa eta abarretan, idatziz eta Administrazioaren arlo formalenetan, gaztelania, frantsesa, eta batzuetan gaskoina izan dira bere hizkuntzak. Gizartean euskara nagusi izan deneko datu aipagarriren bat aipatzeko, latinaren ordeztelania edo hobeto, erromantzea, Administrazioak hartu zuen lehena Nafarroako Erreina izan zen Gaztela beraren aurretik.

Euskaraz ezer gutxi dugu; foruak, batzar-agiriak etabar, denak erdaraz daude. Euskarazko zertxobait agertzekotan, eta itzulpenaz ari garenez, Foru-garaiaren azken aldera Korrejido-reak Batzar Nagusien hasieran egin ohi zuten hitzaldia euskarara itzultzen zela esan dezakegu.

1936.eko "Eusko Araudia" edo Estatutua indarrean egon zenean eta, gerra ondorengo etenaren ondoren, azken urte hauetan hasten da sartzeko eta hedatzeko euskara Administrazioan, nahiz eta erdaraz izan oraindik laneko eta idatzizko hizkuntza kasik zeharo nagusia eta itzulpen lanaren fruitu izan euskarazko idazki ia guztiak.

Gizarte mailan euskararen erabilpenak dituen arazoak kontutan hartu gabe ere, Administrazioan euskara sarterko hiru arazo nagusi sortarazi ditu ofizialtasun ezak eta erdararen nagusigoak:

- 1) Administrazioan erabiltzeko egokitu gabe dago euskara eta administrazio-hizkerak dituen berezitasun eta zehaztasunak euskaraz emateko euskara bera asko landu beharrean dago.
- 2) Administrazioan diharduten langile gehienak erdaldunak edo euskaldun alfabetatu gabeak dira, eta gaztelania nahiz frantsesa da beren laneko hizkuntza. Administrazio maila apaleneko idazkiak ere euskaraz idatziz emateko gai ez dira, kasu bakar batzuk salbu.
- 3) Erdararen erabilpenaren ohituraz, euskaraz iharduteko ahalegin gutxi egiten da, nahiz eta zenbaitetan horretarako gai izan, "berezko" gauzatat agertzen bait da erdararen erabilpena.

Euskara sartzeko lehenik itzultzaileak kontratatzearen bi-deari heltzen diote erakundeek hirurogeitamarreko hamarkadaren azkenalditik honera. Administrazioaren alderdi formalenak -aktak, aginduak, errotuluak etabar-, euskaraz jarritzen lehenik, gizartean euskara normaltzeko eragin txikiena dutenak izan arren horiek bait dira Administrazioaren sinbolo nabarmenenak eta horietan euskara sartzea, sinbolikoki bederen, garapen bat zelako euskararentzat.

Ondoren, Administrazio barneko gauzak bakarrik ez, baizik eta funtzionariak euskara erabiltzeko gaitzeari eta Administrazioa eta herritarren arteko harremanak euskalduntzeari ematen zaio garrantzia eta herritarrei zuzendutako iragarriak, adierazpenak, oharrak, etabar euskalduntzeaz eta funtzionarien euskalduntze/alfabetatzeaz arduratuko da itzultzailea.

Azkenaldi honetan berriz beste urrats bat ere ageri da, Administrazioa euskalduntzeaz gain gizarte mailan ere euskararen erabilpena normaltzeko Administrazioak zeregin handia duela oharturik, joera bikoitza ageri da erakundeetan eta Udaletan batipat.

-Erakunde indartsuenetan, Herrialde eta Lurralde mailakoetan eta Udal euskaldun handienetan, Euskara-Zerbitzuak eratzen ari dira eta batzuk euskararen normal-

tzear arduratzen diren bitartean itzulketa bakarrik da gero eta gehiago itzultzailearen egitekoa.

- Honelako zerbitzuak eratu ez ditzaketen Udalek itzultailerik hartzen dutenean, itzulpenaz gain, euskararen suztapena ere gaineratzen diote, Udalean euskararen erabilpenaren dinamizatzaile izan dadin.

Hala ere, kasu bietan, Udal edo herritar guztiei eskainiko dio bere zerbitzua eta ez Administrazioari bakarrik. Eta itzulpenaz gainera zuzentzaile-eginkizunak ere bereganatuko ditu, ingurukoak euskara erabiltzera bultzatuaz eta horiek egina zuzenduz.

Lege esparrua

Bienbitartean Administrazioari maila honetan legeak ezarzen dizkion betebeharrak ere zehaztu dira zertxobait. Iparraldean euskarak ofizialtasunik ez duenez oraindik ez da ezer lortu. Nafarroan berriz Foruaren Hobekuntza Legeak ofizialtasuna aitortzen dio euskarari lurralde euskaldunetarako baina gero ez da ezer gehiago arautu hori bete dadin.

Alor hau gehien zehaztu eta arautu duena Euskal Herriko Herrialde Autonomiaduna da, Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legearen bidez.

Itzulpenari buruz baino gehiago Administrazioetako euskararen erabilpenaz eta balio ofizialaz hitzegiten da Lege horretan, eta Administrazioaren eta funtzionari gehienek ohizko laneko hizkuntza gaztelania denez, horrek itzulpengintzan duen zerikusia nabaria da.

Administrazioarekiko harremanetan -eta Administrazio guztiekiko harremanetan hain zuzen ere Herrialde, Lurralde nahiz Udal mailakoekikoetan- euskaraz nahiz gaztelaniaz baliatzeko eskubidea aitortzen zaie herritarrei eta Administrazio mota guztietarako da eskubide hau, Herrialde, Lurralde nahiz Udal mailako Administrazio denetarako;

7. eta 12. atalek berriz hiru betebeharrak ezartzen dizkiote Administrazioari:

7.3an, Agiripaperak erakusteko eta/edo horiekiko egiaztapen-agiriak egiteko, gaztelania nahiz euskarara itzulpena bermatuko dela adierazten da.

12.2an, Jaurlaritzak itzultzaile-zerbitzu ofiziala sortaraziko duela eta, itzulenen zehaztasuna eta legeko baliokideta-

sunak bermatzeko Autonomia-Elkarteko herritarren eta herri-eraundeen esku egongo dela esaten da.

12-1ek dio bi hizkuntzen arteko zinpeko itzultzaile-titulua lortzeko eta emateko baldintzak araupetuko dituela Jaurlaritzak.

7.3a Administrazio guztiei dagokie; 12.2a Jaurlaritzari baina horretarako dirubideak jarri ez dituenek oraindik eratu gabe dago 12.1 aipatzen den zinpeko itzultzaileen arazoari dagokionez ezer gutxi egin daiteke Konstituzio Auzitegiak bere esku dituen atalen arazoa erabaki arte indarririk gabe bait dago. 12.2a ere Konstituzio-Auzitegiara esku dago jarria 12.1 atalaz gainerako guztiak bezala indarrean dago.

Itzultzaileen hutsunea inon baino nabariagoa da berriz Justizia-Administrazioan, hemen ere euskararen ofizialtasuna aitortua eta arautua egon arren, ia ezer ez bait da egin euskara erabiltzen hasteko ere, ez itzultzaile bidez eta ez bestela.

Itzultzaileen banaketa eta egoera

Gaur egun 60 lagun inguru dira Administrazioan diharduten itzultzaileak, hau da, bere eginkizun nagusitzat Administrazioako gai berezien itzulketak dutenak, ondoko taulan agertzen diren arabera banatuak. Hemen ez ditugu sartu, euskara-zerbitzuetaoak izan arren Administrazio gaien itzulpenaren ardura zuzena ez dutenak, hala nola adibidez, hainbat Udal eta Erakundeetako Euskara-Zerbitzuetaoak lankide ez-itzultzaileak edo Hezkuntza edo Kultura-Sailetan itzulpenak egin arren, beren gaia zuzenki Administrazioa ez dutenak.

Guk dakigunez behintzat arlo honetan ezer gutxi egin da Iparraldean eta ez dago itzultzailearik Administrazioan. Nafarroan ere ez, bere eginkizun nagusia euskararako itzulpena duenik behintzat. Esan bezala, Foruaren Hobekuntza-Legeak lurralde euskaldunetarako euskararen ofizialtasuna ezarri arren, Nafarroako Diputazioak ez du itzultzailearik eta Parlamentuak noizean behin orduka kontratatzen du itzultzaile bat. Iruñeko Udalean euskara arduradun bat dago, baina bere egitekoa ez da itzulpena. Nafarroako Udal batzuetan, eskualde euskaldunetan zenbait agiri eta ohar itzultzen da eta

orduka hartutako itzultzailearen bat arduratzen da horretaz, baina besterik ez.

	Lanean	Lanpostua Betetzeke
Jaurlaritzan	8	2
Legebiltzarrean	3	4
Arabako Foru Aldundian	1	2
Bizkaiko Foru Aldundian	5	-
Gipuzkoako Foru Aldundian	2	4
Arabako Udaletan	1	2
Bizkaiko Udaletan	15	1
Gipuzkoako Udaletan	24	3
GUZTIRA	59	18

Elkarte Autonomiadun edo lurralde mailako erakundee-tatik at, Udal handienetan ari dira batipat itzultzaileak eta Udal txikiek, nahiz euskaldunak izan, ez dute itzultzailearik, eta sarritan arduradunak euskaldunak izan arren, ohituraz edo ezjakintasunez idatziz gaztelania erabiltzen denez; administrari laguntzaile bat, norbait orduka edo zinegotziren bat arduratzen da zenbait gauza, gutxi, euskaratzeaz.

Egoeraz eta lanez alde handia dago batzuetatik beteetara. Lehen esandakoaren arabera, itzultzaile soil dira asko; eta beste asko berriz, funtzionarioei euskara irakasteaz, Udalean euskararen erabilpena bultzatzeaz, euskaltegiak ala beste zenbait administrazio-lanez arduratzen dira itzulpenaz gain.

Udal txiki askotan, administrari edo administrari laguntzailearen bat da itzultzailea, eta Administrazio barruan dituen eginkizunetariko bat baizik ez da zenbait paper itzultea. Azkenik, zenbait Udaletan orduka itzultzen dituzte lehen aipatu ditugun administrazio paper formalenak, aktak batipat.

Itzultzaileen lan mailari dagokionez ere, ezberdintasun handiak daude eta itzulpen lanari ematen zaion garrantziaren

argigarri gerta daiteke zenbaitetan. Goimailakoak, hau da, 10-ekoak dira erakunde nagusietan, Jaurlaritzan, Legebiltzarrean eta Foru Aldundietako itzultzaile baten kasutan adibidez. Besteetan ordea, maila apalagoetan zehar aurkitzen ditugu: batzuek 8.ean, beste zenbait, gehienak beharbada 6.ean, eta azkenik, 4.ean ere bai, administrari laguntzaileen maila berean. Lanaren aldetik alde handia dago elkarren artean lehen esan dugunez, baina halere, oso nabariak dira alor honetan lan berberari ematen zaizkion tratamendu ezberdinak eta, orohar, ezin esan itzulpen-lanari legokiokeen maila onartuz Administrazioan diharduten beste teknikoaren parekidetza ematen zaionik.

Itzulpen lana

Itzulpen-lanik gehiena idatzizkoa da. Udalbatzarretan eta Legebiltzarrean egiten da gehienbat ahozko itzulpen edo interpretaritza baina itzulpen osoaren portzentaia txiki bat besterik ez du suposatzen. Legebiltzarrean eta bi edo hiru Udaletan ezik, ahozko itzulpena ez ba bapatekoa, hizlariarena bukatu ondoren egina baizik. Euskaratik gaztelaniara itzuli ohi da ia beti ahozkoan eta ez alderantziz, politikari erdaldunak uler dezaten euskaraz esana.

Idatzizkoan berriz gazteleratik euskararako da arras nagusi. Lehen esan bezala Administrazioko arau, erabaki, mezu nahiz adierazpenak bi hizkuntzetan ager daitezten itzultzen da, baina hori ez da beti horrela izaten eta maiz ikusi ohi ditugu erdara hutsean eginak.

Aldizkari Ofizialei dagokienez, euskaraz eta erdaraz argitaratzen dira Euskal Herriko Agintaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkariak eta laster lurraldeko Aldizkari Ofizialak elebiduntzeko lankidez eta tresnaz hornitzen ari dira Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Horrez gain, aipatutako erakunde horien eta Udal askotako dei, adierazpen, jakinerazpen, agindu, biltzar-agiri eta iragarriak ere bi hizkuntzatan agertzen dira, gaztelaniaz idatzi ondoren euskarara itzuliak ia beti, baina hala ere, itzulpen kopuru eta gaiari dagokionez ez da erakunde guztietan berdin jotzen. Administrazioetik kanporako guztia itzultzen da batzuetan, beste batzuetan berriz oso gutxi eta inolako erizpi-

derik gabe gainera. Zer eta zenbait itzuli erabakitzerakoan, nagusi edo agintariaren ariora geratzen da askotan. Zer itzuli erabakitzerakoan zalantza bat agertu ohi da maiz, biltzar-agiri edo aktak itzultzearena alegia, euskararen normalkuntzan eragin gutxikoak bait lirateke, baina bestalde, horiexek bait dira Administrazioaren sinbolo formalenak eta beraz euskara sartzekotan, horiek lirateké lehenik eta garrantzi handienaz itzultzekoak.

Nolanahi ere, kopuruz handituz eta alor berriak bereganatuz doa itzulpena. Adibide bat emateko, Administrazioen arteko (eta Administrazioio idazkien portzentaia handi bat biltzen da sail honetan) erdararekin batera ala gabe, euskararen erabilpena galdatzen du gero eta erakunde gehiagok eta bestela maiz erdara hutsean egin ohi iren idazki eta txosten tekniko askoren itzulpena dakar horrek.

Bestalde, adibide mailan bederen iragarkien sailean elebitasuna nola betetzen den ikustearren, joan den urrian hiru probintzietako egunkarietan argitaratu diren iragarki ofizialak zenbatu ditugu, iragarkia berdina zen ala ez egunkari batean eta bestean agertzen zena; hau da, iragarkiak zenbatu ditugu eta ez testu ezberdinak, beraz testu bat bera hiru edo lau bider hartua izan daiteke. Justizia-administrazioaren iragarkiak ez ditugu hauek guztiak gaztelania hutsean agertzen bait dira.

Hutsuneak nabarmenak dira baina hala ere kontutan hartu behar da sail bakoitzaren barnean egoera ezberdinak daudela: erakunde batzuek iragarkiak bakarrik egiten dituzte elebidun, beste batzuk horrekin batera beste zenbait agiri; beste batzuk azkenik kanporako idazki gehienak eta aldizkariak.

Itzultzaileak bere lanean aurkitzen dituen oztopoen argigarri zenbait hitzaldi aurki ditzake irakurleak oraintsu Herri-Ardurularitzaren Euskal Erakundeak argitaratu duen "Euskara eta Administrazioari buruzko I. Ihardunaldiak" liburuan eta Ihardunaldi horiek duela bi urte eginak izan arren, orduko arazoak bizi bizirik diraute oraindik.

Bost sailetan laburbilduko nituzke arazo nagusiak:

- 1) Zenbait kasutan, bere lanaren definizioerik ez du itzultzaileak. Aipatu dugun itzultzaileen egitekoen ezberdintasun eta aniztasunak bere lana barreiatzen du eta honek ez du inon ikusten bere lanaren emankortasunik, helburu

haundiak erdiesteko bitarteko, laguntza eta ahalbide gutxi aurkitzen bait du inguruan.

**1984.eko Urriko iragarki ofizialak
Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako egunkarietan**

	Euskaraz soilik	Euskaraz eta gaz- telaniaz	Gaztela- niaz soilik
Eusko Jaurlaritzaren eta bere erakundeak	4	15	23
Arabako Foru Aldundia eta bere erakundeak	-	-	5
Bizkaiko Foru Aldundia eta bere erakundeak	-	20	-
Gipuzkoako Foru Aldundia eta bere erakundeak	1	1	17
Arabako Udalenak	-	-	15
Bizkaiko Udalenak	2	20	44
Gipuzkoako Udalenak	6	26	29
Hiru Probintzietako beste zenbait erakundeak	-	1	6
Estatuaren erakundeak	-	-	13

Horrekin batera, hizkuntz-politika zehatz baten falta nabari da erakunde askotan. Hizkuntz-politika hori burutzeko zer eta zertarako itzuli behar den edo hizkuntz-politikan itzulpengintzak duen eginkizuna ez da zehazten. Euskara itzulia gehienetan erdarazkoarekin batera ematen denez, erdara irakurri ohi duten herritar gehienek euskaratzeak lukeen eraginkortasunaren zati haundi bat galduz eta itzultzaile etsituz.

Gainera, euskararen egoeraz eta erabilpen idatziaren arduratzen dena zenbaitetan itzultzea bakarrik denez, bere lanak zehaztu eta burutu ezinik aurkitzen du bere burua.

2) Bakarrik iharduten du lanean itzultzailea askotan, eta bakartasun hori arlo askotakoa gerta daiteke:

-Esan bezala, askotan itzultzailea da euskararen arazoaz arduratzen den bakarra bere erakundean eta ez du laguntzarik aurkitzen ez arduradun politikoen aldetik eta ez beste langileen aldetik. Euskaraz arduratzen den "pizti arraroa" da, eta, itzultzailea denez euskararen erabilpenaren arduraduna, beste guztiek erdaraz lasai jarrai dezakete.

-Itzulpen-lanean bakarrik dago eta sortzen zaizkion zailtza eta zailtasunak argitzeko nora jorik ez du. Oñatin, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundera zenbait lantalde eratu dira arazo hau bideratu nahirik eta elkarlanerako orri batzuk ere sortzekotan dira, baina oraindik asko dago egiteko alor honetan.

-Lanabes gutxi ditu itzultzaileak, hiztegi gutxiren -eta orokorrak gehienbat- eta norberak bere aldetik jasotako ohartxoan laguntza besterik ez du gehienetan itzultzaileak.

Alor honetan interesgarri gerta daiteke probintziako aldizkaria elebidundu nahieran Gipuzkoako Foru Aldundia informatika arloan urratzen ari den bidea. Izan ere testuen lanketan erabil daitezken tresna eta programez gain, hiztegia sartzen ari da bertan hitzak erabilgarritasun mailaz sailkatuz eta erabili erabilienak ere identifikatuz, itzulpengintza ahal bezainbat erraztu eta automatizatu nahieran.

3) Esan dugun bezala lan mailari dagokionez alde haundiak daude itzultzaileen artean. Konponbidean jarri beharreko arazo bat litzateke hau, orohar itzultzailea hizkuntza-alarreko teknikaritzat hartuz eta maila honetan guztiak bateratuaz. Maila honetarako legeak eskatzen duen ikasketatitulua arazoak egon litezke honetarako eta hau konpontzeko ere bideak aurkitu beharko dira.

4) Formazioz edo ikasketaz autoikasketa da beharbada itzultzailearen ezaugarri nabarmenena. Azken urte hauetan hasi badira ere heltzen Itzultzaile Eskolan ikasiak gehienak euskara arloan izan duten kezka eta arduraren ondorioz iritsi dira itzultzaile lanpostuetara, aurrez itzulpenarekin zerikusiz zuzen haundirik ukan gabe.

Itzulpengintzaren teoria eta teknikak sakonetik ez eza-
gutzea dakar horrek askotan, eta bigarren puntuan aipa-
tutako bakartasunarekin batera, sor laneko zailtasunak
areagotzen dira. Profesional eta teknikari maila onartze-
ko oztopoak jartzen ditu horrek eta konponbide izan dite-
keen zinpeko itzultzaile titulua lortzeko baldintzak laster
araupetuko direla espero da.

- 5) Administrazio-euskara behar adina landu gabe dago eta
etengabe lantzen, behin eta berriro saioak eginez ibili be-
harrean dago itzultzailea. Eguneroko itzulpen guztia bi-
dez euskarazko administrazio-hizkera zehazten ari da,
guztien lan eta orriei esker oinarriak jartzen eta korpus
bat sortzen ari da. Bide horretan bi joera nagusi ageri di-
ra baina horrez gain itzultzaile gehienek bietatik hartzen
dute aldi berean bere ekarpenak eginez. Prozesu horretan
ari da sortzen administrazio-hizkera.

Administrazio-idazki erabilienetan batasun apur bat bi-
deratzen ari da, hala nola eske-idazkietan, ziurtagirietan,
gutunetan... Joskera-arazoak larriak badira ere, hiztegia-
renak dira beharbada agerikoenak. Hitz erabilienetarako
ere batasunik ez dago maiz, aipaturiko bi joera nagusien
arteak bakarrik, bakoitzaren baitan ere baizik. Adibidez
"intervención" hitza euskaraz esateko "Kontularitza",
"Diru-arduralaritza", "Kontrolaritza", "Kontuhartzaila-
ritza", "Interbentzioa" eta "Artekaritza" hitzak jaso ditugu
zenbait Udaletako Ordaintzeko Agindu", "Ordain Agin-
du", "Ordainketa Agindu" edo "Ordainketa Agintzeetan".

Administrazio-euskararen hiztegi berezitu bakarra
UZEIren hiztegia da eta laster argitaratuko da baita ere
Legebiltzarreko eta Jaurlaritzako Aldizkarietan erabili-
tako hitzen bilduma. Hala ere, asko landu, sakondu, abe-
rastu eta bateratu beharreko lehen urratsak baizik ez di-
rateke eta, nahi ala ez, itzultzaile guztien egitekoa izango
da hori. Bide honetan, ez da ahaztu behar ez eta ere, gi-
zartearen alor gehienak ukitzen dituela Administrazioak
eta alor horietako hiztegien menpeko era badela, eta ho-
rietan euskara normaltzen doan heinean, administrazio-
euskara ere zehaztuz eta errazten joango dela.

Hiztegi arazoez gain, Administrazio-euskara eta hizke-
rari buruzko teoriako ikerketak eta itzulpenen azterketa
konparatuak falta zaizkigu alor hau kasik urratzen ere

hasi gabe dago eta, itzultzaileen zenbait arazoez nik hemen egin dudan azalpen arinaz haruntz joanez, sakonketarako aukera izango dugula aldizkari honetan derizkiot.

Argitaletxeak eta itzulpena

Imanol Tapia

- Literatura: - Poesia
 - Antzerkia
 - Ipuinak
 - Nobelak
 - Literatura beltza

-Haurrentzako ipuinak

-Gazteen literatura

-Komikiak

-Testugintza

-Gai teknikoak, entziklopediak etab.

Hauexek dira, orokorki hartuta, itzulpenari dagokionez, gaurdaino argitaletxeek landu dituzten liburu mota, eta, jakina itzultzaile batek lan bila joatekotan, hauetako alor batean jardun beharko luke.

Alorrez alor jarraituz, laburki bada ere, atal bakoitzean izan diren edo dauden beharrak adierazten saiatuko naiz.

Gai teknikoak, entziklopediak etab.

Alde honetatik ezer gutxi egin dela esan beharra dago, eta luzaro begira ere ez dirudi gehiegi egiteko asmorik dagoenik, eta hau bi arrazoirengatik nagusiki: alde batetik, saioak, na-

hiz erdaraz nahiz euskaraz, izugarritzko beherakada jasan zuen orain dela bizpahiru urte. Aurreragotik hain ugari landu ziren politika, historia, artea eta bestelako saio-motak oso urri dira gaur egun. Beste arrazoia zera da, argitaletxeek, nahiko berriak bait dira egun dihardutenak, gehiago sartu dira ikastolaren bidetik eta irakaskuntzako lehen mailetan eta hauentzako baliagarri diren liburu osagarrietan.

Entziklopediei dagokienez, itzuli izan da zenbait bilduma, baina aspaldian ere ez da horrelakorik argitaratu.

Testugintza

Egun, asko lantzen ari den alorra da, baina gehiena sortze mailan. Zenbait liburu itzuli izan badira ere, kontutan hartu beharra dago asignatura ugari dagoela euskal ikuspuntu batetik egin beharrekoa, hots geografia, historia, hizkuntza. Badaude, ordea, beste zenbait unibertsalak direnak, zientziaren alorrekoak gehienbat, eta lehen aipatutako asignaturen zenbait atal, munduko geografia, munduaren historia etab. Azken kasu hauetan sarritan egin beharko dira itzulpenak eta batiptat goiko mailetan eta Unibertsitaterako testuetan. Esan beharra dago ere, euskal irakaskuntza-munduak merkatu bat eskaintzen badu, Estatuko zenbait argitaletxe euskarazko testuak argitaratuko dituztela, bai bait dira dagoeneko liburu bat edo bestean sartu direnak, eta hauek itzulpen zuzena ez denean, gehienez ere heuren erdal testuen moldapen bat egingo dutela.

Komikiak

Hauxe da egundaino gehiegi landu ez bada ere, arrakasta handia ikusten zaion mundua. Asterix eta Obelixen komikiak izan ziren lehen itzulita ikusi genituenak. Gaur egun hor dago Erein argitaletxearen produkzio osoa, gehiena sortua bada ere, Elkar argitaletxeak plazaratutako Tintin eta Miluren lehen bi liburuak, bi kasu hauek besterik ez aipatzeagatik.

Gazteentzako literatura

Alor hau da hain zuzen ere gehiena zuzpertz izan dena azken urteotan, eta gehienbat itzulpen aldetik lortu izan dela

esango nuke. Maila honetan, **Mensajero** argitaletxearen Kimu saila izan zen abiatu zen lehena. Itzulpen aldetik, klasi-koak izan ziren gehienbat argitaratutakoak, Verne, Melville etab. Ondoren, **Hordago**-ren Tximista saila eta **Elkar**-en Itzul sailean eman zioten jarraipena, egun bilduma bakoitzak berrogeitahamarren bat ale argitaratuak dituela. Aitortu beharra dago itzulpen hauetatik zenbait egokipenak zirela eta sarrri, jatorrizko hizkuntzatik eginak izan ezik, espainieratik itzuliak zeudela, halakoa zen, izan ere, itzultzaile eskasia, eta, jakina, are gehiago ingelesetik edo frantsesetik itzultzeko. Dena den, nire ustez izugarri hobetu da esperientzia hauekin itzulpenaren kalitatea, eta zenbait jende trebatzeko ere balio izan du.

Dena den, bada Estatuko zenbait argitaletxe, eta batipat liburuxkak koloretan direnean, heuren liburuak lau hizkuntzetan, hots, espainieraz, katalanez, euskaraz eta galizieraz, argitaratzen dituztenak. Horra **Argos-Vergara** argitaletxea "Herensuge gorria" izeneko bilduman eta **Altea** bere gazte-txoentzako bilduman, adibide gisa.

Haurrentzako ipuinak

Hauxe duzu, nire ustetan, atalik interesgarriena, eta seguruaski itzultzaile gehienek helburutzat jotzen duen lana. Baina beraxe da ere zailena eta jatorrizko hizkuntza ondo eta sakon ezagutzea eskatzen duena. Horregatik artikulua honen heldadurarik handiena alderdi honi eskainiko diogu.

Itzulpenak, eta batipat itzulpen literarioak, hiru baldintza eskatzen ditu nagusiki:

- Jatorrizko hizkuntza eta itzuli nahi den egilea eta bere obra maila guztietan, estilistikan, joskeran, hizkuntza kategorian, erritmoan, lexikoan, sakonki ezagutzea.
- Euskara, gure kasuan itzulpenaren lan-tresna, maila berean ezagutzea.
- Eta hirugarrena, besteak bezain garrantzitsua, iturburuko kodigotik helburuko kodigora egokiro pasatzen jakitea.

Eta hiru baldintza hauek bai teorian eta bai praktikan menderatu behar dira.

Niri, itzulpen esperientziak zerbait erakutsi badit, hauxe izan da: idazleak artista behar badu izan, itzulpen lana artesau on baten lana dela. Artistak orri zuri bat besterik ez bait dauka aurrean lanean hasteko, eta etorririk, gairik ez badauka ez du zer esanik izango. Itzultzaileak aldiz, alboan dauka gaia eta kodigo batetik bestera pasatzeko erreflexuak eta trebetasunak eguneroko lan disziplinatuekin besterik ez zaizkio etorriko, nahiz eta izugarritzko teorien jabe izan. Eta Euskal Herrian, horregatik, itzultzaile eskasia izugarria dago, ezer gutxi itzuli delako orain arte, eta ez dago beraz itzulpenean luzaro jardun duen ia inor.

Bestalde, euskal itzulpen literarioak egiten hasi nahi duenak izugarritzko oztopoak aurkituko ditu hasiera honetan, eta hamaika arrazoi badago hau esplikatzeko.

Euskara aintzinatik baserriko hizkuntza izan da, eta horrek ez du esan nahi industri giro batean bakarrik gelditu denik atzeratuta. Bere eskutan nobela klasikoren bat itzultzeko hartu duen pertsona, berehala konturatu da lehen aipatutako giro horretatik kanpo geratzen den maila guztietan dagoela murriztuta. Adibide gisa, korteko hizkuntza, piraten hizkuntza, beste hizkuntza kategoria askoren artean.

Beraz, ez bakarrik sakontze lana, baizik eta sarritan ikerketa lana egin beharko du itzultzaileak lexiko mailan, edozein motatako itzulpenetan, eta ez ditu nahiko izango egun argitaratuak dauden hiztegiak hutsune hori konpontzeko.

Eta lexiko-arazoa latza baldin bada, zer esan joskera edo sintaxiarenaz, geure inguruko hizkuntza guztiekin konparatuz hain kontrakoa den gure sintaxi honena, eta maila honetan ere itzultzaileak ikerlana egin beharrean aurkituko du bere burua eta errekurtsio berri ugari somatu beharko ditu maiz sarritan orijinaleko erritmoa eta puntuazioa ez haus-tearren:

Ez da beraz lan makala itzultzaileek hemendik aurrera literatura munduan egin beharrekoa. Eta ikasteko edo konparatzeko hain dira gutxi ondo itzulitako liburuak... Baina era berean funtsezko lana da, egin beharreko lan eskerga. Errusian orain urte asko ez dela mendebaldeko literaturarekin egin zuten bezala, euskaldunok hain gutxi izanik ere literatura unibertsalaren funtsezko obrak itzuli beharrean gara geure hizkuntzaren maila gaur egun gailen daudenen mailara igo nahi badugu.

Azken esaldi honetan dago kakoa, hain zuzen ere, zeren badirudi dirulaguntzak ematen dituzten arduradunak ez direla arazo honetaz gehiegi jabetu. Dena den, badirudi orain dela zenbait urte **Lur** eta bestelako editorialek emandako urratsak baduela gaur egun ere jarraipena. Hor daude, kasu konkre-tuak aipatzeko, **Elkar** argitaletxea orain dela urtebete hasiera emandako literatura kolekzioan zenbait itzulpen argitaratu dira dagoeneko. **Hordago** argitaletxeak ere poesia bilduma bat plazaratu zuen iazko Durangoko ferian. Gipuzkoako Foru Aldundiak ere subentzionatu zuen liburu mordoska baten itzulpenak nahiz eta oraindik argitaratzeke egon. Aurten Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntzetan, horietako bi, milioi erdi pezetatakoak itzulpenarentzat izan dira.

Hauxe da, beraz, atalez atal, argitaletxe aldetik ikusten den egoera.

Eta irakurleari honetatik bizitzeko aukera izango duen edo ez galdera bururatzen bazaio, erantzun beharra dago gaur egun itzulpenaren alor guztietara jo beharko duela, hots, euskal telebista, ipuinak, liburu bat edo beste, gai teknikoak etab. baina etorkizuna ez dela hain gordina, zeren eta itzulpena nahiz sorketa euskal irakurlegoa handitzen doan neurrian ugaldutako eta aberastuko bait da. Eta egia da euskal irakurlegoa, mila arrazoiri esker, handituz doala. Guztion onerako, hala bedi!

Hizkuntz ikaskuntza eta itzulpen zerbitzua

J. Naberan

(AEK-ren didaktika taldekoa)

1. Itzulpen Zerbitzua, euskara ikaskuntzan laguntzaile

Jakina da itzulpenak lehenaldian izan duen garrantzia hizkuntz irakaskuntzan, metodo "direktoak" sortu aurretik.

Euskararen kasuan ere, "Euskalduntzen" metodoa sortu aurretik, erdara euskaratzea eta euskara erdaratzea zen ikasbi-dearen oinarritzat hartutakoa.

Gero, "bigarren hizkuntza" ikasteko "metodo zuzenen" eraginez, itzulpena baztertua izan da edota historiaren pendulu-kolpez txakurzulora bidalia.

Gaur egun, ordea, "hurbilpen komunikatiboan" oinarritutako ikaskuntza atzoko "tabu" batzu zapuzten ari da, eta badi-rudi itzulpenari ere bere garrantzia emango zaiola.

Ez oraingoan ikaskuntzaren ardatz bezala¹, baina bai komunikazio behar horrek sortutako eginbehar interesgarri bezala.

(1) Kendu gabe inola ere itzulpenean gertatzen den hizkuntz-sistemen arteko jokia eta oposaketa aproposa izan daitekela lortu nahi den hizkuntzaz jabetzeko ere.

Adibide gisa, "hirigintza" gaiaren inguruan mugituz, hiri-gintza eta lur-plangintzari buruzko informazioa lortzea bada ikastaldeak planteaturiko ekintza komunikatiboa eta txosten edo dokumentu ofizialak aztertzea eta taldean eztabaidatzea baletor hizkuntz ekintza moduan, zer interesgarriago dokumentu horien itzulpenak egitea baino?

Hemen letorke itzulpen eredu eta tresnen beharrezana. Edozein gai eta komunikazio barrutiri dagozkion ereduak eta hauek lantzeko bitartekoak eskaintzea euskara ikasten edota lantzen ari direnentzat.

Ez dakit zehazki nola baina bai Itzultzaile Eskola hurreratu beharko litzatekeela bere zerbitzua irakaslegora zabalduz.

AEK-ko irakaslegoaren kasuan bere Berziklatze Ikastaroen bidez izan daiteke, zeinetan 500 irakasle inguruk parte hartzen bait du Euskal Herri mailakoetan eta beste hainbatek eskualde mailan urtero antolaturikoetan.

Honetaz aparte, itzulpen tekniko-didaktikoaren arazoa dago. Hizkuntz ikaskuntzaren materialari dagokionez asko da ingelesetik, frantsesetik etabar interesatzen zaiguna. Honi buruz ere guztiz komenigarria deritzot, kasu, AEK-ren Didaktika Zerbitzuko eta Itzulpen Zerbitzukoen arteko harremanari.

2. Itzulpen Zerbitzua, euskara-"ikasbiderako" argigarri

Honako honi deritzot "ikasbidea": ikastaldeak eta ikasle bakoak hartzen duen biderei hizkuntzaren lorpenerako.

Ez da, beraz, irakasleak ezarritako "metodoa", baizik eta ikasle bakoitzak hartu ohi duen metodo propioa hizkuntzara iristeko.

Lehenago, "estimulua-erantzuna-errefortzua" teoriari jarraituz, bide *bat* programatzen genuen ikaslearentzat eta bide horretatik ateratzen zena "akatsetan" erortzen zen, nola edo hala (baina berehala) zuzendu beharreko errakuntza edo akatsetan. Ezbehartzat hartzen ziren akats "madarikatueta".

Gainera uste genuen akatsen iturria ama-hizkuntza eta 2. hizkuntzaren arteko "interferentzia" zela edozein kasutan ere.

Interferentziarena hor dagoelarik ere, bada "akatsen" beste iturririk eta hauxe da gaur egun azpimarratzen dena: 2. hizkuntzaren barrenetik bertatik, 2. hizkuntzaren ikas prozesutik bertatik datozen "akatsak" oso garrantzizkoak ditugula.

Dena dela "akatsok" zorionekoak dira, ez bait dira besterik hizkuntza lortzeko bakoitzak hartu ohi dituen bidexkak baino. Irakaslearen lana honetan datzake: ikaslea bidexka hauetatik bide nagusira gidatzean, hain zuzen.

Guzti honekin honetara nator: bai 2. hizkuntzaren beraren dinamikak baita ama hizkuntzaren interferentziak eragindako bidexka hauek zeintzu diren tipifikatzea, noiz eta nola ematen diren kontrolatzea... egingabeko lan bat dela. Eginbeharrekoa, halere, euskararen ikasbidea ikertzeko, ikasprozesuaren urratsak definitzeko, eta honen arabera helburuak finkatu, programazio egokiak proposatu etabar egiteko.

Ez baita serioa gaur egun oraindik egiten dena: hizkuntz egituren ordenamenduari deitzea "programazioa", aurreko guztian oinarritu gabe etxea teilatutik hasiz.

Egia da, bestalde, ikasle bakoitzak bere berea duen bidea hartzen duela baina badira "konstante" batzu, esperientzia bilketa batek egiaztatzen dituenak edozein hizkuntzaren kasuan.

Konstante hauetxek lirateke zehaztu beharrekoak euskararen kasuan ere eta, ondorioz, tratamendu egokiz erantzun beharrekoak.

Puntu honetan uste dut nik eskua luza diezaiekeela elkarri euskara irakaskuntzaren esperientziak, linguistikak eta itzulpen teori tresnek: euskara-erdaren arteko estudio kontrastiboa gauzatzean, "erdarismoak" detektatu eta euskal ereduera itzultzean, eredu hauekin euskara ikasbiderako giltzadura eginez joatean, denau ikasprozesu barruan urratsez-urrats antolatzean etabar...

3. Itzulpen Zerbitzua, euskararen normalizazioaren eragile.

Batetik, X. Mendigurenek planteatzen duena azken Jakinen:

"Euskararen kasuan, berriz, oraindik beste hizkuntzen homologazio-maila lortu ez delarik, itzultzaileak erizpide linguistiko are helduagoak eta eginagoak behar dituela dirudi, itzulpenak hizkuntz normalizapenean duen eragin bereziarengatik.

Agian, gure kasuan, "Linguistika Aplikatuzko Itzulpeneko Institutu (LAI) baten forma hartu beharko luke Itzultzaile

Eskolak eta harreman estuak mantenduko lituzke dagozkion fakultateekin”.

Bestetik, honekin lotuta badago ere, bada zerbait euskararen kasuan denon ahalegina eskatzen duena: euskararen sinkretismoa, erdararantz duen joera eutsi ezinetik datorren "euskaranto" famatua, alegia. Bai jatorrizko euskaldunen belaunaldi berrietan gertatzen den murriztasunean eta dekadentzian azaltzen delarik, baita euskaldun berrien euskara degradatuan.

Euskarak kontrako duen egoera diglosikoaren kontua dugu hau. Gutxi erabilia den hizkuntzari zorri guztiak bizkarrera.

Euskararen sinkretismo honi galga jartzeko hizkuntz erizpide helduak, itzulpen-eredu jatorrak..., nahitanahiezkotitu gu, bai, baina barruti akademikotik plazaratzen diren neurrian bakarrik eragile.

Hauxe esan nahi dut, ematen den euskararen erabilpenean interbenitzeko, erabilpena bera gehitzeko, jendea euskaraz espresatzera motibatuzeko... indar handiak mugitu behar direla. Edonolako "zerbitzuak" kalearen gain-gainean eskaini behar direla, euskara irakaskuntzaren kasuan irakasleekin batera jokatzu, ikastaldean bertan intzidituz, etabar.

Planteamendu akademiko hutsak ez dute indarririk euskara dagoen zuloatik ateratzeko eta Itzultzaile Eskolak ere eskola horma hautsiak erakutsi behar dituzte euskararen normalizapenean eragile izan nahi badu.

AEK jipointutik adibidez nahiko zail mugi gaituzke Itzultzaile Eskolarantz, Eskolak berak gureganantz zirkinik ez bala egingo. Mahoma eta Mendiarena dago hemen ere.

Itzulpen poetikoa Errusian

Sergej F. Gončarenko

Ispanskaja poezija v russkich perevodach, 936-953 or.

(Poetičeskij perevod v Rossi) Moskva, 1978.

Sarritan esan izan da –eta arrazoiz gainera– itzulpenari buruzko abiaburuak gaurko literaturaren orientazio estetikoeko lotura estuan garatzen direla, eta eskola poetiko nagusiaren aldaketak bertsozko itzulpenari buruzko kontzepzioaren berrikusketa jakin bat ekarri ohi duela.

Hala eta guzti ere, itzulpen abiaburuen bilakaera testuinguru estetiko eta literarioan ezezik, sozial eta historikoan ere aztertu behar dela azpimarkatzea garrantzizkoagoa izan daiteke, agian, kontuan hartuz garai jakin batetako itzulpen artea zeintzu helburu jakinetara orientatzen zen.

Honela, adibidez, jakina da joan den mendeko bigarren hamarkadara arte, poeta-itzultzaileak finkaturik zeukala bere jomuga estrategikoa jatorrizkoa une hartako nazio literaturaren premietara egokitzen, edukin berriz hornituz, ordura arte esperimentatu gabeko gai eta formaz aberastuz eta errusiar poesia europar poesiaren abangoardia bihurtuz.

Bestalde, material arrotzaren egokitze hau suharki egiten zen, baina arreta handienaz ere bai aldi berean, irakurle goaren baitan erortzen ari ziren gústoekiko ardura atergabez, eta haren gogoia betetzeko gupidagabeki egokitzen ziren sorkari arrotzak gure ohituretara. Estetika klasizistaren hondar-eraginez ezezik (gogoan har bedi gure erromantiko handiena

den V. Žukovskijren lana) gure poesiak XVIII.ean eta XIX.aren haseran bizi zuen lehen aldi heltzaka haren jatortasun eraginez ere ulertzen da gertaera hura. Agian, itzulpenak erabat errusiartzeaz aparte ez zegoen beste biderik, "egokipen aktibora" orientaturik (Fedoroven hitzak erabiltzeko), oraindik ez bait zen posible errusiar poesia eta idazlea mundu literaturaren gailurtzat ezaguterazterik.

Bitartean, itzulpen egintzari helburu hauxe azpimarkatzen zitzaion eta sarritan itzulpenak jatorrizko adierazpenarekiko gehiegizko korrespondentziarik izan ez zezan berariazko aha-lerinak egiten ziren.

Gerora, 1841.ean, hara zer idatzi zuen Belinskijk, garai hartako itzulpen poetikoaren ordezkari nabarmenena zen U.A., Žukovskijri buruz: "Hura sortu arte gure poesia erabat edukiz gabeturik zegoen, zeren eta gure antolamendu hiritar gaztea eta jaioberriak ezin bait zezakeen egiaz nazio-izpirituaren kabuz giza baliotasun unibertsalezko inolako edukinik sortetaz poesiari zegokionean".

Gure poesiarako osagaiak European barrena biltzera beharturik geunden eta geure lurrera birlandatzerara. Hauxe izan zen Žukovskijren egintza miresgarria, zeini erraza gertatzen bait zitzaion bere dohai bereziengatik, gure gustoetara kanturik ederrenak itzulpen bikainetan egokitzea. Barne zirrarok eragiten ditu zein poesi mundu murriz eta hutsetik eraman zuen gure literatura halako mundu bete eta mugagabe batetara pentsatze soilak, eta bere itzulpenen bidez nolako mamiz aberastu zuen!"

Belinskijk ongi baino hobeki ulertzen zuen nola Žukovskijk "itzuli ezezik berreraikitzen zuen, pasarte jakinetan besterena plagiaturik eta "bereko konposizioetan" tartekatuz (A. Puškinen "Lan Osoak", 1843). Eta lau urte geroago, Belinskijk beste bi aldiz azpimarkatuko du *usvoit'* (asimilatu, ekandu) aditzaren aurkitze aproposa Žukovskijren obraz ari delarik. "Bere itzulpenen bitartez, Schiller eta Byronen obrarik gailenentariko batzu ekandu zituen errusiar literaturara. Esan dezagun ekandu egin zituela, zeren haren itzulpenek itzulpen baino areago ematen bait dute jatorrizko obra". (L.O.X., 156 or.).

Hala ta guzti ere, hamar-hogei urteren buruan, errusiar poesia sendotu eta nagusitu ezezik, oraindainokoa inoiz gaintu ez diren erpinak lortzeraino iritsi zen. Eta baldin eta Errusian "Puškin bera arte... itzulpenezko literatura jatorriz-

koa baino askoz garrantzitsuagoa bazen ere, aurrerantzean postu apalagoaren jabe izan da, nahiz eta garrantzi handikoa izan aurrekoarekin konparatuz gero.

Itzulpen "ekandutzaileak" bere eginbeharra bete zuen eta hil egin behar zuen. Bapateko aldaketa gertatzen da itzulpen literarioaren helburu eta metodoen alorrean, aurreko joerei bagagozkie, "gure gustoetara egokitzea" jadanik ez da eragile, balazta baizik interpretazio poetikoaren arterako. "Itzultzaileari -dio Puškinek- gero eta leialtasun handiagoa eta publikoarenganako txera eta ardura txikiagoa eskatzen da; Dante, Shakespeare eta Cervantes berezko itxurapean, eta bakoitzaren nazio jantzitan ikusi nahi dira (Milton eta Chateaubriandek egindako "Paradisu Galduaren" itzulpenaz, 1836).

Berregituratze honen prozesua denboraldi batez luzatu zen eta 1844. urte aldera, V.G. Belinskijk polemikatan sartu behar izan zuen "jatorrizko pentsamenduez jabetu, gogokoa ez dena baztertu eta gogoak ematen duena erantsiz, nork bere erara kontatzearen" adiskideekin. Hala ere, adierazgarria gertatzen da nola itzulpen zuzendu eta errusiartuen baimengarritasunaren ideia soilak garai berriotan gure kritikoa haserre bizi-tan jartzen duen". Oraindainokoa literatura arrotzeko obrak argitaratzeko erabiltzen genituen metodoek gauzak desitxuratzeko bazituzten, adibidez literatura ingelesaz edo frantsesaz idearik ez izateaz aparte, ondorioz Ingalaterraz edo Frantzi-az ere ez genuen idearik, beraz era berean gure oraingo literatura ere halakoa izango non ez bait zukeen literatura izena ere mereziko". Hazkuntza erraldoi baten aurrez-aurre aurkitzen den itzultzaileari, eginkizun ezohi bat sortzen zaio eskatzen dion ausardiarengatik: mundu guztiko poesia errusieraz berreraikitzea, baina autoreari eta jatorrizkoaren naziotasunari dagozkie ezaugarri bereziak mantenduz.

Zehazki hitz egin nahi izanez gero, hain zuzen ere hemendik hasten da itzulpenari buruzko teoria eta praktika. Lehenengo eta behin, baliokidetasun semantiko eta estilistikozko eskakizunak planteaiatu ziren, eta batzutan guztiz polemika giroan formulatuak izan ziren. Bestalde, aurreko garaietako itzultzaileen disziplinarik ezak sekulako haserrearekin sortera-zi zituelarik, ez da harritzekoa mutur batetatik bestera pasatuz litera-lismo semantiko eta estilistikoaren hatzaparretan erortzea. "Ez ezazu autoreak itzul eta baldin itzultzen baduzu makur za-kizkio eta bat egin zaitez haren burua eta ideekin" -go-

mendatzen zuen 20. urteetan Vjazemskijk eta berak erakutsi zuen lehenengoz "itzulpen menderaturako" jarraipidea, zeinetan jatorrizkoarekiko "hitzen simetriazko desbideratze hutsak" ere "zentzuaren berezkotasunaren aurkako aldakuntzak" bait ziren.

Hala ere, esan beharrekoa da, errusiar poesia itzuliaren hasieratik beretik —edo gutxienez, beronen teorian—, oro har, leialtasun formalaren arazoarekiko harreman dialektiko osasungarria zen gailen. Esate baterako, Pavel Kateninek, zeinek pentsatzen bait zuen "bertsoak inoiz ezin zitezkeela prosaz ordezkatu" eta oro har "forma ez dela zerbait hautazkoa, obraren izpirituari kalterik egin gabe alda daitekeena" (Argitaratzaileari gutuna, 1822) biziki protestatzen zuen Tassoren zortzi-koak bertso alexandriarrez itzuli zirelako. Garai hartan ez zen zortziko italiarrak literalki kopiatzearen aldekoa, baizik eta konpromezuzko irtenbide baten bila zebilen "italiarren antzeko zortziko bat sortzen ahaleginduz, haren nortasunari eutsiz eta aldi berean, gure bertso-gintzaren arauetara moldatuz". Ez du garrantzi handiegirik hark proposaturiko zortziko errusiarren eredia emankortasun handikoa ez gertatzea —garrantzizkoa metodoa bera da, non oinarritzen bait da osoki gaurregune-ko "kidetasun funtzionalaren" abiaburua (G. Sengelen arabera).

Errusiar literaturak eskuzabalki zuzendu ditu bere indar poetikoak itzulpengintzara eta, haatik, autore arrotzen itzulpen ugariak gorabehera, "poesia unibertuala" errusiar hizkuntzaz sortzeko asmoa ez dela garatu arte mailan uste izan da: itzulpen artea, oro har, oraindik ez da iritsi eginkizun horrek eskatzen duen mailara.

Interpretazio poetiko gehienek izaera literario-kulturala areago zuten estetikoa baino; itzulpena "leiala" eta itzultzailea "zintzoa" izan zitezen edozein jatorrizko testu hobetzeko beharrezko oroitzea eskakizun zentzuzkoa zen (inola ere ez zegoen aldatzerik). Baina eritzi hau erabat okerra da. Bistan dago bertsoetan egindako itzulpen batek ezin ditzakeela jatorrizkoaren osagai guztiak berreman, zeinek ezin errepikatuzko xarma eransten bait diote eta hura poesia izatea lortzen bait dute; eta itzultzaile "zintzoak" uste izaten du, bere testuan ongi sartzen ez diren jatorrizkoaren egitura formaleko xehetasun guztiak baztertzea dela hoberena, edota azken finean, haien ordez klitxe poetiko ugari ezartzea atzitik, ez dakiola Jainkoari nahi,

bere indibidualtasun sortzailea adierazten du, autorearen nortasuna desitxuratuz eta mendean hartuz. Ondorioz, bizi-tasunez beteriko poesiaren ordez ez da harritzekoa huskeria ziztrin sail rimatu bat eskuratzea, ez buruari eta ez bihotzari ezer esaten ez diotelarik. Baina argudiozko poesia bada itzulpen "leialaren" helburua ezagupidezkoa izango da, sorkuntza lirikoaren izatea baliogabetzea besterik ez du egingo.

Arazoaren traatamendu dialektikoak nahitaezkoak diren kenketak eta eransketak berauen dintasun poetikoz originalak eakaintzen dituen xehetasunen baliokide leial izatea eskatzen du, eta honetara ez litzateke egilearen kontzepzio estetiko desegingo, baizik eta beronen izpiritua osoki garatuko litzateke eta osoki berregiten lagunduko luke, baina tratamendu hau ezezaguna zen garai hartako itzultzaile profesional gehienentzat. Egokitasunez hitz eginez, itzultzaile gutxi zegoela esan behar da, nahiz eta Puskinen garaiarekin eta errusiar poesiaren aurreko aldiarekin konparatuz gero berauen kopurua etengabe haziz joan eta gainera, itzultzaile profesionalen artean literaturgile sonatuak ere izan: M. Michajlov, S. Min, L. Mej, K. Pavlova, P. Vejnberg.

Errusiar itzultzaile eta kritikarien lan zaharrak berrirakurritik ikusten da beraien orrialdeetan -nahiz eta gehienbat sakabanaturik- daudela gaur egun bateratuki itzulpen literarioaren kontzepzio estrukturala osatzen duten osagai guztiak. Hona hemen larriki osagai horiek. Edozein testu poetikori hiru alderditatik begiratu behar zaio: *semantikotik* (zer esaten den), *estilistikotik* (nola esaten den) eta *pragmatikotik* (esanak nolako eragina duen irakurlearengan). Jatorrizkoaren hiru alderdiok birsortu beharrekoak dira itzultzean, baina ez da komeni (ezina da) erabateko zehaztasunez aldatzea.

Hiru alderdi hauetako edozein absolutizatzeak literalismo moeta jakin batetara eramaten du: *semantikora* (itzulpen literaletan gehienbat gertatzen dena), *estilistikora* (beste hitz batzutan "itzulpen formalismoa" deritzana, non jatorrizkoaren bigarren mailako berezitasun estilistikoak xeheki aldatzeak ondorio orokorra desegiten duen) edo *pragmatikora* ("geure gustotara makurrerazi"). Beste nolabait esateko, itzulpen poetikoa jatorrizkoari erlazio semantikoan soilik (edo estilistikoan, pragmatikoan) egokitzetik ez da uste izan behar orokorki egokitzen eman daitekeenik. "*Baliokidetasun prag-*

matiko, semantiko eta estilistikozko emaitza optimo bezala defini daiteke baliokidetasun orokorra (A.P. Švejer, 1971, 16).

Jatorrizkoaren izaeraren arabera, holako edo halako baliokidetasun partzialek jarrera menderatzailea hartzen du: argi dago "poesia zientifikoaren" edo lirika filosofikoaren itzulpenean baliokidetasun semantikozko eskakizunak handigoak izango direla poema sinboliko bat itzultzerakoan baino. Hala ere, jatorrizkoaren propietateak ez dute beren kabu soilez baliokidetasunezko moeta partzialen ponderagarritasuna aurre-determinatzen; zati handi bat itzultzaileak berak izendatu duen helburu jakinari loturik dago, eta bereziki, itzulpena hartuko duen irakurlearen izaeragatik. Ez da kasuala "**Chudozestvennaja Literatura**", "**Nauka**" edo "**Detgiz**" bezalako argialetxeek irakurle moeta guztiz desberdinak izatea, eta poesia itzultzerakoan eskakizun oso desberdinak egitea. honela, bada, eguneko aztergaien artean, bertsozko itzulpenean inbariante semantiko, estilistiko edo pragmatikoaren lehen-tasunari buruzko auzi abstraktoa sortzen da: eztabaidagarria da zer logikaz eta nolako trebetasunez darraikion itzultzailea hautaturiko metodoari, azken batez, kasu jakin batetan halako metodoa zenbateraino dagokien jatorrizkoaren berezitasunei eta gizarte eskabide konkretuari.

Kontzepzio hau aditzera eman zelarik, beronen abiapuntuko postulatuak gehienbat lan kritiko-literariotan eskaini ziren lehendabizikoz, eta hizkuntzalariei esker gero eta era zehatza-goz formulatu. Honek ez du ezer esan nahi literatur kritikaren desohoretan: itzulpenari buruzko teoria *orokor* bat, literatur testuez soilik ezezik berbaldiaren (diskurtsuaren) edozein sorkariz arduratzen den eta horretarako terminologia zehatza-goa eta demostrazio aparailu zorrotzagoa duen zientzia batek bakarrik lant zezakeen eta landu behar zuen. Bestalde, hizkuntz metodoek ez dute batere konkretatzen uzten "errealitate orokorrari buruzko orientazio" hau, poesiaren itzulpenari dagokionez eremu hau erabat literatur zientziaren menpean geratzen da.

Baina honek ez du esan nahi komenigarria ez denik analisi linguistikoa erabiltzea itzulpenak planteiatzen dituen arazo partzialak konpontzeko.

Baina goazen berriro errusiar itzulpen poetikoaren aita-lehen direnen eritzietara. Esan dugunez, gaurreguneko itzulpen zientziaren ia tesis guztiak aurki daitezke beraien-

gan, eta honetaz jabetzeko aski da beraien baieztapenak gaurko eskolaren oinarritzko abiaburuekin konparatzea.

- 1.- Bertsoa, normalki, bertsoz itzuli behar da; beraz, itzul-tzailearen obrak jatorrizko poetarenaren kide izan behar du. *"Itzultzaileak izenez bakarrik izan behar du berezi egilearekiko"* (V. Žukovskij, 1810). *"Prosaz, nahiz eta prosa onez, ordezkaturako bertsoa hil egiten da"* (V. Brjusov, 1905).
- 2.- Bertsoaren itzulpenaz denaz bezanbatean, hitz zehaztasuna ez da leialtasun erizpide, aitzitik baizik, arte obra den itzulpena desegiten du eta horregatik kontragindurik dago. *"Hitzez-hitzezko itzulpena inoiz ezin daitete leiala izan"* (A. Puškin, 1836). *"Batzutan aldendu egin behar da jatorrizkoaren hitzetatik, hain zuzen ere, hartatik hurbilago egotearren"* (N. Gogol, 1834). *"Jatorrizkoarekiko leialtasuna ez datza letra ematean, izpiritua baizik"*. (V. Belinskij, 1838).
- 3.- Hizkuntza desberdinetan forma berak adierazi pragmatiko desberdinak izan litzake; horregatik, jatorrizkoaren berezitasun formal guztiak birsortu nahi izateak (literalismo estilistikoak) kalte egiten dio pertzepziozko baliokidetasunari (baliokidetasun pragmatikoari). Bestalde, itzulpen lirikoan, jatorrizkoak eragin duen inpresioa birsortzearen arazoa planteiatzen zaio gehienbat itzultzaileari.
"Hizkuntza bakoitzak bere berezitasunak ditu: grekoz, agian, espondeoek xarma bereziren bat bide dute, baina errusierari desegoki eta arrotz zaizkio" (V. Kapnist, 1813). *"Ez dut uste hitza itzultzea komeni denik, ezta pentsamendua ere – inpresioa da itzuli behar dena. Nahitaezkoa da hori itzulpenaren irakurlea jatorrizkoaren irakurlearen lekuan jar dadin eta itzulpenak nerbio berberei eragin diezaien"* (Tolstoj, 1867).
- 4.- Poesiaren itzulpen hitzez-hitzezkoak, "formalak" bezala, duen izateko arrazoi bakarra helburu utilitarioa edo xede guztiz espezializatuaren jabe izatea da.
"Goetheren obra guztiak prosaz emango dira errusieraz... honelaxe itzuli behar dira... idazle hau aztergaitzat geure herkideei eskaini nahi badiegu" (N. Plevoj, 1842). *"Txalogarri deritzagu Dante bertsoz ez (horretarako izuga-*

rrizko doaa beharko lirateke) baina prosaz itzultzeko itzultzaileak duen asmoari, non kualitatetik nabariena leialtasun eta benetasun literala bait da, errusiar hizkuntza bortxatu gabe eta estiloaren zulentasun eta jarioari kalterik egin gabe, itzulpen horretan, jatorrizkoa **en regard delarik**, are arrazoizkoagoa da (V. Belinskij, 1843). "Haren itzulpena ez gindoazen ederraren bila, baizik eta testuarekiko leialtasun eta hurbiltasun handiagoa nabaritzen genuen... Jakina, edozein irakurlek ez du izango ez aukerarik eta ez gogorik ene zerrenda nahi batetan jatorrizkoaren kalitatea dastatzeko; aitzitik, ordea, literaturgileek (!) leialago eritziko diote, harira ez datozen eta itzultzaileak bere kabuz egin dituen ahaleginen distrakziarik gabe" (P. Vjazemskij, 1827).

- 5.- Baliokidetasuna (leialtasuna, zehaztasuna) dialektikoki ulertu behar da eta ez literaltasunaren ikuspuntutik. Gainera, itzultzaileak duen azken helburuaren arabera, baliokidetasun semantiko, estilistiko eta pragmatikozko erlazioa alda daiteke. "... G. Fet-ek eginahalak egiten ditu bere itzulpenaren jatorrizkoarekiko leialtasunari eusten. Nola ulertzen du, ordea, leialtasun hori? Aha! legin guztiak egiten ditu leialtasun **literalari** eusten eta bost oinetako janboak asmatzen... Gainerako guztiak ez diola axolarik ematen du" (D. Michajlovskij, 1859). "Literatur zentzurik eta ulermenik ez dutenak soilik ahalegintzen dira itzulpenean leialtasun literala lortzen... Jatorrizkoarekiko kanpo leialtasuna inpersonal bihurtzen du itzulpena" (D. Mianev, 1869). "Itzulpen **poetikoak** ezezik (Belinskijren esamoldean itzulpen **poetikoaren** kontzeptuak librea denaren eta herritartzen denaren eza-gupideak adierazten ditu) itzulpen **literarioak** ere badi-ra... Itzulpen literarioak ez du onartzen eransketarik, kenketarik eta aldakuntzarik Obrak akatsak baldin baditu - dauden-daudenean berreman behar dira" (V. Belinskij, 1838). Itzulpen "poetikoaren" egileari dagokionez, hartzailego zabalago batentzako baldin bada, Belinskijren eritziz, komentariarik gabe uler ezin daitekeen guztia, idazlearen garaiari soilik dagokiona, hitz batez, erraz ulertzeko ikasketa espezializatuak eskatzen dituen oro ken daitekeena ezezik kendu beharrekoa da Zerbait esan nahi du P. Vjazemskij berak itzulpen poe-

tikoaren literaltasunaren lehen defendatzaile arrazoi-tuetarikoak izanik ere, egokipen libre edo "ez-dependienteei" izateko eskubiderik ez ukatzeak. "*Bi itzultze metodo daude: ezdependiente bata, menpekoa bestea. Lehen metodoa distiranteagoa, bigarrena neketsuagoa; nik neuk bigarren honi heldu diot*" (1829).

- 6.- Itzulpen poetikoak derrigorrez eskatzen ditu jatorrizkoaren osagaietariko askoren funtsezko eraldakuntzak. "*Forma edo frase jakin bat leialtasunez berreman ahal izateko, batzutan itzulpenak aldakuntza sakona eskatzen du. Forma eta frase erantzukideak ez dira beti hitzen begibistako korrespondentzia batean bat etortzen*" (V. Belinskij (1838).

XVIII eta XIX mendeetako literaturgileen artikulu eta iruzkinetan, oraindik askozaz itzultze metodo berezia-goak ere aurkitu zuten oinarria. Hona hemen alehunka adibide posibleren artetik bi aletxo:

- a) Itzulpenean "*baliokidetasun suprasegmentala*" burutzen da, non jatorrizkoaren zertzelada nabarmenena, ez berez dagokion lekuan baizik eta beste batetan birsortzen bait da, gutxiasko aldendurik.

"*Homeroren hitzak osotasunean harturik, hitz bakarra eranstera ere ez naiz ausartzen, baina bertsorako batzutan hitz bat Homeroren baitan aurkitzen den beste hitz bat trukatu ohi dut*" (N. Gnedič, 1825).

- b) Gogoeta pragmatikoetatik abiatuz gero, korrespondentzia lexikal osoetara jo gabe beste zatikako batzutarra jo daiteke, eta berauetan oinarriturik antzekotasunerako, albokidetasunerako eta lanerako pausoa eman daiteke.

Gaurregungo tratadista berrienei segika bezala, Anakreonteren Oda itzultzean egindako ordezkapen lexikalei buruz hara zer dioen A. Kantemirek: "*Grekoz kissor dio, guretzat ezezaguna den belarra; lupulua ezagunagoa zaigu eta ez dio indarrik kentzen egilearen estiloari*" (1736).

Itzulpenari buruzko ikuspuntu desberdinok bateratzeko ez zegoela neke handirik hartu beharrik esan liteke, bakoitza errespetagarriena izanik ere. Baina aipaturiko formulazioek gaur egun lortu duten oihartzunak ez gaitu iritzi okerretara

bultzatu behar. Ez dezagun ahantz guztiak kontzepzio desberdin eta uztar gaitzen adierazpen zirela, zeinek sarritan idea politiko eta estetikoan antagonismoa isladatzen bait zuten, eta ez zegoen arrazoizko edukin batetara bil zitzakeen indar bate-ratzailerik.

Bistan dago, gure garai hauek ongien hartzen duten itzulpenari buruzko jarrera, Belinskij bezalako idazle handiena da, eta beraren ondoren etorri ziren Dobroljubov, Černysevskij, Michajlov eta abar bezalakoena, zeinek ahalik eta zehaztasunik handiena eskatzen bait zioten itzulpenari, *"hizkuntza ez zekitenentzat jatorrizkoaren ahal bezain ordezeko egokia"* gerta zedin eta aldi berean benetako poesi obra izan, bigarren mailako eta jatortasunik gabeko izakera baten premiarik gabe. Dena besarkatzeko moduko itzulpen teoria bat sortzeko, gure garai honi dagokionez, iraganeko lan teoriko trinkoenek ere zituzten kontraesan guztiez gabetua, denbora luzea eta ahalegin sortzaile ugari behar izan da. Arazbak konpontzeko orduak sobietarren aroan soilik jo du, duen garrantziarengatik gobernu bera itzulpen literarioaz arduratu denean.

X. Mendigurenek errusieratik euskaratua

Heriotza iragarritako baten kronika edo euskal itzultzailearen beldurrak¹

Begoña del Teso

Hasteko, beti esan behar duguna, tamalez, **Heriotza iragarritako** baten kronikak badu meritua. Zein? Existitzearena. Garmendia ausarta izan da Márquez euskaratzean.

Esanak esan, Hamleten galdera geratzen zaigu, onargarria al da horrelako obrak goratzea euskaraz daudelako, existitzen direlako bakar bakarrik? Nik ezetz esango nuke. Nere ustez, **Kronikak**, ausardiaz aparte, ez du meriturik. Badakit erraza dela hori esaten kritikoaren besaulki erosotik, erronka bat dela itzultzea, ados, ni ez nintzateke ausartuko "**Crónica de una muerte...**" itzultzen, ume gorria izan da itzulpen munduan, errespetoa diet izen handiei eta hori da, hain zuzen Xalbadorri falta izan zaiona. Márquezen mundu magikoan, liburua irakurtzeke sartu da eta **El Paíseko** Marquezen hiztegiari buruzko artikulua bat izan du laguntzaile bakarra.

Ez pentsa lotuta nagoenik itzultzaile idealaren irudiari; aspaldian hautsi zitzaidan eta badakit aukeratutakoak eta hoberenak bakarrik dutela idazlearekiko elkarrizketetara eta behar diren hiztegi guztietara iristeko aukera, baina badakit ere Márquez ez dela itzultzen bakar bakarrik espedientea beteagatik.

Gogorregi ari naizela? Baliteke, baina nola ez aritu horrela, euskarazko Kronika eta erderazkoa irakurri ondoren bi liburur desberdin irakurri dituzula sentitzen baduzu?

Frogak? Orena: euskarazko bertsioan, Santiagoren ama hil egiten zaigu, edo hobeto esanda, Xalbadorrek hiltzen digu:

"Kardaminaren haziak murtzikatzeko zegoen ohitura kaltegarriaz jorik hil zen"

Jatorrizkoan bizirik jarraitzen du, dudarik gabe:

"Sucumbió a la perniciosa costumbre de su tiempo de comer pipas de cardamina"

Entzuna genuen "Traduttore Traditore" esaldi famatua, "Itzultzaile, hiltzaile" berria da guztiz.

Zer pasatzen da Xalbadorren itzulpenean? Argi eta garbi agertzen direla oraindik ere euskal itzultzailearen ohizko beldurrak: sintaxia, hiztegia, erlatiboa, interpretazioaren beldurra. Ematen du sintaxia ez dela sekula flexible izango eta horrela itzulpen guztietan, historiaren fokoa galtzen da eta sorburuan garrantzizko diren gauzak ezkutatuturik geratzen dira euskarazko testuan:

"Tenía una reputación muy bien ganada de intérprete certera de los sueños ajenos siempre que se los contarán en ayunas"

"Baldin eta barau gorrian kontatzen bazitzaizkion, besteren ametsen adierazle zorrotza zelako fama eta aipu ongi merezia zuen"

Hiztegia beste monstruo bat da-euskal itzultzailearentzat. Bi gauza pentsatzen dira: euskara ez dela gai erderak adierazten duena adierazteko eta euskal irakurleak ez duela ulertuko euskaraz, gaztelaniaz hain ongi ulertzen duena. Bi trauma hauek, interpretazio txarrera eta euskarari gutxi eskatzera bultzatzen gaitu. Adibidez, Garmendiak bi hitz erabiliko ditu euskarazkoak konbenzitzen ez duenean:

- **"Lo matamos a conciencia"**
"Jakinarean gainean, kontzientziaz hil genuen"
- **"Arabes enardecidos"**
"Arabiarrak su ta gar amorru bizian"

- **"Inocentes"**
"Inozente errugabeak"
- **"Carácter"**
"Izate jite"

Interpretazio batzu lekuz kanpo daude, eta badirudi euskal baliabide linguistikoen aurrean itzultzailearen mesfidantza edo agertzen dutela:

- **"Impávidos"**
"Lehen bezain zutik"
- **"Fue mi maestra de lágrimas"**
"Maistra malko txukatzailea"
- **"Pasó de largo"**
"Kasorik gabe"
- **"Ventana apagada"**
"Argirik gabeko leihoa"

Interpretazioa berez, errekurtsio guztiz onargarria da, baina arazoa da noiz erabili jakitea eta ondo interpretatzea.

Maileguari diogun beldurra kentzen hasi zaigu baina interresgarria da ikustea nola salbatu duen Garmendiak hiru mailegu segidan erabiltzeko beharra:

- "Despertó con un sedimento de estribo de cobre en el paladar"**
"Aho sapaian kobrezko estriboaren sedimentu lirdinga"

Euskara ez bortxatzeagatik batzuetan egundoko galera estilistikoa gertatzen da:

- "Exhaustos por el bárbaro trabajo de la muerte"**
"Hilketak suposatu zuen lan ankerra"

Erlatiboari aurkitu beharko diogu irtenbidea, bestela horren beldur biziko da beti itzultzailea. Irteera bat izan liteke jakitea zer dagoen sakonean, batzuetan kausalak, beste batzuetan denborazkoak edota koordinatuak eta ez uko egin klasisikoeek emandako soluzioari: *non...n; nondik...n*. Edozein irteera bai, eskakeatzeak izan ezik:

"Cristo Bedoya, con quien estaba de acuerdo para encontrarse más tarde, se despidió..."

"Cristo Bedoyak, biek elkarrekin geroago portuan elkartze-ko erabakirik zuten, eman zion azken adioa"

Liburuan zehar agertzen dira itzulpen arazoak baina, tamalez, soluzionatu gabe larrienetako bat maila estilistikoa ez errespetatzea. Zergatik saiatzen da Xalbador Márquezen estilo kolokiala jasotzen? Zergatik eraisten du batzuetan estilo literarioa?

"Donde apenas empezaban a abrir algunos expedios"

"Non orduantxe zenbaiska hasirik zen saltokiak zabaltzen"

"Hicieron mucho más de lo que era imaginable"

"Ezin eta gehiago saiatu ziren"

Batzuetan maila aldaketa izugarria gertatzen da:

"No se le ocurrió nada más que..."

"Zer egingo ote?"

Sail honetan sar genezake onomatopeiaren erabilpena, galera estilistiko ikaragarria sortzen bait du:

"Dando tumbos"

"Zilipurdika dingilin dangolo"

"Espontánea respuesta"

"Tipus tapa erantzun"

Euskal languntzaileari diogun beldurra lakonismora eramaten gaitu askotan; euskal ahozko literaturak ez du laguntzailea gehiegi erabiltzen baina irteera hori ezin da hartu arautzat liburu bat itzultzean; astuntasunetik libratzen da testua baina lehor xamar eta askotan ulergaitza ere gertatzen :

"Perseguidos de cerca por..."

"... segika atzetik"

"Después de que la hermana les reveló el nombre"

"Arrebak izena ezaguterazi ondotik"

"Luego se quitaron las chaquetas de paño, las colgaron... y pidieron otra botella"

"Ehunezko jakak erantzi zituzten, aulki bizkarrean utzi, botella bat eskatu..."

"No se dió prisa por uno más"

"Ze bat gehiago goiti beheti axola gutti hari"

Bukatzeko, **Kronikak** merezi zuen egin zitzaion ongi etorrria, beste saio bat bait zen euskal itzulpenean baina baita ere erakusten digu ondo baino hobeto itzultzaileen beldurrik handienek bizi bizirik eta soluzionatzeke jarraitzen dutela.

Xalbadorren ausardia Márquez itzultzean ez dut dudatan jartzen, ez dut esango, gezur borobila bait litzateke, errekursorik ez duenik, alderantziz, dituen guztiak obra horretan agertzen dira, baina argi dago ez duela izan kemena beldur horiei aurpegi emateko.

(1) GARCIA MARQUEZ, G. Heriotza iragarritako baten kronika. Sendoa. Donostia, 1982.

IRUZKINAK

Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea

BABEL

Itzultzaileen Federakunde Nazioartekoak argitaratua, UNESCO-ren babespean. Itzulpenari buruzko arazo nagusiak erabiltzen ditu. Itzulpenaren arazo praktiko, linguistiko eta profesionalei buruz argitaratzen diren liburuen ikuspegi orokorra eskainiz, hogeita hemeretzi itzulpen talde nazionalen organo ofiziala da eta munduan erregulariki itzulpen alorrean, sortzen diren hiztegi, glosario eta lan espezializatuei buruzko kritikak, eskaintzen dituen aldizkaria.

Argitaratzailea: F.I.T.

Ondoren aurtengo ekaineko alearen aurkibidea jaso dugu:

BABEL

Revue Internationale de la Traduction
Organe trimestriel d'information et de recherche
dans le domaine de la traduction

International Journal of Translation
Quarterly Journal devoted to information and research
in the field of translation

Vol. XXX N. 3/1984

Sommaire - Contents

Trente années: In Memoriam Pierre-François Caillé

Articles

MARIA FLEMING TYMOCZKO: Translating Old Irish, A Perspective on Translation Theory.

EDNA APHEK-YISHAI TOBIN: The Place of "Place" in a Text from Agnon, On the Untranslatability of Metaphor and Polysemy in Modern Hebrew.

MICHAEL JASENAK: Search for the Untranslated, Bibliographic Research by Translators.

Le monde de la traduction - The World of Translation

La Vie de la FIT - The Life of FIT

Les Organes de la FIT - The Organs of FIT.

Nouvelles de la FIT - News of FIT.

Revues et bulletins des sociétés membres de la FIT - Reviews and Newsletters of FIT member societies.

Climats de la traduction: faits et chiffres - Climates of Translation: facts and figures.

Collection UNESCO d'œuvres représentatives - UNESCO Collection of Representative Works.

Informations bibliographiques et lexicographiques - Bibliographical and lexicographical information.

Terminologie - Terminology.

Forum

Nos auteurs - Our authors

META

Journal des Traducteurs
Translators' Journal

Organe d'information et de recherche dans les domaines de la
traduction,
de la terminologie et de l'interprétation

Montréal, septembre 1984
META-Vol. 29, n.3, p. 229-335

Sommaire - Contents

A Thing-bound Approach to the Practice and Teaching of Technical Translation.

L'exemple de Plaute.

Le problème de l'intertextualité dans la traduction littéraire: l'exemple de Beckett.

Poésie: le sens en effet.

Etude d'un translème.

Problèmes culturels de la traduction d'*Alice in Wonderland* en français.

Etudes Terminologiques et Linguistiques

Calques et créations linguistiques.

La recherche terminologique dans la traduction scientifique et technique japonais-français: une synthèse.

Etude terminologique des scies manuelles (IV).

Société - association - compagnie - corporation..

Marginal.

Courrier des lecteurs.

Documentation

Bibliographie

Comptes rendus

Block-Notes

Nit Orchard, Pickers Wanted

Qu'est-ce qu'une bonne traduction?

EACROTANAL

Utilisation du Science Citation

Index en traduction

MULTILINGUA

Batzorde europarraren babesean argitaratua eta nazioarteko komite baten gidaritzapean egina delarik, disziplina arteko aldizkari honek era askotako lanak eskaintzen ditu, hizkuntza desberdinen arteko komunikazioaren alorrean; hizkuntza arteko hesia gainditzeko eta hizkuntz desberdintasunen alderdi onak sendotzeko, gehienbat erabiltzen dituen gaiak honako hauek dira: hizkuntz politika, informazioa eta dokumentazioaren alderdi eleanitzak eta mintzaira espezializatuak, itzulpena -gizabidezkoa eta makinabidezkoa- adierazletza, lexikografia, hizkuntz irakaskuntza eta terminologia.

Nazioarteko komunikaziorako aldizkaria, eta gomendagarria, irakasle, itzultzaile, adierazle, argitaratzaile, hizkuntza makinekin edota liburuekin lantzen dutenentzat, era berean politikari eta enpresarientzat...

MULTILINGUA

Sous les Auspices de la Commission
des Communautés Européennes
Under the Auspices of the Commission
of the European Communities.
Unter der Schirmherrschaft der Kommission
der Europäischen Gemeinschaften.

Multilingua, Journal de la Communication Interlangues

... le trait d'union entre les institutions et les citoyens intéressés para le multilinguisme, qu'il s'agisse des enseignants, des traducteurs ou des interprètes, des informaticiens, des éditeurs, des bibliothécaires, des hommes d'affaires ou des politiciens.

Multilingua, Journal of Interlanguage Communication

... the interface between the institutions and the members of the public who are interested in multilingualism, be they teachers, translators or interpreters, computer experts, publishers or librarians, businessmen or politicians.

Multilingua, Zeitschrift für Zwischensprachliche Verständigung

... das Bindeglied zwischen den an der Mehrsprachigkeit interessierten Institutionen und den Bürgern, seien es Lehrkräfte. Übersetzer oder Dolmetscher, Informatiker, Verleger, Bibliothekare. Geschäftsleute oder Politiker.

Multilingua, Rivista della Comunicazione Tra Lingue

... il collegamento tra le istituzioni e cittadini interessati al multilinguismo, che si tratti di insegnanti, di traduttori o di interpreti, di operatori dell'informatica, di editori, di bibliotecari, di uomini d'affari o politici.

Multilingua, Tijdschrift voor Kommunikatie Tussen Talen

... de band tussen de instellingen en diegenen die voor meertaligheid belangstelling hebben, of dat nu leraren, vertalers of tolker, informatica-deskundigen, uitgevers, bibliothecarissen, zakenlieden of politici zijn.

Multilingua, Tidsskrift for Interlingval Kommunikation

... bindeleddet mellem institutionerne og de borgere, som berøres af flersprogethed, sisom lærere, oversættere og tolke, edb-folk, forlæggere, bibliotekarer, forretningsfolk og politikere.

Rédacteur/Editor/Herausgeber:

J.C. SAGER

UMIST, PO Box 88

Manchester M60 1QD. GB

Abonnements/Subscriptions(1984):

WALTER DE GRUYTER - CO.

Postfach 110240

D-1000 Berlin 11, BRD

DM 55.- Particuliers*

DM114.- Collectivités

M 31.- Le numéro

*Gilt nicht in der BRD, der Schweiz, oder ÖSTERREICH.

SOCIETE FRANÇAISE DES TRADUCTEURS

**Syndicat National des Traducteurs Littéraires,
Techniques, Jurés, Militaires, de Presse, etc.**

Fondé en 1947 Affilié à la F.I.T.

Présidents d'honneur

Agnès Doniol - Jean Maillot

Comité d'honneur

Mmes. Dominique Aury

Daria Olivier

Marie Tadié

Marguerite Yourcenar,

(de l'Académie Française)

MM. Pierre Agron

Georges Darbelnet

Georges Dumézil,

de l'Académie Française

Maurice Gravier

Alain Guillermou

Vladimir Kourganoff

Dr. Pierre Lépine

J.F. Loloum

René Marchand

Guido Meister

Georges Mounin

Dr. A. Sliosberg

Confédération des travailleurs intellectuels de France
1, rue de Courcelles - 75008 Paris
C.C.P. Paris 9728-01 Y

TRADUIRE

**Révue Française de la Traduction
Information Linguistique et Culturelle**

Abonnement 1984, y compris l'Annuaire S.F.T.:
110 F (France)

Membre actif de la S.F.T.: 85 F.

Rédaction et administration:

C.T.I., 1, rue de Courcelles - 75008 PARIS
C.C.P. Paris n. 9728-01 Y.

N. 121 Octobre 84/III

Sommaire

Dixième congrès de la F.I.T., Vienne, 17-23 août 1984 (compte rendu de Florence Herbulot).

Le français des apprentis traducteurs: l'exemple des étudiants de l'INALCO (Daniel Gile).

Troisième congrès de l'Union des Traducteurs de Bulgarie (compte rendu de Jean Maillot).

La rue des Couretes (Agnès Doniol).

New York-Paris: A la French (Jeannine Sandrini-Cooke).

Un, deux, trois: l'art difficile de compter (Philippe-Roger Mantoux).

Enquête de la Commission Salariés: erratum.

Nous avons lu pour vous (David Lord, Philippe Callé, Jean Maillot).

Ouvrages reçus (Jean Maillot).

Et si nous parlions un peu du français? (Agnès Doniol).

Revue des revues (Jean Maillot).

La vie de la S.F.T.

La vie des associations:

F.I.T. (Maurice Voituriez).

A.T.L.F.

Rédacteur en chef: Denise Baccara.

CONTRASTES

Revue de l'Association
pour le Developpement des Etudes Contrastives

Comité de Patronage

H. Adamcewski - M. Cling - A. Culioli - I. Fonagy - R. Gsell - L.M. Lobato
Alvarez

B. Malmberg - J. Perrot - B. Pottier - D. Séléskovitch - H.V. Sephiha - J.M.
Zemb

Comité de Rédaction

G. Kassai - A.M. Loffler-Laurian - M. Tukia

Correspondance

A.D.E.C. - 99 boulevard Saint-Michel - 75005 Paris

N. 8 Mai 1984

Sommaire

Présentation.

L. KUPFERMAN - Paramètres lexicaux et analyse contrastive.

L. NYEKI - Le statut linguistique des proverbes.

E. PIETRI - A.C. d'A.E., Analyse contrastive d'analyse d'erreurs.

B.K. T'SOU - Triglossie et réalignement sociolinguistique.

V. de GILA-KOCHANOWSKI - La romani et l'indoaryen: mythes et réalité.

S. BERENYI - Quelques problèmes relatifs à la traduction en français de textes économiques hongrois.

Comptes rendus.

Ouvrages et articles reçus.

Colloques.

Thèses.

Courrier des lecteurs.

CUADERNOS DE TRADUCCION E INTERPRETACION QUADERNS DE TRADUCCIO I INTERPRETACIO

3

E.U.T.I.

Escuela Universitaria de Traductores e Intérpretes
Universidad Autónoma de Barcelona
Bellaterra, 1983

Indice

DOSSIER: Enseñanza de las lenguas y de la traducción.

An English "Imitation" of Rimbaud: An Exercise in Comparative Translation, *Amalia Rodríguez Monroy*, p. 7.

Los cursos de lengua materna como preparación a la traducción y a la interpretación, *M.N. Maleve y J.P. Martín*, p. 23.

Para un diagnóstico de errores fonemáticos y prosódicos en alumnos de francés, *Claude Mestreit y M. Dolores Poch Olivé*, p. 33.

Reflexions entorn a la utilització del vídeo a l'aula d'anglès, *Ramón Ribé i Queralt*, p. 51.

«Lo estructuro-global: de una globalidad real a la globalidad virtual por la noción de "diferencia"», *J. J. Van Vlasselaer*, p. 71.

Algunas consideraciones sobre la enseñanza del árabe, *Robert Benda*, p. 79.

Sobre la enseñanza de la traducción del ruso, *Natalia Novosilov y Natacha Paños*, p. 87.

ARTICULOS

Transluciferación, *Haroldo de Campos*, p. 99.

La práctica de la traducción *Spanking the maid*, de Robert Cover, *Juan Antonio Mosilver Ródenas*, p. 105.

Mallarmé en castellano. (Por una metodología de la traducción poética), *Teodoro Sáez Hermosilla*, p. 123.

Seixanta poemes trobadorescos dels segles XII i XIII en versió catalana, *Alfred Badia*, p. 131.

Significació literal, significació social i traducció (a propòsit d'un fragment de la *Iliada*). *Joan A. Argente*, p. 135.

La adaptaciòn de tecnicismos lingüísticos, *Santiago Alcoba Rueda*, p. 143.

Oharra:

Azken alerik jaso ez badugu ere, 3.aleko aurkibidea eskaintzen dugu. Katalanek ale honetan hizkuntz irakaskuntza eta itzulpenaren arteko arazoak aztertu dituzte.

Landareen eta animalien izenak

Martxel Aizpurua
(UZEIko lankidea)

Ez da gaur goizeko lana orain dela gutxi UZEIk argitaratu duen liburu honen abiapuntua. Abiapuntua 1974 inguruan kokatu behar da, *Natur Zientziak Hiztegia* (Jakin, 1976) egiten hasi ginen garaietan. Lan hura zela eta, garai haietan argitaratuak zeuden entziklopedia, testuliburu, etab. irakurtzen hasi ginen, lehendik zer zegoen egina jakin nahiean. Fitxak eta fitxak egin genituen, haietan etxeko nahiz kanpoko bizidunen izenak izanik ugarienak.

Gogoratzen naiz oraindik *Margo Ederdun Entziklopedia* goitik behera nola irakurri eta hustu nuen; zuzendari gisa Manuel Lekuona agertzen zenez, hurbildu nintzaion ea itzultzaile guztien artean zein erizpide finkatu zuten edo, jakin nahiean. Andoaingo bere etxean ohi duen goxotasunez hartu ninduen eta esan, ez zutela honelako lanik egin, berak itzultzaileen esku utzi zuela lana eta haien lana bideratu besterik ez zuela egiten.

Itzultzaileengana jo nuen orduan, galdera bera denei eginez. Jaso nituen erantzunak ere berdintsuak izan ziren denak, alegia; Plazido Mujikaren hiztegia erabiltzen zutela eta handik ezagunena zutena hartzen. Azken batean gu guztiok toki bere-tsura jotzen genuen.

Nola edo hala, Euskaltzaindiaren zerrenda probisional batzu erabiliz, etab. burutu genuen goian aipaturiko hiztegi hori. Izen asko sartu genuen bertan, ez zerrendan, agian, baina bai testu idatzian barreiatuta. Izenok, ordea oso generikoak ziren (otso, pinu, orein...), Ez genuen izen espezifiko asko sartu, oraindik landugabekotzat jotzen bait genuen.

Landugabea eta batugabea iruditzen zitzaigun eta 1974ean Zeruko Argian "*Bizidunen izen herrikoiak eta zientziazkoak*" deituriko artikulua argitaratu nuen erizpide batzu plazaratuz.

Hamar urte luze igaro dira ordutik hona, UZEI ere sortu zen handik denbora gutxira eta lanak beste laguntasun batzu hartu zituen, orduko atomismoa zertxobait apurtuz.

Hasiera bertatik izan zen UZEIn Natur Zientziak saila eta lan partzial asko egin du tarte honetan: testuliburuak, horma-irudiak, eskolako material lagungarriak, itzulpenak, etab. Baina batez ere hemen gauza bat azpimarratuko nuke: kontsulta pilo bati erantzun. Eta kontsultak esandakoan, kontsulta puntualak eta kontsulta luzeak aipatu behar dira: argitale-txeetatik, irratietatik, bikoizketa-zentruetatik, museotatik, ikastola eta eskoletatik, unibertsitatetik, etab. etab. luze bate-tik etorriak.

Eta kontsulta horiek gure lana bideratu egin dute, erdilo zeuden alorrak esnatu dituzte eta apurka-apurka ur handietan murgildu arazi gaituzte.

Duela hiruzpalau urte, erantzun globalago batzuren bila hasi ginen, aldian-aldiko puntutxoei lotura bat eta batasun armoniko bat topatu nahiez. Azkenean, orain argitaratu dugun liburu hau izan da lehen emaitza. Jabetzen gara ez dela asko, jadanik txikitxo dela, inprimategian zebilen bitartean etorri zaizkigun kontsultak erantzuteko ere urri gertatu bait da zenbait kasutan, baina kaleratu beharra zegoen zerbait, eskaera handiegia genuen, beti biharko lagatzen aritzeko; zazpikia edo zortzikia, potoloa nahiz flakoa, amaren nahiz aitaren antzekoa, hor dago gure lehen umea, denbora izango du gerora ere hazteko.

1. Lan honen metodologia

Erantzun puntualak ematen aritu garen garaitan (ezin bait genituen erantzunik gabe utzi) UZEI barneko oniritzia besterik ez zuten askotan izaten proposatzen genituen izenek. Beti

esan izan genuen behin-behinekoa zela, eta kontsultagilea guk emandakoarekin bat etorri gero, han joaten zen aurrera.

Oraingoan, liburu honetan agertzen diren izen guztion metodologia bat bera erabili ondoren eman dira:

a) *Testuen hustuketa.*

Esan daiteke produkzio literario teknikoak osorik irakurri dela; halaber, kontsultatu direla euskaraz ditugun hiztegi guztiak eta, landare eta animalien izenez dagoen guztia. Agian, oraindik begiratu gabe geratu dira, guk zuzenean begiratu gabe, testu zaharretan barreiatu dauden hainbat izen, baina hori, gutxienez izateaz gainera, egindako kontsultekin ordeztu dela esan daiteke.

b) *Zuzeneko bilketa.*

Ez dugu sistematikoki Euskal Herriko goi-beheak miazten jardun animalia hau edo landare hau nola esaten den jakiteko. Hobe hala egin izan bagenu, baina ez dugu horretarako ahalbiderik izan. Hori bai, lan horietan ibilitako guztiak kontsultatu ditugula uste dugu, eta norbait kontsultatu gabe utzi badugu, ezagutzen ez genduelako izan da, eta ez beste ezergatik.

Hala ere, arazo puntualak argitzeko egin da landa-lana ere, beste iturriek argibiderik ematen ez zutenean. Kritika-lanak ere horretarako zerbitu du.

c) *Proposamenaren lanketa.*

Bizidun-talde bakoitzean aukera bat egin da espezialistekin kontatuta, alegia, mugatu egin da izena ematea merezi zutenen kopurua. Ez besteek izenik merezi ez dutelako, baizik eta oraingo ekinaldi honetan gehiegi ez luzatzearren.

Aukeratuko horiei izen bat eman zitzaizen eta kritikarako banatu ondoren. Izena emateak ez du sortzea esan nahi, lehendik zegoenean hura aurkeztea nahikoa izan bait da.

d) *Kritikaldia.*

Bi motatako kritikariak izan ditugu gure artean, alde batetik, talde bakoitzeko espezialistak, alegia, ornitologoak, botanikariak, mikologoak, iktiologoak, etab., Ho-

riei bi gauza eskatu dizkiegu, batetik bizidun hori bezteko aukeratutako ezaugarria egokia zen, eta espezialisten artean euskaraz zekitenei, bestetik, euskarazko izena egokia ote zen. Beste kritikolari-mota hizkuntzalarari edo euskara-inguruan mugitzen denena izan da, hauei batez ere euskarazko formaren egokitasunaz galdu diegu, alegia, ea hitz hark -a organikoa baduenez, ortografia ondo al zegoen, izen baten osagaiak ordena onean al zeuden, etab.

e) *Azken erabakiak.*

Kritikak gureganatu ondoren erabakiak hartzeko aldia hasten da. Hor bi modutara jokatu dugu: bat, kritikak ezaugarri baten egokitasunari buruz izanez gero, batez ere espezialistekin kontatu dugu, eta bi euskarazko oharra izanez gero hizkuntzalariekin. Normalean, arazo puntualak izan direnez gero, batekin eta besterekin kontsultatu ondoren erabaki batera iritsi gara eta ez dugu ondoren berriro kontsulta zabala egin.

2. Eragozpenik nagusienak

Ez da erraza eragozpen eta arazo orokorraz hitzegitea, talde bakoitzak bere egoera bait zuen eta sail baten barnean ere ez bait da lan berdina izan fase desberdinetan. Horregatik ondoren aipatuko ditugun arazo hauek batean ez bada bestean agertu direnak dira.

a) *Euskal tradizio zientifiko gutxi.*

Euskaldun biologoek, salbuespenak salbuespen, ez dugu izendegi normalizatu baten beharrik sentitu. Arrazoietako bat erdaraz funtzionatu izan dugulako izan da. Edonork sentitu du herri mailan izen-bilketa egin beharra, ez dugu toki gutxitan irakurri behar hori; gerok ere hamaika aldiz errepikatu dugu, herri-kulturaren aberastasun bat beti kontsideratu bait dugu. Baina gutxik sentitu du normalizazioren beharra; gainera, normalizazioak aukera bat egin beharra dakarrenez, gauza kaltegarritzat hartu izan da askotan normalizazioa, txirotasun bat omen dakarkigulakoan.

Normalizazio hori egin denetan ere, ez da eguneratu urteetan zehar eta zaharkitzeko arriskutan zegoen.

Egoera bestelakoa izan balitz, nahikoa zen zegoena jasotzea, e.b., "nola deritze malakologo euskaldunek halako moluskuari beren lanetan?" galdetzea nahikoa izango zen arazoa konpontzeko. Baina zoritxarrez ez da horrela.

Beraz, gure liburu hori batzuetan tradizioaren biltzaile da, baina beste askotan bide berriaren proposatzaile.

b) *Material sakabanatua.*

Lan txikiak egin dira eskuetan dugun gai honetaz, eta materiala oso sakabanatua aurkitu dugu, eta egunetik egunera agertu izan zaigu paper berriren bat. Bilketa-lana egin da, bada, beste gauzen artean, eta orain kontsultatu lukeenarentzat han dugu UZEIn bilketa hori.

c) *Euskara bera normalizatu gabe.*

Izendegi honetan izen asko dago herri-ondaretik hartua, batez ere izen generikoei dagokienean. Horregatik izen horien finkapena nahitaezkoa zen gure lan honetarako. Baina, zoritxarrez, egitear dago bere osotasun batean. Potez ikusi dugu inprimaketa-lanetan ari ginenean A letrari dagokion argitalpena.

Hutsune hori, datorren normalizazio hori nondik nora doan dakitenei egindako kontsulten bidez betetzen ahalegindu gara, dagoeneko zuzendu zitezkeen hitz-formak aldatuz.

3. Lortu nahi izan dena

Biologiako Izendegi Normalizatua lortu nahi izan da, guk B.I.N. laburduraz bataiatu genuena. Eta horregatik, honelako afirmazio batek sortzen duen dardara eta guzti, Biologi edo Geologi gaiak darabiltzan edonork erabili beharko lukeena, dibulgazio-lanetatik hasi eta goragokotaraino; maila generikoan mintzo denak izen generikoak erabili beharko ditu, eta espezi-fikoak maila espezi-fikoan ari denak, alegia, "okil"-az generiko-ki ari denak jakin beza European hamarren bat espezie badi-tuela.

Honako lan batek zuen garrantziarengatik sail bakoitzean hartako espezialistekin kontatu dugu, haien adostasuna lortu nahi izan dugu egitean bertan, gero erab miliko duten bermea izateko.

4. Aurrerako bideak

Liburu hau hasiera besterik ez dela esan dugu atarian. Ez dugu esan honelako lan guztietan esateko ohitura delako, baren-barrendik hala sentitzen dugulako, eta hala ez ikusteak sortzen digun pena ezkutaezina delako.

a) *Hemen ez da jasotzen egin den guztia.*

UZEIko fitxategietan material asko geratu da argitaratu gabe; batetik, zenbait kasutan nahiko informazio ez genuela pentsatu dugulako; bestetik, espezialistek ez argitaratzea hobe dela adierazi digutelako; eta azkenik, liburu honetan doazenak eraman duten metodologia eramateko berandu landu direlako.

Behar berriak etengabe ari dira sortzen gure artean, pentsa besterik ez dago komunikabide euskaldunetatik zer eskaera ez den sortuko oraingo martxak aurrera segitzen badu.

Beraz, periodikoki egin beharko dira eranskin berriak, lehengoak zuzenduz eta berriak gehituz.

b) *Hemen argitaratzen dena ez da osoa.*

Esan dugu lehentxeago handik eta hemendik egin den bilketa handia izan dela, eta hala da. Hustuketa hori ez da liburu honetan agertzen, horregatik diogu ez dela osoa.

Hustuketa horrek merezi du kaleratzea, ez egin den aukera maisiatzeko bakarrik, baizik eta, eta batez ere, lehendik argitaratutakoaren eguneratze-lanetan erabiltzeko, nork bere ohitura, euskalki, etab. etatik oraingo izen normalizatura heltzeko, eta azkenik, oraindik jaso gabe dauden ekarkin berriak gehitzeko (batek baino gehiagok pentsa bait lezake dena egina dagoela).

c) *Erabilerak finkatuko ditu edo baztertuko.*

Gorago aipatu dugu proposamena dela hemen agertzen dena, ez gara konformatu lehen zer egin den esatearekin, hemen doazenen alde jokatu dugu. Baina, euskaldungoa ez gara egileok bakarrik, onarpena falta dute, eguneroko lanetan erabiltzeak ematen duen onarpena.

Eta badakigu hauetako zenbait baztertuta geratuko direla, euskaraz jo eta ke ari denaren diskurtsoan ondo funtzionatzen ez dutelako. Funtzionamendu ona da arrakastaren bermea.

Urteak igaro ahala, bestalde, euskararen normalizazio orokorra sendotzen eta finkatzen joango da eta hemen agertzen diren zenbait forma aldatu egin beharko dira arau berriak eman direlako. Etengabeko eguneratu beharra bistako gauza da.

d) *Izenok biluzik doaz.*

Liburu honetan izenak soilik bere hartan doaz. Noski, latinezko izenen bidez eta, ondo eta zehatz jakin daiteke zeri ematekoa den. Baina hala ere, ez da inongo irudirik eta definiziorik ematen (aziendetan ez bada).

Orain arte erdal parekidearen bidez ematen ohituak gauden zoritxarrez euskaldunok. Liburu honek ez du konponetzen, argi dago, arazo hori. Euskaraz gauzak agertzen hasi behar dugu eta UZEIko hurrengo Biologiako argitalpenetan hemen agertzen diren landare, perretxiko eta animaliak (labur bilduz) definizioz ematen saiatu beharko dugu. Orain arteko ohitura noraino errotua dagoen jakiteko egizu aproba zerorrek eta galdetu norbaiti: "Zer da hartza?". Ez zaigu iruditzen nolakoa den esplikatzen hasiko zaizunik, "Hartza?, Oso" esanda utziko zaituen alde gehiago jokatuko genuke.

e) *Biologo eta geologoen esku dago etorkizuna.*

Biologiari buruzko euskal bibliografiarik gehiena itzul-tzaileek sortua da, entziklopediak itzuli dituztelako, edo filmeak, edo laburpenak. Tamalez hori da egia.

Horrek horrela jarraitzen badu, ez luke Izendegi honek adin-nagusitasun osorik inoiz iritsiko, beti ume izango li-

tzateke. Profesionalek bere egin arte ez du beharrezko oniritzia lortuko.

Horretarako, ordea, biologoek euskaraz funtzionatzen hasi behar dugu gure eguneroko bizitzan; batzu irakasle dira, besteak ikertzaile edo biak batera, bakoitzak jakingo du non dabilen eta noiz zer egin.

Dударik gabe, biologo eta geologo euskaldunei eskaintzen diogu Izendegi hau, edo behintzat beren eguneroko lanean erabiliko dutenei.

"Euskara gizarte bizitzan"

Aracil, Lluís V. eta Larrañaga, Iñaki
Tolosako Udala. Tolosa, 1984.

Tolosako Udaletxeko Euskara Batzordeak antolaturik herri hartan 1983ko abenduaren 19tik 23ra izan ziren mintzaldi eta mahainguruen laburpena dator liburu honetan.

Hitzaldietarako sarrera orokor labur batean Euskararen atzerakadaren historia eta Euskararen gaurko egoeraren diagnosi labur bana egin ondoren gaiari zuzenean heltzen zaio.

Lau gai nagusi ukitzen dira, sei saiotan banatuta:

- 1) Euskara irakaskuntzan: Ikastetxeetako ikasle eta irakasleekin.
- 2) Euskara Administrazioan:
 - a) Udal funtzionari eta langileekin.
 - b) Eskualdeko zinegotzi eta talde politikoekin.
- 3) Euskara gizarte zerbitzuetan:
 - a) Profesio liberalekin.
 - b) Dendari, enplegatu eta era guztietako elkarteekin.
- 4) Euskara lan munduan.

Saio bakoitzean, gaiaren aurkezpen labur baten ondoren galdera erantzunak azaltzen dira.

Aipatuak bezain alor desberdinetan tesia ez da bakarra, anitza baizik, eta ezin liteke hitz gutxitara laburtu. Esan liteke,

hala ere, hizkuntzaren egoerari, iraganari eta etorkizunerako bideari buruz egiten den *diskurtsoa* hautsi eta eraisten saiatzen direla ahaleginean bi ponenteak, eta alde horretatik zer pentsatua ugari ematen dutela, hizkuntzari buruzko diskurtsoa bait da hain zuzen hari dagokionez gauden gaudenean gauzkana. Ll. Aracil-ek esaten bait du: «Mahai gainera ideia batzuk azaldu ditugu, eta hauek pentsaraziko digute, pentsatzeko tresnak dira, nolabait esateko "pentsagailuak" dira». Eta zer nahi ez duten ere garbi uzten du: "Hemen ez da muntaia teknokrata bat egin nahi izan. Eta zer da teknokrata bat? Bada, zure arazoa ez dela arazoa eta gainera ez dela zurea esaten duena. Normalean atzerritarrak izan ohi dira, mertzenario lotsagabe batzuk".

Arazoa, era batera edo bestera, berea duenak soziolinguistikaren ikuspegi ez ofizial oso interesgarria du, beraz, liburutxo honetan.

Jesus M. Zabaleta

Euskara eta Administrazioari buruzko I. Ihardunaldiak

Administrazioa Euskaraz 1

Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea/I.V.A.P.

ISBN 84-7542-112-1

Oñati 1984

169 orrialde. 15 x 21 zm.

Gotzon Egia

Oraintsu bi urte Gasteizen izenburu berberorrekin izandako Ihardunaldietan aditzera eman ziren txostenak biltzera dator Oñatiko Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea/Instituto Vasco de Administración Pública-k argitara zabalduen liburu hau. Ihardunaldiok 1982ko azaro-abenduko hondar-hasieratan izan ziren Lakuako gobernu-egoitzan.

Nori berea zor zaio eta, derradan lehenik orduko hitzaldiok eskutako hatzez konta ahalako entzuleak bildu zituztela, antolatzaileen zorigaiztorako. Izango al du liburu honek haiek inguratu ez zuten entzutea.

Orain inprentaratuz jasotzen dena, beraz, orduan jendarean azal dutako 9 txostenak dira, aldakuntzarik gabe. Gainera, hauek bi Joseba Arregi Aranbururen "*Administrazioaren Euskalduntzea. Ohar orokorrak*" eta Pedro Alvarez Mingoren "*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Itzulpen-lana*", Herri-Arduralaritzazko Euskal Aldizkariak argitara emanak zituen lehendik..

Hitzaldi guztiok elkarren ondoan eta gainbegirada bakar batez ikusteak aipatu Ihardunaldien neurria ematen du. Azaltzen diren gaiak arras heterogeneoak dira, elkar lotura ahula dute; norberak emandako tratamendua, bestalde, guztiz da bestetatik berezia eta urrutikoa batzutan (printzipio oro-

korretako espekulazioetatik aipamen bibliografikoz jositakoetara). Esku bakarraren falta da nabarmen, guztion esatekoak gutxienezko bateratasunak uki zitzaizkien.

Sistematikarik ezean, badira euskararen normalkuntzaren alde juridikoak eta legezkoak xehetzen dituzten bi txosten: Alberto Ansola Maiztegiren *"Regulación legal del euskara en la Administración: el proyecto de Ley Básica de Normalización del Uso del Euskara"* eta Jose Luis Lizundia Askondoren *"Euskararen normalizapena euskal administratiboan"*. Gogoan izan behar da, bada ezpada, artean euskararen normalkuntza-legea orduantxe onartua zuela Gasteizeko parlamentuak, txostenaren izenburuak "proyecto" bazion ere. Ez da luze jo behar bi txosten huek parlamentuan lege-proiektuaren eztabaida garaietan ageri izan ziren jarrera nagusi bien laburbilpena direla jakiteko, haien gurasoek ere ez bait dute beren jokamolde politikoa izkutan gordeta, biak ere parlamentari izaki ginera. Bi urteren aldean, harrigarri gertatzen da Lizundiaren argudio luzeak (egituraz eta formaz adibide ezagun baten ereduaz moldatua, baina hori beste kontua da) zer defentsa lotsatia izan duen ohorezko tribuna horietan. Gauza asko utzi zituen Lizundiak esanak orduan, gehiegi agian bere talde politikoak berak ere hain agudo bazterrean ahaztutua uzteko. Izan ere, normalkuntza-legeak bi urte bete dituen honetan hizkuntza politikaren gidaritzak zer egitura eta nolako baliabide administratiboak erabiliko dituen definitu gabe dago oraindik. Ansolak, legearen defentsa suharra egindakoa, "administrazioa euskalduntzeko politika bakartzat" aldarrikatu zuen. Denbora puska ederra joana da legean egin asmo ziren haiek zertan diren miatzen hasteko, eta ez dirudi inork ekin dionik lan honi.

Administrazio-lanetan usatzen den hizkera, eta beronek dakarzkigun korapilo linguistikoak dira kezka liburu honetako beste lau txostenetan: Joxe Juan G. Txabarriren (sic) *"Administrazio-Euskararen lantzea"*; Xabier Mendigurenen *"Administrazio Publikoaren Euskalduntzea eta Itzulpen Zientzia"*; Josu Oregi Aranbururen *"Arduralaritza-Euskeraren Baldintzak"*; eta Pedro Alvarez Mingorena, lehen ere aipatua.

Lehenengo biak oso lan dokumentatuak dira, nork bere barruti konkretuko bibliofragia ugari erabiliz moldatuak, eta administrazio-hizkeraren puntu banakari lotuak: G. Txabarririk administrazioko euskal lexikogintzaren saio batzuren berri xehea ematen du, bere sortetxe profesionala izan zen era-

kundearen ukitu nabarmenez. Mendigurenek, berriz, itzulpen-zientziak Administrazioan itzulpengintzarako eskaintzen dituen argibideak azaltzen ditu, eta jokamolde desberdinen balioa luze-laburrean neurtzen.

Beste biak, aitzitik, arrunt bestelakoak dira. Oregirena eta Alvarezena anai bizkiak dira, bi-biak ere hipotesis berari eustera baitatoz. Derakustzaten adibideak frankotan berak dira, edota oso berdintsuak. Eta funtsean, halakoak edo bestelakoak Konstituzioa edo Estatutoa euskaratu zuenen egindako izugarrikeriak adibide bakartzat hartuta, itzulpengintzarako eredu baliogabe bati nahi dizkiote azpiak jan, beste inolako argudio politikorik gabe "Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria"-n lau urtez honuntza asma ahala egiten den euskara ulertezin eta hanka-buru gabe hori zuritzeko. Exenplu-solteak erraz dira aurkitzen nonahi inor harrapatu nahi bada, baina "esan ditzadanak bere alorretan ari direnentzat baliagarri izan daitezkeenaren ustetan", "agintarien herritarrekingo harremanak" (Oregi); "bereiztu gintzake", "ondoriozki, edukiaren benetako nabardurak galdu eginez", "eraldatu ez dezakenaren baldintzapean", "-ko lekuzko atzizkiagandik aterata", "... Saila... ekingo zaio " (Alvarez) idazten dituenak zuhurtasun handixeagoz mintzatu beharko luke besterenaz. Oregik nola Alvarezek esandakoei askotan arrazoirik ez zaiela faltaitsuak ere ikusten ahal du, baina errazago ikusten ere hautabidea, ez bakarria ez onena, ez dela hain xuxen aipatu Aldizkari Ofiziala.

Gainerakoan, Jose Arregi Aranbururen aipatutakoa eta Gotzon Egiaren "Euskararen Normalizazioa Gipuzkoako Diputazioan" txostenak kontsiderazio orokorretara lerratzen dira, administrazioaren hizkuntz normalkuntzaz bere osotasunean errelexio-bide batzuk proposatuz.

Azkenik, Carle Duarte i Montserrat-ek "*La normalización lingüística en la Administración Pública en Catalunya*" txostenean herrialde hartan egindako saioren bilketa polit eta adierazkorra ematen du, eta esan egiten ez badu ere agerian uzten hemengoarekin diren aldeak.

**BERRI
ETA
ALBISTE**

Termia 84

Terminologia eta nazioarteko kooperazioa.
Terminologia, teknologien transferitzeko tresna
baitezpadakoa. Luxembourg, 84-8-27/29.

K. Harluxet
 (UZEIko lankidea)

Terminologoak, orain arte, elkartzen ziren itzultzaileekin edo hiztegi-gileekin. Québec-en, 1982.ean sortu zen **Termia**, terminologoen elkarte; elkarte horrek du ospatu Luxembourg hirian bere lehen nazioarteko batzarrea: **Termia 84**.

Aitortu behar da terminologiak baduela zer ikustekorik, bai hiztegi-gintzarekin bai itzultzailetzarekin. Hitz gutiz erran genezake terminologoak itzultzaileari nahi dizkiola eskaini hitz berriak, hiztegi klasikoetan ez daudenak. Neologiarekin, izen edo hitz berrien asmakuntzarekin eta moldakuntzarekin badu ere zer ikustekorik terminologiak. Hizkuntza bakoitzak baditu bere erregela edo mekanismoak hitz berrien sorteko. Oraingo komunikazio-mundu honetan bai gauzak bai hitzak heldu zaizkigu ugari beren sorterriko hizkuntzan. Hitzak sortzea baino gehiago, hitz arrotzen herritartzea litzateke, beraz, terminologoen lan nagusia. Gehiago mugatu behar bada alorra, erran genezake terminologia hiztegi berezitupei eta hizkuntza berezitupei zaiela lotzen (*Languages for special purpose*). Baina hor da: hiztegi berezituaren hedadura hiztegi klasikoarena baino handiagoa gertatzen dela askotan. Adibidez, frantseseko hiztegi klasikoetan 50.000 hitz direlarik, Québec-eko **Terminoq** bankuan 400.000 hitzez goiti badauzkate sarturik. Muga-problemetan galdu gabe esan dezakegu, terminologiak ordenado-

re, datu-banku eta holako tresna modernoek lagunduz zabaldu duela hiztegiaren alorra.

Batzarrearen tituluan aipatu gaia bezain interesantea gertatu da terminologi bankuen konparaketa teoriko eta praktikoa. Alabaina terminologo ezagutuena hor ziren eta telefonoz bai Ottawa-ko bai Québeceko bai Luxembourgeko bankuak galdezka zitezkeen.

1. Teknologia transferentzia eta terminologia

Brasileko, Mexikoko eta Afrikako partaide batzuk agertu dute nola teknologia berrien bitartez terminologia berri bat sartzen zen beren hizkuntzetan. Ez bakarrik termino arrotzak, baina hizkuntz egitura arrotzak ere sartzen zirela Hego Ameriketako hizkuntzetan. Teknologia, kulturen eta hizkuntzen dominatzeko bide berri bat bezala salatu dute, erremedio bezala ikusten zutela beren hizkuntzetan terminologoak formatea.

Teknologia aurreratuak saltzen dituen enpresa batek ikuspegi diferentea du. Siemenseko Schneider jaunak azpimarratu ditu ondoko datu hauek. Baitezpadakoa da, ekonomi arazoengatik, mundu osoa merkatutzat hartzea teknologia aurreratuentzat. Baitezpadakoa da teknologia hauekin terminologia zuzen eta zehatz bat eskaintzea, ezen teknikariak gehienetan makina programatu behar bait du. Baitezpadakoa da, beraz, teknikariak formatzea eta dokumentu guztiak itzultzea. Beraz, Schneider-en eritziz, teknologi eskaintzailea eta hartzailea ez dira errotik etsai terminologi alorrean.

Egia erran, ez da eztabaida bizirik izan gai honetan, jendea gehiago arrangura bait zen terminologoek hezkuntzaz edo hobekuntzaz. Afrikan gertatzen direnak bereziki aipagarriak dira, eta aipatuak izan dira. Rwandan ospatu zen, urtarrilean, Afrikako lehen terminologi batzarrea. Afrikar herri batzuk (Rwanda, Madagaskar etab.), beren hizkuntza nazionala eskolan sartzen duten garaian, Euskal Herriaren problema berak aurkitzen dituzte, bai terminologi mailan bai soziolinguistika mailan.

2. Terminologi bankuak zertan diren

Kolonialismotik sortu bada hizkuntz dominazioa, herrien kooperazio-konpetentziatik sortu dela terminologia erran genezake. Kanada elebidun eta kulturbidun definitu den puntutik sortu da terminologia ingeles-frantsez baten beharra: **Terminium**, Kanadakoko datu-bankuaren ideia horretan datza. Alderantziz, Québec-ek bere nortasunaren agertzeko eraiki du **Terminoq**; banku honetan, frantsesezko hitz iturri, berezi eta orokor, guztiak sartu dira ingelesarekin parekatzeko.

Europako batzordeak haste-hastetik hizkuntz problema planteatu du; txosten, agiri eta lege guztiak zazpi hizkuntzetan argitara behar dira. daniarrek, ingelesek, holandarrek, alemanek, frantsesek, italiarrek eta grekoek beren hizkuntza zaintzen duten garaian Irlandak ez dio kasu handirik egiten. Lege bat bakarrik da irlanderaz itzulia izan.

Bihar espainola eta portugesa sartuko dira **Eurodicautom** datu-bankuan. Etzi, zergatik ez bretoiera, korsiera, katalana eta euskara. Europako Parlamentuan diputatu batzu ideia horri irekiak dira. Noizbait ideia hori onartua izango da. Terminologoen artean ez da problemarik, baina politikoen artean ez da berdin. Europako mahaian herri bakoitzak bere janaria ekartzen du. Denei banatzen zaien parte, parte txikiena!

Halere ezin ukatu da, dominaziotik kooperazio-konpetiziora pasatzeak terminologia bultzatu duela munduan zehar. ingeles eta frantsesa lehen, alemaniera hurbil, daniera ondolik. Afrikako hizkuntza batzu, euskara bera, abiatu dira terminologiaren ildotik tresneria eta izpiritu berri batekin. Leku-kotasun hori ekartzen zuelako izan da **Termia 84** pozgarria.

Euskaltzaindiaren X. Biltzarra

Irailaren 25etik 29ra Euskaltzaindiak bere X. Biltzarra izan du Iruñean Arturo Campionen omenez. Honetarako Gramatika Batzordeak txosten bat prestatu zuen, bertan perpau-saren egitura aztertuz, izen sintagma batez ere, eta beste maila batean aditzarekin zerikusia duten gainerako elementuak. Guzti hau euskara batuaren etorkizuneko gramatika osoaren oinarri bezala.

Helburu honi begiratuz interesgarriak iruditu zaizkigu txostenaren antolamendua eta azterketarako aukeratutako ikuspegia. adibidez, azterketa morfologikoaz gain sintaxia ere kontutan hartzea, azken urteetan egindako lanen bidetik.

Aztergai nagusiak bileran eztabaidarako laburki aurkeztu ziren, korapilotsu gerta zitezkeen puntuak bereziki aipatuz. Arratsaldez beste zenbait azalpen entzun ahal izan ziren, batez ere atzerriko unibertsitateetako hizkuntzalariek eginak.

Lanaren aurrerapenak aipatzerakoan, esan behar da, zalantzazko zenbait forma nola erabili esaten zaigula, hala nola orduak, datak, zenbakiak -nahiz eta batzuetan erabakirik ez hartu bata eta bestearen forma desberdinen artean (*batean, batetan, -ra arte, -arte, -a arte, -rarte*)— dena dela horien artean aukera bat egin beharko dela proposatzen da.

Determinatzaileen sailean eta izenordainenean forma ugari, jaso dira, euskalki guztietakoak ia, gainera testuinguruan ezarrita ikuspegi sistematizatzailea erabiliz, alegia, batasunerako aukeratu zen bide beretik.

Hala ere, zenbait puntu arrunt, egunero eztabaidagai direnak, hemen ere konponbiderik gabe daude oraindik, hitzen formaz batez ere (*zeinnahi, zenbatnahi, zeinahi, zenbanahi, menpeko, mendeko*). Beharbada hiztegiak erabaki beharko ditu, baina bitartean traba izango dira, itzultzaile, argitaletxe eta irakurleontzat.

Gramatikari berari dagozkion arazo guztiak ere ez dira konpontzen. Adibidez, Mitxelenak berak galdetu zuen bileran, posible ote zen deklinabide kasua ezabatzea koordinazioz osatutako kate luzeetan:

aita, ama eta izebarekin joan naiz

aita amarekin eta izebarekin joan naiz

aitaren eta lagunarentzat ekarri du

aitarentzat eta lagunarentzat ekarri dut

edo oposizioan dauden elementuek deklinabide kasua eraman behar duten. Edo (-rako -ko) atzizkien erabilera.

Dena dela oharretan jasoko dira iritzi desberdinak lana argitaratu aurretik.

Baina zalantzazko zenbait erabileren (asko/handia, bat, arabera/berdina, haren/bere, lehen/lehenengo) bereizketarako arrazoiak eta adibideak ematen dira, eta azken hauetan oinarrituko dira ematen zaizkigun irizpideak. Honela deskriptiboa gertatzen da "agintzaile" edo prezeptiboa baino gehiago gure artean hain normala izan den jarrera hori baztertuz.

Orokorki proposamen zehatzak egiten dira erabilera desberdinak dituzten formetan, praktika arauztatu nahian, eta azpimarratu beharko da praktika honen garrantzia, motore gisa jokatu bait du.

Aurrera begira, zenbait puntu osatu ondoren lana lehenbailehen argitaratuko zela agindu zen bileraren amaieran, ondoren Euskaltzaindiak ofizialdu egingo ditu erabakiak. Batzordearen lanak aurrera egingo du, perpaus bakunaren beste zenbait puntu sakonduz, aditza eta galdegaia.. Ondoren ikusi ez dituzten alorretan sartzeko, hau da, perpaus konposatuan.

Bilera amaitu eta sei urtetako epea jarri zen gramatika osoa bukatua egoteko, bitarte horretan beste lanak egingo baidituzte ere. amaiera honetan ere erabakiak hartzeko beharra eta premia aipatu zuten eta horrek ere garrantzi handia izango du era honetako lanetan. Izan ere, hizkuntzaren estandarizazioarako oso beharrezkoa dugu Gramatika Batua, oraingoz zati bat besterik ez badugu ere.

Baina ez zati honetan, ez eta ere menpeko esaldiak eta azterterakoan ezin espero genezake, irtenbide eta erantzunik geure zalantza guztietarako, erabilera guztietan zer dagoen ongi eta zer ez esango digunik, bitartean horren zai gaudela. Gure ustez hauetan ahal diren forma gehienak jasoko dira, baina beste lan zati handia horren inguruan Linguistika pragmatikoa eta Estilistikaren ikuspegitik egin beharko da, eta lan puntualago hauek argituko digute hizkuntz arauaren bide-tik egituren eta hitzen erabilera egokia.

Espero dezakeguna, beraz, zera da, forma arrunten eta ez arrunten erabilera normalizatzea, ortografian eta funtzio morfologiko-sintaktikoetan eta hauek bilduz sailkapen egokiak osatzea ahalik eta forma gehienak kokatzeko.

Baina arazo horietan sakontzen hasiz gero, testuinguruak diskurtso mailak, ohizko idazkerak, hitz batean *arauak* duen garrantzia eta zer-esana handiagotuz doa.

Hala ere lehenengo maila horretan bertan oraindik badago zer esana eta batez ere zer erabakia

Iraileko aste hura hizkuntzalarien artean igaro genuen hizkuntzaz jo eta ke lanean goiz eta arratsalde. Eguneroko eginbeharrak bultatu gintuen Iruñera erantzunen bila. Han aurkeztutako lana baliagarri gertatuko zaigu guztiori eta egitekoak ugari badira ere, pozik jasoak izan dira orain artekoak:

Aintzane Ibarzabal

F.I.T.-en X. Mundu-Biltzarra

(Viena, 1984eko abuztuaren 17tik 23ra)

Hiru urtez behin, munduaren bost ataletarikoren batean biltzen dira itzultzaileak Nazioarteko Federakundearen deira, beren poz eta nahigabeen berri elkarri emateko, eta etorkizunari buruz erabakiak hartzeko.

Federakundearen kideek, F.I.T.-en Batzorde Zuzendariak buruturiko ekintza-txostenak entzun eta onartu ondoren, Kontseilu berria hautatzen dute. aldiro kide berriak sortzen dira eta aurten F.I.T.-en 25%-ko hazkunde nabarmena izan du, zeren eta hamar elkarte berrik eskatu bait dute sarrera. Hona hemen aurtengo biltzarrean Federakundea sendotu duten herrialdeen izenak: Argentina, Austria (itzultzaile literarioak), Grezia, Marokko, Mexiko, Herrialde Behereak (itzultzaile literarioak), Alemaniako Herri-Errepublika Demokratikoa (itzultzaile literarioak), Sri Lanka, Venezuela, Zaire. Biltzarreak E.S.U.T. erakundea ere onartu du kide asoziatuen mailan.

F.I.T.-en Kontseilu berria honela geratu da aurrerantzean:

Presidentea: Anna Lilova

Presidentordeak: Hans Schwartz, Ewald Osters, Liese Katschinka

Idazkari Orokorra: Rene Haeseryn

Diruzaina: Jacques Goetschalckx

Eta kideak alfabetoaren arabera: Gerard Fritschy, Kurt Gingold, Sergei Gontxarenko, Brian Harris, Tadashi Koretsune, Marsa Laine, Manfred Schmitz, Ekundayo Simpson, Maria Jose Velasco, Maurice Voituriez, M. Zenker.

Gure irakurleen ezagupenerako esango dugu Maria Jose Velasco APETI (*Asociación Profesional Española de Traductores e Intérpretes*) erakundearen idazkaria da, interpretari zinegina, euskalduna, mutrikuarra bait da.

Hogeitamasei elkarteetako kideen aurrean, presidente berriak lehenengo biltzarrerako data adierazi zuen: 1987ko maiatzean ospatuko da, Herrialde Beheretan, Maastricht herrian hain zuzen ere.

SIET-en Bilera Vienan

1984eko abuztuaren 17tik 23ra bitartean FIT-ek ospatu zuen bere Biltzarraren barruan, SIET (Sociedad Iberoamericana de Estudios sobre la Traducción) erakundeak bere bilera izan zuen, Emilio Germán Muniz Castroren presidentetzapean.

Hamasei puntutako aztergai-zerrenda landu zuen SIET-en Batzorde Beterazleak.

Presidentea, Presidentordea, Idazkari Orokorra eta Diruzainaren txostenak irakurri ondoren, beste honako gaiok erabili ziren; besteak beste:

- *Tradução e Comunicação* aldizkaria erakundearen organo ofizial bihurtzea *Traducción y Comunicación* espainierazko izena ere ezarririk.
- SIET-en buletina Mexikon argitaratzea eta beronen argitalpena arauzkotzea.
- UNESCO-rekiko harremanak jarraitzea ONG edo Antolamendu ez-gobernuzkoen artean onartua izan dadin.
- Elkartearen finantziaketari buruz, kotizaziorik ez jar-tzea erabaki zen, orain-arte bezala eta UNESCO, OEA,

Andetako Hitzarmena eta abarren bitartez dirubi-
deak lortzea.

APETI

Estatu Espainoleko Itzultzaile eta Adierazleen Elkarte Profesionalek argitaratzen du. Aurtengo apirileko aldizkariaren aipamena egingo dugu, orduz gero beste alerik ez baita argitaratu.

1983ko Irailean ospatutako biltzar nagusiaren laburpena dakar: sei ohoreko kide berri hautatu ziren bertan. APETI-ren lankide den eta duela gutxi Real Academia Española-ko kide hautatua izan dena, Valentín García Yebra, tartean delarik.

El País egunkariko artikulua bat, proposamen bat eginez, aurki Alfontso X.a Jakintsua deituaren VII. heriotz-mendeurrena ospatu behar delarik, Toledoko Eskola birsortzeko eskatuz.

Euskara-Euskalkiak Topaketak

Eibar, 1984 abenduak 26, 27, 28

1985 urtarrilak 2, 3, 4

Tokia: Eibarko Unibertsitate Laborala

Eibarko Udalak aurreko urteetan ere Gabon inguruetan euskararen arazoren bat edo euskarari buruzko gairen bat hizketagai monografiko harturik antolatu izan ditu aurten bezalako topaketak ("Euskaraz eta kito", "Jon Mirande"). Aurten go Gabon hauetan "Euskara-Euskalkiak" hautatu dute gai monografiko bezala. Gaia hala izendatua badago ere, izan "euskara batua-euskalkiak" da.

Euskara batua edo euskalkien erabilerari dagokion ikuspegi bana aztertuko da egun bakoitzeko.

Ab. 26: **Literatura** - Atxaga, J.A. Arrieta.

Ab. 27: **Inguruko euskalkiak** - J.L. Davant, B. Kapanaga.

Ab. 28: **Soziolinguistika** - R. Baxok, Txillardegi.

Urt. 2: **Gizartea eta Administrazioa** - P. Garmendia, F. Krutwig.

Urt. 3: **Hezkuntza** - X. Kintana, A. Arejita.

Urt. 4: **Komunikabideak, itzulpengintza** - X. Mendiguren, Otermin.

Bi pertsona arituko bait dira, izan ere, ponentzia banatan, gai bakoitzaren inguruan. Arratsaldean talde lanetarako eta eztabaida publikoetarako uzten da.

Euskara batua edo euskalkien erabilera alor bakoitzerako ponentziak prestatu behar dituztenei gaia lau punturen inguruan lotu dezaten eskatu zaie, alegia:

- 1) Nola ikusten ditu alor jakin horretan euskara batuaren hautaketa eta garapena.
- 2) Nola uztartu litezke alor horretan euskara batua eta euskalkiak, egia bada, esaten den bezala, euskalkiak direla euskara batuaren iturburua.
- 3) Nolakoa izan da euskara batuari eta euskalkiei dagokienez, beraien arteko prozesua arlo horretan.
- 4) Beste herrietako esperientzia.

Egitasmoa zabala da, zinez, zabalegia beharbada ezertan sakon aritu nahi bada. Nahi den bezala, topaketa horiek internatu gisa egin nahi badira, alegia, goizetik gauera arteko saioetan, gai gehiegi eta zabalegiak iruditzen zaizkigu horrelako saioetarako.

Gainerantzean, gaiak badu izateko arrazoi aski, baldin eta muturretako jarrera eta elkarren ukaziotara eramaten ez bada. Euskarak iraungo badu, edozein hizkuntzak bezala –"edozein hizkuntza" bezala izatea bait da suertatu dakioken etorkizunik ditziratsuenatoki tokian tokiko eta egoeraz egoerako, mailaz mailako hizkeraz osatua beharko bait du. Euskarak euskara batudun, euskalkidun eta beste era askotako hizkera eta hizketa-modudun beharko du. Eta hizkuntza maila eta modu guzti horien arteko oreka, hizkuntzaren erabilerarik baldin bada, unetik unera definitzen da berriro.

Gure kasuan badirudi, gerra baten ondoren bezala, halako beldurtxo bat ote dagoen gai hauekiko –hots gehiegi entzuten da euskara gutxiegi egiten dutenen artean euskara batua-euskalkiak alorrean hitz garbirik esaten ez duena-. Horregatik ez da txarra aldiro aldiro gai hauek berriro mahaira atera eta hitzegitea. Gai gehiegi eta guzti, Eibarko topaketaok ez dute zertan onerako ez izanik.

Jesus M. Zabaleta

HARPIDETZA TXARTELA

SENEZ aldizkariaren harpidedun egin nahi dut:

Izena

Kalea Herria

Urteko ordainketa (2.100 Pta.) nire Banku edo Aurrezki Kutxako kontuaren bidez egingo dut :

Banku edo Aurrezki Kutxa

Kontuaren zenbakia

Sukurtsala

Kontuaren jabea

Entitate horretako nire Kontuan zorpetu itzazue nire izenean doazkizuen erreziboak.

Sinadura

Helbidea

